




ENBEITA OLESKARIA

AITA ONAINDIA

Aita ONAINDIA

ENBEITA OLESKARIA

(1878 - 1942)

ITXAROPENA ARGITALDARIA • ZARAUTZ

DEPOSITO LEGAL S. S. 8 — 1966
N.º DE REGISTRO 639 — 1965

Copyright©1966 - El Autor

«Itzaropena Argitaldoria» irar-lantegietan argitara emana - Zarautz (Gipuzkoa)

ARKIBIDEA

Enbeita oleskaria

LENENGO TXORTA (1902-1912)

Karabiñeruen bizimodua	23
Sakristauen egikerak	25
Etxebam'ko neure lora maitiari	26
Nere anaje maite Pedro	Enbeita'ri.....27
Manu'k Peclo'ri jarritakoen erantzuera	28
Zainduko gaitu	30
Igarkizuna	30
Izkirimirlak	31
Muxñka'n gertatua	31
Ama Begoñakuari	34
Bizkaitarren ispiUua: Balentin Berriotxo	a.....37
Gogoangarrizko	abestiak.....41
Ezkontza bat	Urkiola'n.....42
Alkar agurra	43

BIGAKREN TXORTA (1913-1932)

Artzata	barria.....47
Karmel-egunee Larra'ko lekaretxian	48
Erantzuna	50
Kukuarenak	51
Ene anal Urretxiñola	52
Uste bako eriotza	54
Maiatzian Amari	55
Zonm-agurra	55
Garilla	56

Lugiñak	pozik.....	56
Emen dok gure birigarro au		57
Nikasi ta Miren		58
Astua ta erila		60
Matxalen-kardu		61
Mendiko	alaitasuna.....	62
Zer nai dok	geiago?.....	63
Bakotxak beria malte		63
Jantzi daigun euzkera		64
Gokaxuaren dela		65
Praisku ta	Txindorra.....	65
Peru ta Miren sutonduan		66
Azkoiti'ko «Adarka»-ri		67
Gure	Txomin.....	68
Umezurtza		69
Sasi-	eskola.....	69
Beti	ezti	gozotan.....
Agur Miren garbia faboizu Euzkelerria		71
Beljika'ko Alberta bakaldunari		72
Aintza Beljika gurgarriari, gora Alberta bakalduna!		73
Gure Bakalduna		74
Gora	euzkera!.....	74
Egizko biotz-loreak		75
Urretxiñola beren emaztiz		78
Zorionak		80

IRUGARREN TXORTA (1923-1932)

Al ze ederra!		83
«Gure Herria»-ri	agur!.....	85
Euzkera	maitagarria.....	85
Eskerrik asko		86
Ludi zoroa		86
«Zidorra»-ri		87
Belen urian		88
Goiko	bidetik.....	88
Zorion-opea		89
Aeur.Sablñ!		89
Lenengo Jaunartze	egunian.....	90
Karmen'go	Amari.....	92
Gorozika'ko Andra Maria'ri		92
Jesus'en	Biotzari.....	92
Egia'tar Pantzeska		93
Agur	Garmendia!.....	94
«Kirikiño»-ri		94

...Eta Jaunguaren besuetan il zan	97
Zidar-eztegu-egunian	98
IzaU bi	99
Ongillei eskarra	99
Bikoitz	100
Astarloa'ren malUa	102
Gabon!	104
Kurutzia ta	106
«Euskaltzaleak» eta	107
Izaro	108
Omengarrizko blotza	109
GemJka	109
Udazkena ta baserritarrek	110
Lupetzartian ez sartu egorik	112
Oben-garbalaz	114
Gurutz-bidla	115
Lengo senian	124
Enbeita'tar	125
Txerren-otselñak	126
Mlren deuna	127
Zeruko Aitari	128
Garblñetxu'ren zintzotasuna	129
Bakotxak berla	129

14AUGAKBEN TXORTA (1933-1942)

Agur, «Lizardi»	133
Alatz-egodun	134
Urkiola'n	135
Garaille	135
Euskal emakuraia	136
Bizkargi	137
Bakerako legda	138
Jaiak jal	139
Arlatza'ko ikastola barrla	139
Mikel deunar! otola	139
Maitasun-iturnl	140
Urtebarrlz	140
Orra or Josu	140
«Agarei» (G. B.)	141
Neskatilla baten obiraltzian	142
Burua beti buru	142

Kukua	agertu	da.....	142
Udabarrla			143
Ene jaiotetxe maitea!.....			143
Pelota lakornk!.....			144
L°keitio'ko estropadak			145
Zorrontza'ko prantsesarl			145
Gure baratza			146
Usparitxa-Jauregi'tik txaunburu-etxera			147
Zorun-opazko	gomutakia.....		147
Txomin eta Garbiñe errik jaietan			148
Txomin eta Matxalen			149
Zazpi erriojanu			150
Eretxi bi			151
Enbeita'tar Bingene'rl			152
Altube'tar Seb.r'ek bere	maitiari.....		152
Agur. urtezarra!.....			153
Zorun osna!.....			153
Zorun osua!.....			153
Urtebarri on			154
Zorionak			155

ENBEITA OLESKARIA (1)

Ona emen, adiskide maiteok, zuok geienok naikoa ezagun izan arren, beste askok, —gazteen artean batez be— ain ondo eza-gutzen ez daben gizon argi bat. Nire ustez, joandako ia mende erdia darda gaiñean ckarri eban onek merezi dau adimenetiko omenaldia ta biotz-maitasuna. Enbeita zein gizona danez, zein oleskari, bertsolari danez, oso txalogarri dogu euskaldunok.

Bere guztizko irudia, bere gizantza, zan bestean osotu ta adie-razten emotea ez yaku, ez, arazo erreza. Bere giza-izate errotsu, jagi ta leun-piña albora itxita be, euskal literaturaren pizkundean arek zer esan nai dauan aitzen emotea bakarrik txit zaila yaku. Aren olerkia, azal ta mamin, ain dogu eder, sakon ta txukuna! Bere bertso-lanak batuak ditut —danak lez nik uste—; irureun ta berrogeta sei bat guztiz; liburu mardul joria dagi guztizko bil-duma orrek.

Olerki edo poesia, batez be, biotzetikoa dogu, ez asperen utsa. Enbeita biotz andi baten jabe genduan, eta bizitzako une oroz biotz orreri astinñaldi ederrak emonik, txinpart-urtika bizi izan zan: suterrautsa, biztu ezkerok, millaka txiñarretan lertzen. Orrelaxe aren biotza be. Eta txiñar orreik olerkiak doguz, ber-tsoak doguz. Eta, oraindik be, aren biotzak bizi-bizi dardar dagi itxi euskuzan olerki orrein bitartez; bere garaian millaka ta mi-llaka biotz zauskada sakonez ta esan-nai eztiz arroturik itxi eba-zan lez, gaurkuonak be, eurok irakurri ta auznartuz, adieraznen kementsuz ta gozotasun-jarioz samur atsegintzen dauskuz. Gau-urrettxindorra izan zan: gau izanda be, kanta ta kanta izakiai, ta kanta ta kanta batez be gizonari, lotan zetzan euskaldunari itxar-

(1) 1963'an, Larrea'ko Olerki-egunean irakurritako itzaldia.

urretxindorrrarren antzera, euskaldunen biotzak dardarazo ta gora begira jarri. Origaitik deitzen eutsoen Urretxindorra, ta ao batean deitu be.

Beraz, aren irudi zoragarria zuontzat naikoa ezagun izanda be, gaur beratzaz zerbait emen esatea —ziur nago— eskertuko daus-tazue. Ortarako, labur-zurrian, auxe esango dautzuet: 1) BERTSO-LARITZA ZER DAN; 2) ENBEITA GIZON; 3) ENBEITA BERTSO-LARI, ta 4) ENBEITA GURE EREDU.

1.—BERTSOLARITZA ZER DAN

Kondaira zear, sarri aurkitu izan doguz olako gertakari bere-ziak, eta au edozein errialdetan, baita munduak ditun ugarte ta zurkulurik illun-urrunenetan be. Onek adierazten dauskunez, gi-zonok ba-doguz, areik naiz oneik geure gauza bedegar ta bere-zitasun apartekoak. Guk euskaldunok be ba-ditugu geure gauzak, besteak ez dabczanak edo enparauak baiño gaillenago doguza-nak: bertsolaritza, esate baterako.

Gurean ba-dira gizon batzuk beste iñon ez lakoak. (Len ba-zi-ran arren, gaur ez dogu emakume bertsolaririk ezagutzen; baiña oneik, gizonaren antzeko edozertan izatearren, laster asiko dira, ta orduan bai istilluak!) Ondo dakigu: len eta orain, oiako ikas-te andi bakoak ditugu ia danok, lenengo eskola-urteetan lortu eben ikaskizuna besterik ez dabenak; zar ta gazte, ogibide apa-lekoak, artzain, arrantzale, nekazari, langille ta olako arazo bee-koetan diarduenak.

Baiña, au ezkutu andi! Ele eder edo literatura guztietan eza-gutzen ditugu izaki ongille batzuk, maitagarri deritxogunak, mu-sak. Oneik gaitu oi dabe gizona, ez-ikasia izan arren, olermen joria ta irudimen azkarra emonik, olakoari bekokian ezartzen dau-tsoen mosu gartsu ta maitagarri baten bitartez. Euskaldunok be, ba-dogu olako zerbait, Jaungoikoaz urrengo: Mari maitagarria. Onek, laztan beroz aukeratu oi ditu, irudimena arrotu ta biotza goritu berak bertsolaritzarako naiz olerkigiñerako gura ditunak. Eta orrela biztu, berotu ta maite-minduak, zelako gauza arriga-rriak esan, abestu ta idatzi oi dabezan! Onako edo alako gaztea ri, pa samurra emon dautsa Mari maitagarrik, bekoki erdian; eta or, bertsolari bat jaio.

Or-emenka, beste errialde batzuetan be izan ziran, egi'a esan, gure bertsolarion kidekoak; ez, oster, bardiñak. Testamentu' Zarrean, baitik-bat, Erkaha ta Igarleetatik asko. Dabid erregea, IsaT, Jeremias ta onakoak. Baita qero Testamentu Barrian be: Andra Mariak eresirik ederreng abestu eusku, poz-eztitan,bere lenqusiña Elisabete ikusterakoan; eta Zakari zarrak, bardin Joan bateatzaillearen erdaintuntzan. Orrelaxe Grezi zarrean, rapsodak (kantariak) euren epopeiak kantetan ihilli oi ziran, beti iori. eder. Orrelaxe Provenza'n, orrelaxe Finlandia'n, orrelaxe an inar aldeko itxas-bazterretan, Eskotzi'n; orrelaxe Alemani'n, eta antxiña-ko Galizian be.

Alan eta quzti be, errialde orreitako bertso-esaleak eta nure bertsolariak, euren arteko antz urri ori ta be, ez dira bardiñak.

Ona iru bereizkuntza, beintzat: 11 Onre bertsolarien bertsoak, aapaldiak, ez dira esanak. ez irakurriak, ez musikaz lagunduak, abestuak haiño. Gureak ba-dabe enren doiñua, ta oso benikoa qaiñera: baiña bertsolari bakotxak ortan sartzen dau bat-hatean burura datorkiona, olermenaren iturriko ur gardena. 2) Besteak esan eniten dabez bertsoak, aurretiaz idatzita paperean daukezanak abestu edo esan, oiuzkatu; gureak ez daqie orrelan, gureen bertsoaintza bat-hatekoa dogu, zirran edo ziplo datorrena, berez ta *une* atantxe noqora datorrena kantu neurripean abestu. Erriaren aurrean egin bear diran dema ta norneiaaokaetan. barriz. qai'a bera be, neienetan beintzat, orduantxe iarria dabe; doiñua be bardin, ortik puntua emonaz. Eta ona nure bertsolariaren trebetasuna: melorii, neurri ta puntu ez iakiñetan sartu bear dau bere asmamenak momentu atan damotsona. 31 Azke-nez, burruka: beste errialdeetakoak ez eben liskar edo bnrrukarik. aeienez beintzat, bertsoak esatean; nure artean bai: bertsolari bi edo iruren artean, sarri izan oi da burruka, zein qeiaqo dan iakin naia, batez be txapelketaren bat dogunean. Beraz, ona iru gaitasun besteak ez dabezanak.

Azken-xeetasun oneri gagokiozala. iñoizkoren baten bai haka-rrik be ekingo dautsa gure bertsnlariak: baiña aurano dau biñan-biñan jokatu, txandaka iardun. Ederto diño Bergili latindar olerkari bikaiñak. bere Unai-kantetako III'garren saillean: «Amant alterna camenaa, musak aldizkako bertsoak eder». Eta, egin-eqiñean be, taiu ortan idatzi ebazan bere amar artzain-kantaetatik bost. Iruaarren onen quna auxe dozue: artzain bik. Menalka'k eta Dameta'k basoan alkar aurkitzen dabe; Menalka'k bere aitarren auntzak daroaz larrara, Dameta'k bere ugazaba Egon'en ardi ta bigantxak. Asarre samar dira. Menalka'k sekulado gauza zata-rrez ezaintzen dau Dameta, eta bertsotan atan be; Dameta'k, bere aldetik, ez dautso amore emon gura, ta bertsotarako ez

dala gai diñotsa, ez daua asmamenik, ez doiñurik, ez etorri ta gatzik; besteak orduan demarako eupada jaurtzen dautsa. Ta or bertsolari bi alkarren aurrez-aurre, bekoz-beko. Ortan Palemon auzokoa eldu da bertara, eta au artzen dabe auzi-epailletzat. Aapaldiak aldizka jalgi daroez, bertsolarien edura; eta Palemon'ek, azkenez, zein ete dan garailie ezin dau erabagi.

Bergili'k, bear bada, ez dagi emen antxiñako oitura bat bertso erreskada bikaiñez jantzi baiño. Teokritu'k be, bere idili ederretan jarten ditu artzain eta enparauen alkar-izketa txanbeliñak, dema antzera jarri be. Zein ekandu ta jokabide eben, ostera, ez dakigu; oso zail ta aldatz-gora egingo yakena bai olerkari gorenengo bi onei, euren bertso ta neurtitz jori biribilletan dabezan lango gauza ederrak bat-bateko bertsoetan esatea. idatzi bai, idazten ditugu olako aapaldiak, baiña bat-bateko kantaldian? Au beste zer bat dogu.

Gure bertsolarien maitagarri edo musak eder dau aldizkako jarduna; Erroma'ko olerkariak baiño askozaz lenago ekien au gure euskaldun bertsolariak. Ba-ekien eta ba-dakie. Gure bertsogille erneak, gelenik, aurkako bi dira, etsaiak, arerioak; gaiak be bardin, aurkakoak: batak erriko ardao-saltzaillearen napar baltza goratu ba'dagi, besteak, naita barruz aren zale amorratu izan, are-rio egingo; batak nekazaritza txalotuko, besteak artzaintza; onek itxas-gain zear dabillen arrantzalea, arek lugiñaren bizitza bake-tsua. Eta leikide bi orrein arteko zirti-zarta ta lipizta ikusi-entzunik, begiraleen txalo beroak! Zantzo ta deadarka, arein asmamena aizatu, gero ta geiago gar-azo daroe.

Atzenez, ona zer diñoskun gure idazle azkar Ametzaga'tar Bingen'ek: «Bertsolaria dogu euskal asmamena zeatz-zeatzen agerrazten dauana. Pelotaria gorputz-iñarkunetan lez dogu bertsolaria gure erriaren gogozko bizitzan; zorionez, eta au ao be-tean esan gengike geure errazaren omenez, arek pelota-lekue-tan biztu oi dauan baizen su-leia gartsua ixio oi dau onek gure erritarren biotz-barrenetan. Edestiak dirauskunez, Napoleon'en egunetan ba-ziran euskaldun gudari batzuk, Austerlitz'eko gudu-oiñeko arazoa itxi ta Baigorri'n jokutzen zan pelota-joku ospe-tsua ikustera etorri ziranak; Euskal-Erri zarreko ifiungo pron-toian ez-tala batu, diñotzuet nik, beñola garai artako bertsolari izen andiko biren txapelketa ikustearren, Lapurdi'ko erritxo bate-ko plazan batu zan beste».

Izen batzuk ba-dira, ziurrik asko, euskaldunok euskera geure ezpanetan darabilgun bitartean, egundo aaztuko ez ditugunak: Xenpelar Gipuzkoa'n; Alkain Lapurdi'n; Etxahun Zuberoa'n; En-beita Bizkaia'n...

11.—ENBEITA GIZON

Nik, txikitan ikusita, arpegiz ezagutzen neban Enbeita; Larra-zalea genduan, Karmel'go Ama biotzez maite ebana, ta ona etor-ten zan ia urtero, orain bere semeak egiten dabenez, Karmel-egunez berariz. Guda-aurretik be, neure lekaide-ikasketak amai-tu ondoren, emen nintzan ni; baiña arek, geixo samar ebillelako, Laguardia'n emon oi eban urte-aldi andia, osasun-billa ara joan-da. Baiña argazki mordo ederra dogu, bera ta beretarrak nastean dagozana, ta orreitatik antolatu gengike aren gizantza: goibe an-dikoa, betarte alaia, jasez astuna, begiz ñirñirlari.

Ango inguruak be, egia esan, orrelaxe ziran, eta dira gaur be. Egunokaz an izana nozue, Usparitxa'n, gure Enbeita'ren jaio-tetxean, bere seme Sabin, madaritik jausita, geixorik aurkitzen dana ikustera joanda. Muxika-Areatza zoragarria benetan, baiña batez be Enbeita'tarren etxe ondotik ikusten dan ingurumariko guztia. Solo, bedartza ta muiño, kimu guztietarik zugatz ta iga-li-tantaiz gaiñezka, beresi loratsu ta mendi-gaillur jagiz apain, Usparitxa'k ba-dau zegaz biotza pilpilerazo, olermena zegaz arro-tu. Ain dogu leku lilluragarria!

Ementxe jaio zan Enbeita'tar Kepa, 1878'garreneko irailaren 8'an; ementxe azi, ementxe bizi ta il zan gure bertsolari izu-garria.

Bere gurasoak, Enbeita'tar Juan Antonio ta Erretereria'tar Mi-ren, biak muxikarrak eta lurrean lan egiñaz bizi ziranak. Juan Antoniori, izen goitiz Txotxojeuri esaten eutsen, eta entzute an-diko bertsolaria genduan berau be; ogeita bost urtegez bigarren aldiz ezkondu zan, 1872'garrenean, eta bigarren ezkontza ontakoa izan zan gure Kepa.

Lenengo ikasketak Areatza'ko eskolan egin ebazan; bere etxe-tik ur-ur eukon ikastola au, ta gogotsu joaten zan bertara. Juan maixuak ederto erakusten eutsen an batzen ziran mutikoi; bai-ña lau illabetez baiño etzan maixu egon, andik laster bada, Ame-riketako bizimodu ta diru-irabazteak lilluratuta, arako bidea artu eban. Eta Areatza eskola-maixu barik gelditu zan, eta gure ume-txuak Muxika'raiño joan bear; Kepa, baiña, oindiño zazpi urteko mutil koskorra zalako, urte bian beintzat etzan ara joan.

Amar urte laster egiteko egoala, amak eroan eban lenengoz Muxika'ko eskolara. Gero bakarrik joaten zan. Baiña, lenengo egunetan batez, ez eban tautik aituten. Noren erruz? Gai zaillak? Ez, erderarik ez ekialako zan. Maixuak, barriz, erderaz azaltzen eutsezan ikaskaiak; eta lenengotan pozarren eskolaratu zan mu-tikoa, goibel ta zaletasun barik geratu zan laster. Baita orduan modan egoan erestuna be sarri eroan bear izaten eban. Bein, di-

ñoenez, eleizako tellatu ganera bota ei eban, eta ondoren maixuak ederto zigortu-azo aren berna-bizkarrak. Etzan geiago eskola atara urreratu. Garai atan Areatza'ko erretore zan Sebastian Arrien jaunak, antxe bertan, errota ondoan, ikastetxe bat zabaldu eban, eta araxe asi ziran inguruko neskato-mutikoak. Irakurri, idatzi, Kristau-ikasbidea ta matematikak ederto ta arin erakusten eutsiezan. Iru-lau urtetan, ementxe ikasi eban Kepa gazteak be bitzta osorako ainbat lagundu eutson eskolea.

Enbeita'tarrak, gurasoak eta zazpi neba-arreba guztiz, solo-landetan bear egiñik bizita be, ba-eben beste ogibide bat oso etxekoia: otzara edo saskigintza. Otzarak saltzera, berriz, Somorrostro, Gueñes ta Truzios aldera joan oi ziran; sarritan inguruko-entzara pilloak burdian artuta be bai. Kepa be iñoiz joan zan, lenengo aitagaz ta gero bakarrik; eta ona zegaz konturatu zan: idiak trabena guztien aurrekaldean egonalditxo egin bear izaten ebela.

Ogeita lau urtedun zala, 1903'gnko otsailaren 21'an, ezkondu zan Ibarruri'ko alaba Mañasi Goiria'gaz. Ondiño bizi da Mañasi. Ta berorrek diñoskunez, 12-13 urtetik alkar ezagutu eben; baiña bein, ango jaietan, bera lñuntziaga baserrira ta Kepa Txakilla'ra joan ei ziran komidau; baserriok alkarren ondo samarrean dagoz, ta jokuan ta abar alkar ezagutu ei eben naikoa ondo, ta arrezkero, beti izan ei eutson Kepa'k olango txera ta joera berezia. Mañasi'ri ez eutsoen ezkontzen itxi gura olako otzaragille txiro bategaz, baiña aurrera jarraitu eben, iru bat urtean, urtean lau bat aldiz alkar ikusirik. Ordukoak dira Kepa'ren aapaldi oneik:

«Ikusirik lora bat, ez emetik urrin,
Neure poz-atsegiña Goiko-Etxebarri'n,
Nik bera eskuratu eztaidan egin
Batek baiño geiagok ein dabe alegin;
Baiña zirkin andirik eztautsie eragin».

Usparitxa, gure bertsolariaren abi gozoa, euskal baserri-rik geienen antzera, muiño zabal batean aurkitzen da; gain-gain daukan Atxalai mendi-tontortxu zorrotzaren azpian, zelai-landa ta solo-motaz inguratuta, eundaka zugatz ostotsu artean apatz.

Laster esango dogunez, etenbarik bertsogiñen jardun arren, solo-lanik naikoa egin eban bere baserrian. Usparitxa etzan, Kepa ezkondu zanean, gaur lako etxalde ederra; gaur solo emokor diranak, len baso ta beresi ziran. Zugatz-zalea zan, eta lendik egozanak zaindu ta barriak landatu, oraintxe be ba-da an inguruan igali-zugatzik. Askok bai asko berak jarriak, Olako bateri

azala urratu edo adarren bat austea, berari arpegiko bat emotea lez zan. Izadi-zalea noski, bere olerkietatik argi dakusgunez.

Nai-ta gaztetan osasun onekoa izan, gero gizon egiña zala, asko eroan eta ikusi bear izan eban, 1919'gnetik aurrera batez be. Osagillearen aginduz Laguardia'ra joan zan osasun-billa: marti-inguruan joan eta udaruntz etxera etorri zan atzera, udazkenean barriro joateko. Olantxe iru edo lau urtetan, urte-aldirik geiena Laguardia'n egiten eban. Eta gero be, ango aizeak ongarrri yakozala-ta, ara joan oi zan sarri.

Gerra aurretxoan, 1936'gko. garagarrillaren 12'an, Laguardia'ra aldatu zan; ez, oster, geixorik aurkitzen zalako, amabost bat egun an emotekotan baiño. Eta gerra aldian antxe geratu zan, etxe ta senditik urrin, 1937'garren atzeneraiño. Lagunik asko ebazan erritxo atan, eta etzan txarto bizi; baiña biotza etxe-min. Andik egiñak ditu olerki eder batzuk. Ene jaiotetxe maitea deritxonean argi ta garbi dator errimiñaren eztena:

«Maite zaitudan jaiotetxeoi,
Zugandik urbil bizi naz!
Ni besarkatu ez nadin, baiña,
Or neure sendi laztanaz,
Ate zabal bat bitarte jarri
Dauste margorik baltzenaz...
Ezin ikusi, ezin laztandu!
Tamalez ilgo ete naz?

Zure barririk ez dakart iñok.
Zeugana ezin neu juan!
Ene begiok negar-iturri,
Au gogoratu orduan!
Gure izparrok tinkorik daukez,
Ez ekarri, ez eruan...
Itsu eta gor ba'nengoke lez,
Emen bizi naz «linbuan»...!

Azkenez, guda amaitzean, itzuli zan etxera, ta laztandu eban zan gartsu bere emazte ta zazpi seme-alabak. Orrezkero, etzan luzero bizi. Goiz baten geixo txar batek ogeratu eban, eta osalariak konturatu orduko lan andiak egin ebazan aren gorputz aulean. Bilbora eroan eben, baiña berandu zan antza; Guimon osagilleak, ikusi-ala, Kepa'ren alabai onela: «Zuen aita ez dago ondo; Eleizakoak eginda ezpa-dago, ibilli arin». Bere adiskide Agustín Isusi apaiz jaunak emon eutsozan azken-sakramentuak. Etxera ekarri eben il-agiñean; baiña gizon ari, oiñaze andiak asme-

tan ebazan arren, ez yakon igarten geixorik egoanik be. Beti pozik, begi-ñirñir; beti zer-esan onak ezpanetan.

Etxean egin ebazan azken-egunetan erri osoa etorri yakon ikustera; bai ta urriñeko ezagun eta adiskideak be, an ziran eundaka ta eunda'Ka, gizon zintzo ta ernai ari azken-agurra egin nairik. Eta, atzenez, 1942'gnko Abenduaren 12'an il yakun ainbat kanta ederrez poztu ta azkortu ginduzan Urretxindor bikaiña. Jardun beio zerutik be txinta ta txorrotxio legunetan.

Usparitxa'tik urrin, Muxika'ko erri-biotzean, ezkerretik, aldatz-goratxoan, or iltegi santua. Antxe datza obiratua gure Enbeita'tar Kepa'ren gorpua, Bere lur-emotean lagun-aldra andia izan zan; bai biotzez maite ebenetatik askok eta askok lagundu eutsoen atsenden-toki artaraño, begiak malko, ezpanak otoitz.

Euskal-Erriak bizi-bizi negartu eban aren eriotza. Ain zan maitekorra! Ain zan gizon andia! Bera, ostera, etzan negar-zalea; Jaungoikoa ta Euskalerrria, ona ziñez maite ebazanak. Eredue der guretzat. Beraz, negarrak itxi ta berak beiriola lez esan daigun:

«Baiña zetako ainbeste negar?
Ez daigun egin negarrik;
Gure Jainkuak eruan dau-ta.
Onak ez daike okerrik!
Kendu daiguzan soiñeko baltzak,
Ta iñun ba'dago lorarik,
Egin daiogun uztai eder bat
Berai opalduz osorik».

III.—ENBEITA BERTSOLARI

Esan dogunez, Juan Antonio, gure Kepa'ren aita, bertsolari zan, eta ugari samarra atan be. Urreko beroa, barriz, erantsi egin oi yaku; orrela jazo zan, antza, Usparitxa'n be, aita semeari bertso-zaletasuna erantsi.

Kepa'k, beintzat, umetatik ekarren griña ori. Astelenetan, sarri Gernika'ra joaten zan, gurasoakaz jakiña. Ango pelota-jokuak eder yakozan gure mutikoari, baiña bai ta eskekoak eta saltzen ebezan bertso-paperak be. Amari diru-eske beti arexek paperak erosteko; etxean mordo andia ei eukan. Eta Kepa'k buruz ekizan geienak, soloan itaurren, bei-zaiñen edo otzaragiñen iñarduan bitartean ikasita. Eta abestu? Txoriak zugatzetan, arek bere lanean, baiña etengabe ikasitakoak eta berak berenez asmautako bertsoak abots zoli garbiz abestu ta oiukatzen.

Bein, Zugaztietan ba-zala entzun eban giputz bat, lanera etorria, ta bertsotan ederto ekiana. Alan be bi ziran oneik, Jose Joakin eta Juan Jose, ofatiarrak, eguneroko lan-arloa amaitu ondoren asti-orduetan bertsoketan egiten ebenak, Kepa ara joan oizan, arei entzutera.

Beste domeka arratsalde baten, iVluxika'rako bide-kurutzean zaratatsu ebillen jentea; Zugadi bertsolaria zan bertan, Maguna' tik etorria; bertso borobilletan goratu eban bere erritxoa, ango mendi, zelai, baso, solo, etxe ta abar; bai ta muxikarrai adarra jo be, onein aurka zirikada politak sakaturik. Bat-batez, orduan, Kepa'k erantzun eutson muxikarren izenean. Baserritarrak gogoz txalotu eben, baita Zugadi berberagaz kideitu be. Onek asko bizkortu eban, gure mutil gaztea, ta aurrerantzean, zein soloan, zein otzaragintza, zein etxeko arazoetan, bertsogintza zan bere ames bakarra.

Orrela, lenengo trabena zuloetan, gero erritxoetako jaietan, eta azkenez erri andietakoetan agertzen asi zan Enbeita. Emere-tzi urte ebazala, bertsolari-txapelketa bat izan zan Durango'n, erriko jaiak zirala-ta. Berriz'en ba-zan orduan izen andi samarreko bertsolaria, Onbe. Ivaikoak oneri emon eutsoen lenengo saria, Kepa'ri barriz, bere baliogaitik, bigarrena.

Andik sei urtera, bere adiskide Zelaia'k sariketa bat antolatu eban Ondarreta'n (Las Arenas'en). Gipuzkoarrak ziran etorteko, Txirrita arteko zala, eta, iñoenez, arro samar etozan, bizkaitarrak agertzen ba'zan, bizkarra berotzeko asmotan. Zelaia'k Kepa'ri: —«Ezagutzen al dok, Txirrita?» —«Ez, ba; entzutez bez». —«Ez adi, orduan, agertu; emen dituk Txirrita ta gipuzkoar onenak, eta eurak diñoenez, bizkaitarra mutu geratuko ei dok irugarren bertorako». —«Bai, neure ustez be onenak dira; baiña mutu izte ori lartxo esatea deritxat». —«Zer orduan?» —«Begira: nik beti gura izan dot neu baiño geiago diranakaz burrukatzea. Ikusi egingo dogu».

Zazpi gipuzkoar ziran, eta bizkaitar bat. Muxika'koak, asi aurretik, beti lez, buruz iru Agur Mari esan ebazan. Ekin eutsoen bai batzuk bai bestetzuk. Bizkaitarrari zirika gipuzkoarrik geienak; Aizarna bertsolari ospetsuak, batez be, urte bete t'erd! ebazan bere semearentzat emaztegeia eskatzen dautsa Kepa'ri: eta Kepa'k, ondo zorrotz eta trebe, erantzun:

Zenbat pertsona dauzan
Ainbeste jeniño,
Aizarna'n errazoa
Aundiyok, orraiño;
Semientzat nobiya

Bear daula diño:
Urte bete ta erdi
Ez ei dauz ondiño,
Sopak obe leukezak
Nobiya baiño.

Gauzak orrela, bizkaitar gazteari txapela erantzi bearrean aurkitu ziran ango bertsolari ta entzuleak. Saioa amaitu zanean, maikoak erabagi au emon eben: Lenengo saria, Enbeita'tar Kepa; bigarrena, Lujanbio'tar Manu (Txirrita). An zan Kirikiño ta, adeltsu baizen itz berotz, zoriondu eban Kepa, jai artara eldu ziranen txalo artean.

1905'garrenean, gerora be sarritan egin ziran lez, euskal batzar entzutetsua egin zan IVlungia'n, gizontzko ta emakumezko asko bertan baturik. Izlariak, erderaz Galarza legegizona ta Urren-goetxea ernea, ta euskeraz Errenteria'tar Gorgoni, itxas-gizona, ta Arrospide osagillea. Azkenean, bertsolari bi agertu ziran mai-burukoen ondoan, alderdi bietan. Etzan ospatzen, ez olako euskal jairik bertsolari bage. Eta an egozan gazte bi, oso ernai ta ameslari; bata Azpiri gipuzkoarra zan, bestea gure Enbeita.

Orduantxe ezagutu neban —diñosku E. Orueta'k— IViuxika'ko otzaragille izen andikoa, lan bitartean bere biotzari belarriak adl ipiñi ta aren zauskada bigunak entzunik, olermenak bekoki gainean zelan mun egitson asmetan eban gizon jator a. Eta aren adimen ta biotzak, zelan sortzen ebezan bere iztarrian itz eder gozoak, aapaldi garbi errikoietan biribildu-tal Aren aotiko bertso sutsuak euskal lur-usain antxiñekoz oreturiko ereserki bikaiñak ziran... Bertso areik erriaren biotza dardarazten eben, gainezka eragiteraiño sarri askotan; batez be gure ele zar, erri-maitasun eta erlejiñoa kanta-kantari oiuzkatzean. Ordurarte ezagun gendun bertsolari zarra ardangela zuloan gelditzen zan, bere ardo baso aurrean, bere jas ta itxura zorrotz, ziriko, lizunxe ta siñesgean. Lur ezain samar ori itxirik, benetako bertsolari, oleskari ta olerkari maillara igonaz joian Enbeita, oro biotz-zirrara ta adierazpen, erri-gogo bizia gero ta geiago tinkotzen ebala. Adimenez ta barne-indarrez leundu ta anditu ta duinduz doakigun bertsolaria. Enbeita'tar Kepa. Bai, garai artan egin yakun oleskari, erri-oiulari, bere erriko osagille jakintsu Jon Arrospide'k eraginda.

Gero, ogei urtean gitxienez, bere soiñeko illun, alkondara zuri ta euskal txapel baltzaz, Euskalerr'i'ko zokondo guztietan ibillia dogu. Bizkai'tik urtenda, bere ibillaldi garaitzazkoetan, Gipuzkoa'ko erri ta auzunetara be aldatu zan; andik be, beti kantari aspergaitz, Naparru ta Araba'ra, an nai or bere nagusitasunaren dirdai-izpirik samur gozotsnak zabal-azorik. Ondoren, mugaz bestalderaiño be bai, eldu yakun: Baiona, Ezpeleta, Donibane Lohitzun, Donibane Garatzi izan ziran, bein baiño sarriago, bere bertso-jardunezko leku zoragarriak.

Oso zorrotza zan, eta geien bat inguruko izaki ta gauzak izaten ziran aren bertso-zio ta kanta-gai. Bere bat-bateko ekiñaldiak lekutu egiten ebazan alik eta ondoen; begi aurrean eukazan per-

tsona edo gauzak batez be; mendi, erreka, zugatz, alegi ta antzekotzat arturik, zelako gogai ta irudikizun sakon txanbeliñak, errez ta gozo, bertsoz ariltzen ebazan! Onako ontan, Jainkoak gure erriari emoniko mesede joriak, andikiro abesten ditu:

«Euskal-errian ikustoguzan
Aran, baso ta mendiak,
Zugazti, zelai, aitz, iturriak,
Landa ta lorategiak,
Solo ederrak, arto ta gari
Ta beste gauza guztiak,
Gizaldietan zorundu dituz
Eguzkiaren argiak».

Bergara'ko erritxo baten euskal jaia. An zan Enbeita be. «Nik entzun neutson —diño Esla jaunak— arratsalde baten, Bergara' tik ur-urre, mendi-bizkarretik dingilizka lez dagon erritxo baten. Me-igar, padar-itxuraz, igandetan lez jantzita, apaiz ikasle bat emoten eban oporraldietan. Iñok ez eban esango, ikusiz bakarrik, izaki kaskar a lagun-aldra andiak asaldatu ta barne-ikutzeko beste zanik. Olezko mai baten gaiñean egoan Enbeita, beste bertsolari bat alboan ebala. Asi zan nor-geiagoka bertso arin batzukin, plaza-gizon biak alkar agurturik. Gero, orduko giro ta eguraldia ekarri eben gogora. Zeru azpia odei ta laiñoz arregosi egoan. Beingoan ziri-miria asi zan jausten. Eta Enbeita'ren aurkalariak: —«Tamalez euria; ta jaia itxi, edo aterpea billatu bearko dogu».

Zorioneko itzak! Eurok gai arturik, bat-bateko etorri ugarian, egundoko iskanbilla atera eban muxikarrak; euskaldun onarena etzala esan eutson, aurkalariari, euriagaitik illetari ibiltea; etzala euskal jaia ausiko, axe bait-zan egin-egiñean be, garaiarik euke-rakoena, ziri-miripean jardutea; Jaungoiko onak euskal lur gain jausten izten eban euri onetsi orretan asiko zala, egiaz, atsalde atako jaialdia. Entzule guztiak, aterkiak edegi ta deadar egien: «Edertol... Ederto!... Gora Enbeita!»

Orduan oleskariak, begi biak zeruan josirik, ziri-miriz arpegia blei-blei, odeiak altaretan eta santuen oiñetan ikusi ebazala beti ta odeien gaiñetik erri autetsiai euri biguna bialtzen deuten Jauna aurkitzen dala esan eban. Euskal erria, zer euri barik? Lur iegor, latz eta mergatzean biziko giñake, bizitz-poz-jario barik; zirimiriak estutu ta tinkotzen ebala euskalduna bere baserrian, sendia maite-azorilç. Beste lurraldeetan errez izten dabez gizonak euren etxe, emazte ta seme-alabak. Euriak alkartzen gaitu euskaldunok, lurreen barrenagotzen gaitu; eta gure izakeraren barri ez dakienak, guk lurra eurak baiño geiago maite dogulako, gu ta geure gauzak sustraitik erauzi naiean ibilli oi dira sarri. Euria

lurraren biotzeraino eltzen da, azurren billa, antza, oneik mosukatu ta garbitzeko. Au entzutean, begirale guztiak, negar-zotiñari eutsi eziñik, euren esku bien indarrez txalorik beroenak opatu eutsoezan bertsolariai. Itz lau arein arnasa erri-biotzeraiño barendu zan, nunbait. Mendien oiartzunak durundi egian Enbeita'ren abotsean. Eta ziri-miria, goitik beera etorren zara-zara, bigun ta atertu bage euskal lurra gozatuaz.

Igande baten, euskal jai atsegingarria ospatu zan Arrate'n; onunzkoan Enbeita'k Eibar'en gaba egin eban, bere adiskide on Zargazte'renean. Apal ostean, aize ozkirria artzeko kalera urten eban bere adiskideakaz, ta naitaez abestu eragin eutsoen bertsosail galanta. Sozialista batek, azkenean —au be biotz-ikutua noski— arpegira bota eutsan: «Zergaitik ez dozuz kantetan bertsuok, eman barik, Krutzeta saloian?» Enbeita'k bertsotan erantzun, baietz, gertu egoala Krutzeta aretoan, danen aurrean, saio bat egiteko.

Astelen goizean sozialista mordo bat joan yakon barriro. Arratsaldean jaialdi bat egingo zala Krutzeta'n, eta berak bertsoketan. Arratsaldean, izan be, dana jentez beterik agertu zan areto a. Enda ta eritxi guztietakoak, margo danetakoak, gorri, zuri, arre... Enbeita'ri entzuteko gertu. Ango ezkertarrak ba-eben bertsolari entzute andiko bat: Etxeiña. Au izango eban aurrez-eurrekoa. Asi ziran biak, Kepa'k bertso bat eta Etxeiña'k beste bat. Ta orrelaxe biak, zortzi, amar bertsoraiño. Entzuleak, alan be, otz eta illun: ez eutsen txalorik jotén. Enbeita artegatzen asl zan orduan, aurreko astean bada angó ezkertarrak areto atatik bertatik, itzaldiak amaitzeko astirik emoteka, txistu ta orro artean uxatu ei ebezan kanpotar batzuk.

Astelen atan opor eguna eben Eibar'en, lantegi bateko auzimauzi ta ugazaba ta langilleen arteko aitu-eziña zala-ta. Etxeiña sozialisten alderdiko agertzen zan. Bertsolariai bakotxari garagardo pitxer bana ipiñi eutsoezan aurrean, bertsoak bota-ala edateko. Gipuzkoarrak laster garbitu eban berea. Enbeita'k, osterá, ez eban ondiño txurrutararik be egin beretik. Au atxakitzat arturik, Etxeiña'k danen aurrean salatu eban Enbeita: onek ugazaba ta andikien kontra berba egiten ebala, baiña barrutik orrein antzera bizi zala, ugaritasunean ok-egiñik; bera, ito-agiñean, erretzen eukan egarria arintzeko garagardo-tanta barik egoan bitartean. Enbeita'k, azkar be azkar bere pitxerra artu ta, bertso abeslari, inguruan eukozan baso uts guztiak bete zituan. Azken-jarduna onela amaitu eban: «Enbeita ezta iñoiz ugazaba izan, ezta izateko asmurik be. Zure ugazaba bakarra emen pitxer garagar-doiz betea, ta beraugatik edozer emongo zeunke, langilleak baso utsak dirala gogoratzeko asti barik. Baiña baso orreik, nik dagi-

dan lez, egokiro betetzeko asti barik. Baiña baso orreik nik dagi-geldituko. Auxe da nik eta nigaz dabilztanok egin oi doguna».

Trumoi antzeko txalo-zartada arrotu zan itzetik ortzera. A bai gogoz txalo joteal Ta arik gerora, olakoxe txalo durundutsuz sarizatzen ebezan Enbeita'ren aapaldi guztiak. Orrelaxe ordu bi luzetan. Azkenez, gure Kepa millaka beso gaztek estutu ta bizkar gaiñean atera eben kanpoko ateraiño. Urrengo goizean, alan be, gozatsuago aurkitu zan bere Usparitxan.

Euskal-jaietan, lenengotan beintzat, Azpiri gipuzkoarra izan zan eben, ango txapelketa bat ikusteko, ta palkoetan ezarri-azo. Txirrita atera zan txapeldun. Entzuleen artean Bizkai'ko bertsolari ospetsua egoala jakin ebanean, enbidotxo bat bota eutson oneri, bertsoren bat pozik entzungo leukela-ta. Beingoan erantzun eutson Kepa'k, euskera, erri-maitasuna ta abar aldeztu ta goraturik. Txalo ozenak jo eutsezan. Eta Txirrita'k:

«Bizkai'tik etorri zaigun aldetik
Txori aundian aurrean,
Ni txepetx naiz-ta, erretiratzen
Noa emendik, lotsean».

Euskal-joietan, lenengotan beintzat, Azpiri gipuzkoarra izan zan Enbeita'ren bertsolari-lagun. Gero, Larrabeiti'tar Eustaki (Eulia); bai ta Erauskin, Betolaza begoñarra, Alkain, Tolosa, Enbeita'tar Imanol, bere anaia, Uriarte dimostra ta «Kurloya» be.

Eta omenaldirik? Baita, ta ez gitxi be. Baiña guztietatik ederrera, 1922'gnko urrillaren 1'goan, Eibar'en egin yakona. Euskal-erri osoak esku artu eban berton; andik eta emendik, zazpi euskal probintzietatik ogeita amar milla arimatik gora batu ziran egun aretan Eibar'en. Astelena pelota-lekuan jala. Lenengo pelotajokua, Egileor ta Okariz, errenderitarrak, Zinkunegi ta Orozko, bilbotarren aurka, ezpata-dantzariz ta banda-soiñuz gatzatuta; Kruzeta aretoan bazkaria egin ondoren, ordu bi ta erdietan, bertsolarien saioa, txapelketa azkena; lauretan, azken-jaialdia, Ramon Sota'k, Pantaleon Olano'k, Mikel Urreta'k eta Manuel Arantzadi'k itz egiñik. Beste bein be, Bilbao'n, bazkari eder bat eskiñi eutsoen Enbeita'ri, iru milla bazkaldar batu ziranekoa.

IV.—ENBEITA GURE EREDU

Gizon gaillen oneik eztira eguneroko **lora**, Jainkoak nolzk-beln erriari bialtzen dautsezan doe ta esku-erakutsi berezi-bereziak balño. Gu kaskar geratzen gara, beti **be**, **euren alboan**. **Geure**

gatz, erreka ta abere, oro kanta eban urretxindorraren eztarri leu-
nak. Bertsolarien ekanduai jarraituz, gure zer guztiak jaso ta gar-
biztu ebazan; aren bertso goriak illezkortasuna jaritxi eben, eus-
kal gogoaren izate berezia olerki-ari dirdarietan dardar guri itxi-
rik; gure erriaren poz eta atsegiñak, gure min eta itxaropenak,
ames eta lillurak osoan aizatu zitun.

Zerbait luzatu bear-ta be, ona Lopez-Mendlzabal'ek Enbeita il
zanean idatzitakoa:

«Txorietan buruzagi
Urretxindorra kantarl.
Kantatzen dizu ederk!
Goizean argi asteari:
Aren abesti ederrak
Txoraturik naukate ni!

Onela dio abesti zar batek, eta au bera esan genezakean En-
beita dela, Muxika'ko Urretxindorra. Euskal-erri guziko olerkarien
artean Enbeita zan urretxindorraren antzera guzien gañetik bere
abestia pozik entzun-azten zizkiguna. Goitik artutako gaitasun bat
zuen, noski, ainbeste eta ainbeste guziak txoratzen zituenean.
Olerkari onak besteak ere izan arren, Enbelta astean guzien be-
giak beregan josten ziran. Ba-zirudien guzien biotzak bere alde
ekartzen zituela.

Nork bera bein bakarrik entzun duenak ez du beti gogoan
izango bere txukuntasuna, bere zolitasuna, bere abertzaletasuna?
Garbia barrendik, txukuna kanpotik beti agertzen zitzaigun gizon
berezi ori. Bere itzetan ez genduen iñork beñere entzun orrela-
onelako Itz oker bat ere. Beti goltik, arranuaren egaldia bezela,
ez genduen beñere ikusi lokatzetan zikintzen. Orrelako gizonak gu-
txitan sortzen dira, bai, oso gutxitan, eta eredutzat beti gogora-
tuko degu» (Buenos Aires'ko Euzko-Deya, 1943, 6 or.).

Bere bizialdi osoko jokabide zintzo onetzaz gaiñera, ba-ditu
Enbeita'k beste alderdi edo zearotasun batzuk be gure eredu
egin daroenak. 1) Gaia; 2) Jatortasuna; 3) bertso-neurkera; 4)
doiñua ta abar.

Gala askotarikoa dau Enbeita'k. Indltar ta euskotar arimea ki-
deko dirala, esan ol da. R. Tagore dogu Indltar olerkaririk goren-

goena. Eta zer abestuten ete eban onek? Eurl, zugatz, txori, bi-dazti galdu, lore zimel, arima mindu, neskatz eskale ta antzekoak ziran berak erabilli oi ebazan kantagairik eskuartekoenak. Olerki samurrak osotu eroazan, artzain-kanta, maite-lelo, aberrikantu jagi ta sutsuak.

Gure oleskariak be orobat dagi: gure euskal erri onek berebere dabezan gauza guztiak abesgai, intziri samur biurtu; Jaungoikoa, izadian zabal ta batez gure lur-gain zabalean ain sorkarl ederrak aukeratu euskuzana, urretxndorrrak baizen kantu gozoz goretsi; gurean sortu ta andi izan diran gizonak, jakinlari, itxastar, kirolzale ta gaiñontzekoak eredu lez gure begi aurrean dizditsu jarri; euskaldun semeen egintsari arrigarriak goraipatu; sukaldean amamak erasi ta erri-aotan bala-bala dabiltzan alegi ta lpuinak bertso irrikoietan ipiñi. Gai arrunta, edozeiñena? Bai, baiña Enbeita'k baizen gozo, sakon, eragikor iñok be erabilli bagakoa. Ba-ekian arek nora jo euskaldunari dardar eragiteko: adimenera ez, baiña bal biotzera. Nik eginda daukadan bilduma andian lau zatitan sailkatutik daukadaz aren bertsolan guztiak: errikoiak, jainkozkoak, ipuiñak eta aupazkoak.

Eta iatortasunari buruz, zer? Itzez esateko bertsorik ez eban Enbeita'k egin, Orixe'ri atsegin yakozan kantatzekoak baiño. Eta oneik etziran iñun ikasiak, ez erdel-libururik ez euskal-libururik ez bait-eban orretarako; ezta astirik be. Darabilen bertso-gaia, bada, bere-berea dau. Eder-iturri bi ditugu, izadia ta norbere gogozokoa; zentzunetatik zear, begi ta belarri, izadiko gauzen edertasuna barrentzen yakon, eta onekin nastauaz bere barreneko eder-senaren oreka, aapaldi txinpartatsuetan lertzen yakon arlmea. Ortik, bada, itxi euskuzan bertso-sail guztiak, diran lez gozo ta andi, bere gogoaren arnas ta zauskada besterik ez doguz. Bere-bereak, jatorrak, beste iñoren kutsu bageak. IVlendiko iturri ugariak ez dautso iñori urik zor.

Bertso-neurkera, barriz, askotsua. Geienetan eta kantu jagietarako zortziko nagusia erabilli arren, neurri askotariko aapaldiak ditu. Gitxitan baiño erabilten eztiranak be bai; erriko kantuetatik jasotako neurkera apartekoak dira nunbait, zazpi ta bostekoa, zazdi ta seikoa, zazpi ta zazpikoa, zortzi ta seikoa, zortzi ta zortzikoa. Neurri ezbardiñak naste be askotan darabilz.

Baiña auxa autortu bear dot: millaka ta millaka bere aapaldietan, edo puntuetan, bat bera be esan genglike ez dogula idoro txarto amaiturik; guztiz lru edo lau ditu bada-ezpadakoak azken amaltze bardintsu orretan ain egoki ez dagozanak; baiña beste guztiak osotasun osoz eglñak ditu elertiak eskatzen dauan alderdi ortatik. Ondiño gelago: azken-bardiña edo rima dalako ori

bear. Bat-bateko bertsoetan be, an nai emen zala, beti zaindu oi eban osotasun au; orduetan bertsoz jardun arren, be, silaba gaiñetiko labanik edo arturiko neurrian, doiñuari ez dagokion baiño silaba geliago sartzerik ez eban arek egingo. Bertsolari ta olerkarien arau onein jopu genduan beti.

Azkenez, doiñua. Berak geien erabilli ta guk gaur ezagutzen doguzanak ogeita amabost bat dira; sailtxo bat, bere aotik jasota, Ekin asterokoan argitara emon eban Aita Azkoiti karmeldarrrak; bai ta beste batzuk Karmen'go Argia'n be. Ia geienak bereberek ditu, jatorrak; beste batzuk ba-dabe Xenpelar'ek eta Bilintx'ek erabiltzen ebezanen kutsu-antz pizkat; beste irugarren batzuk bai ta erri-doiñuak be, zerbait aldatuta, edo puntuak edo olermenak eskatu-ala nunbait.

Auxe genduan Enbeita, olerkari batek diñoskunez: «Biotz garbi, zidar-abots, gogo zoli»; gure mendi ta baserriak bikaiñenik beikaiñen abestu ebazana; gure lege ta oiturak zer diran esan euskuna; guk geure zaintzeko zelan jokatu bear genduan adierazorik bertso-saillik ederrenak abestu ta idatzi ebazana. Jarralgarri baita, goazen berak urraturiko bitxidori zear.

Aita Onaindia

KARABINERUEN BIZIMODUA

1902'garrena zan. Gure asnas beroa dan euskerearl eutslteko asmuz, abade-talde batek —Azkue jauna buru zalarik— **Ibaizabal** iganderokoa sortu eban. «Kirikiño» jarri eben zuzendarl. Klrlkiño, barriz, bertso-zale andia zan, eta bere asterokoa irutlk bat iz-neurtuz etorren. Selgarren gelan onela iñoan: «Euskalerrfan bertsoetara dagoan zaletasuna, ta **fbaizabal'ek**, urten dabenetlk ona, alde guztietatik artu dabezan bertso ugariak kontuan arturllk, batzaldia egitea erabagi dogu Euskalerriko bertsoglfien artean». Bertso-batzaldiak sortu zlrán, beraz.

Gaia aldizkariak berak jarten eustsoen; epea be emoten ya-ken, eta guztien artean onenak ziran biri saria. Orduko olerkarl ta bertsogin ezagunak ez eukien esku artzerik, barri ta ez-eza-gunak baiño. Bertso alaiak bear zlrán, eta sarlztat E. M. Azkue'ren Parnasorako Bidea deritxon liburua zan geienlk. Lenengo batzaldiko gaia: «Taberneruaren bizlmodua»; lenengo saria Bermeo'ko **Biargin** bat'ek jaso eban, bigarrena Zarautz'eko F.A.-k. Bigarren batzaldiko gaia: «Tanbolinteruen bizimodua», eta Bergara'ko seme argi Gregorio Muxika'k lrabazi eban len-saria ta Errenderi'ko En-rike Elizetxea'k bigarrena. Irugarren batzaldiko gaia; «Aguazillen bizimodua», eta Bilbao'ko Jose J. Alberdi'k eroan eban lenengo saria ta Errenderi'ko Elizetxea'k bigarrena. Laugarren batzaldiko gaia: «Mutlizaarrak» eta bosgarrenekoa: «Neskazarrak»; **Blargin** bat eta Elizetxea garaille. Urrengoaren gaia: «Karablñeruen neke ta lanak». Eta emen agertzen yaku muxikarra blgarren **sarlaz**. Auxe da, urrean, arek argitaratu eban lenengo olerkia.

Nal det berba gitxitan biar au amaltu
Jenteak errezago ein daian adltu,
zer moduz eglten dan eguna amaltu
karablñerueri ondo beglratu.

Golzean jagi eta lenengoko lana
Ipintea solñean jantzi eder bana,
gero solñekoari tokaten yakona;
Jira bat eiñ eurakaz, amaltu zan dana,

orrela bizi dira egun guztletan.

Etorriten danean portura ontzia
a errekestaten dauko blar nagusla;
balña emon ezkeru lxxlllk saria,
libre itxlko deutse gauzari pasala.

Ikusi ezketlño barrlz euskaldunak
baserritik noizik beiñ etorten dlrnak,
eural lpinten deutsez bekoki illunak
ezertako eztlran belarri motx-dunak.

lñoz eztot ikusi belarri motx-dunik
gogotlk biarrean ekiten deutsanik:
nai ta sabelerako ez euki zer janik,
lbiill gura dabe dotore zutunlk.

Biar-modu batean eztauke paltarlk;
—orren artean bada emazte bakorik?—
laster topauko dabe, ez artu blldurrik
mutll-zartuko dala karablñerurk.

Gelenak dira eurak morrosko ederrak
txanka me, praka nasai, espalda bedarrak;
zutunik ibilteko eztlra ain txarrak,
dotore ipiñirik surpeko bizarrak.

Artez daukie beti euren kontsentzia
eta ezer eztan lekuan eskua garbla;
orren bizimoduan ispillu argia,
lñok ikasi eztaian izaten nagia.

Arlo luzeegira egin naz nl eldu
orren bizimodua eglten azaldu;
blrtuterik egundo eztabe zabaldu,
ta geiago esan barlk bear dot ixildu.

(Ibaizabal, 1902}

SAKRISTAUcN EGIKERAK

Adierazoteko neure gurariak
bide batez esango ditudaz egiak;
sakristeruak dira kristiñau zoliak,
entzungarriak barriz euren pikardiak.

Sakristeruak dira, beñiñpeñ geienak,
berera zelan ondo bizi dakienak,
ziri-sartzaillak barriz dira andienak;
au ipinten dau emen ondo dakienak.

Egun danetan dagoz sarturik eleizan,
abadien aurrean Santu baten gisan;
gero ikusi bear zer moduz dabizan,
zintzo asko orain arte beintzat ezta izan.

Orren artean dira txiki eta andiak,
euren egikeretan aingeru argiak;
galdu eztaizan jaunak edari larreiak,
eurak artzien dabez ardura andiak.

Mezea egin baiño len adierazo,
iarten dabe ontzia beterikan oso.
ta barrukoa zelan egoten dan gozo
sarritan oi deutsee eperdia jaso.

Oiñ denpora zan baten eleiza batean
batzarra bik ein dabe alkarren artean,
abadea etxetik daben bitartean
ontziak garbitzeko diranak betean.

Adierazoko dot batek eiña zer dan,
ardao zuri gozoa botillatik edan
ta, bere uts-egiña zuzentzeko ustean,
trabestuta uragaz beia busti eban.

Ontzia trabestuta maiaren ganean
diño abade jaunak ikusi ebanean:
—Nok oni kendu deutso eukana aldean?
—Ezta, jauna, ikusten jausita or beian?

Urrengo egunean bardin eban uste,
egingo ebala berak bestearen beste;
atrapaten dau bertan, asten yako auska..
belarrondoa jarri eutsan berotuta.

Asi ziran mezatan betiko antzean,
baiña eskapau eutsan erdiz-erdizean;
pelotaka ebillen bera eleizpean
abadeari gogait eragin artean.

Per omnia sekula sekulorunean;
ez eutsan entzun baten ez bigarrenean;
otseiña bakarrik zan eleiz barrenean,
arek erantzun eutsan irugarrenean.

Otseiñen erantzunak ba-deutso balio,
Amen esanda, berak erantzuten deutso;
zureak balio ta zureak balio,
apaizen erantzunak barre erain lekio.

Sakristeruentzako eztau premiarlk
aparte ipinteko altara barririk,
Santu einda an jarteko zarrik ez gazterik;
izan leiteke, baiña neuk eztot usterik.

Arlo luzeegia nik egin dot artu,
zerren batak bestea oi deust gogoratu;
danak esanda iñor ezteiñ asarratu,
geiago esan barik bear dot amaitu.

(Ibaizabal, 1902)

ETXEBARRI'KO NEURE LORA MAITIARI

Ikuslrik lora bat ez emetik urrin,
neure pozgarri zana, zein zan Etxebarri'n,
nik bera eskuratu ez dagidan egiñ,
batek baiño geiagok ein dabe alegiñ;
baiña zirkin andirik ezteutse eragiñ.

Ai, neure biotzeko lora usaintsue,
zeure gozotasuna kendu nai deutsue;
baiña zu beti nigaz, maite indartsue,
zu zara neretzako txit atsegintsue,
zeralako lora bat ain birtutetsue.

Bizl zinian eder lorategi baten,
ez eutzula iñok be kalterik egiten,
ta ikusirik nintzala ni urreratuten,
sasi beltzak albotik egin eutzun urten
zeiñek galerazo nai eustan artuten.

Alper kantsauko dira arantza ta sasi,
osasun ederrian gu ba'gera blzi;
nere loria, sarri eingo det ikusi,
ta zuk maitetasuna neuri erakutsi
egin ezkerro, zelan eingo dizut utzi?

Zara lirio lora udabarrikua,
euskaldun zale maite biotz garbikua;
orixegaitik zera neure gogokua.
Denporaz luzatuko dizkizut eskua.
artzeko neure maite, iora pozezku.

(Ibaizabal, 1902)

NERE ANAJE MAITE PEDRO ENBEITA'RI

Esan dogunez, 1903'ko otsaillaren 21'an ezkondu zan Enbeita. Au zala-ta, bere anai Manuel'ek, gero olerkiz ta itz-lautan **ain-**bat idatzi ebanak, olerki bat egin eutson, epaillaren 15'an Ibaizabai'en argitaratua. Polita da-ta bego emen a be.

Bertso berri batzuek nai neuskioz jarri
neure anaje maite Pedro Enbeita'ri;
emazte baten jabe egin yaku ori,
orain pozarren dago burletako guri.

Praillien antzekoa lenago izanik,
nok uste izango eban orrelako lanik?
Eneban sinistuko esan baleuste nik
nere anaje Pedro ezkonduko zanik.

Ikaratuta dago jentia gurekin
ezkeralako batzen biok alkarrekin;
orain laguntasunik etxaukat irekin,
ibilko aizelako emaztearekin.

Bizimodu berria bear dok ikusi,
nigandik apartian oin bear dok bizi;
lenengo bearko dek emaztea ezi,
nai badek izatea etxeko nagusi.

Zer modutan ablllen laister da jakingo,
egia esateko aste bigarrenko.
Emaztea ezitzen ezpadok lenengo
sarritan pentsauko dok: —Ezkongei ba'nengo!

Lenengoetan egin zorakerl gutxi,
baldin errespatorik nai badok jaritxi;
gaztetako kontuak bertan bera itxi,
bestelan bearko dok goitik bera jetxl.

Eztek nai izan egon ezkondu barikan,
baiña eztek izango bizi oberikan,
euk nai euan lekura aitarenetik;
aurrerantzean eztek orrelakorikan.

Orain egiñagaitik aitari eskatu,
onek etxok egingo eskurik luzatu;
beste modu batera oin bear usatu,
gaztetako kontuak ein dira bukatu.

Bizilekua degu Bizkai'ko partean,
baiña orain bizi aiz nigaz apartean;
naiko tema ein dogu biok oiñartean,
eta agur, Periko, ikusi artean.

(Ibaizabal, 1903)

MANUK PEDRO'RI JARRITAKOEN ERANTZUERA

Bertso batzuek jarten asi naz gogotik
Manuel Enbeita'ri azaltzeagatik,
asi dalako onetan ni baiño lenaotik,
beraren jarraitzaille ba-noa ondotik.

IVlmanuel'ek arduraz neretzat jarria.

Ardura larrei, IVtanu, eiten dok azaldu
errespetoen faltaz ez naitean galdu,
baiña nik bakit eiten erosi nai saldu,
ta errespetoa euki nai eiten zabaldu.

Manu, abill onako guraso antzien
niri bizimoduko ardurak artzien,
euk falta ta iñori ejenplu saltzien
ibilli baino obe dok gorde giltzien.

Bokaziorik euki ba'nau prailletzako
enintzoan prestauko andrerik artzeko,
baiña Jaunak ernan dit bat maitatutzeko
ta orain etxaukat, Manu, igaitik saltzeko,

Diraustak emaztea ienengo ezteko;
etxaukat premiñarik orretan asteke,
leial jarten dok beti naizer egiteko,
alan ezi bearrik bapere eztauko.

Manu, bildur andia daukak arturikan
ibilli enaitean aitarenetik
ta neugandu eztaidan eure gauzarikan,
baiña ez egik artu orren bildurrikan.

Ezer emon ezarren lk diñoan aita
amairik eztaukana beste bat ba-daukat,
txit emoille ziurra seme leiaientzat;
emongo deust premiñaz eskatzen ba'deutsat.

(Ibaizabal, 1903)

ZAINDUKO GAITU

Biotzean sartu **jat**
poztazun andia
Bizkaia'n ipinteaz
Patrona barria,
doiak eta birtute
danen jatorria;
orain dogu Blzkaia'n
zeruko gloria,
zeiñ dan Jesus'en Ama,
Birgiña Maria.

Bizi bedj Blzkaia
ta bere lagunak,
blzi bedi Patrona
eta euskaldunak;
pozik igaro geinkez
gau eta egunak
itxaroten guretzat
Zaindari aiñ onak
bialduko deuskuzan
zorlontasunak.

Goiazen Begoña'ra
euskaldun antzien
Bizkai'ko patronaren
sariak artzien;
beren maitetasunaz
ba'gara eltzien,
gure Amak ez gaitu
itxiko utsien,
ta era eder oni
ez itxi galtzien.

Asko dira Euskera
galtzen dabizanak;
ez dabe jaritxiko,
alper dabiz danak!
Zeru altuko Jesus
maltearen Amak,
Bizkai'ko patronatzat
aututa dauanak
zainduko dauz Bizkaia
eta euskaldunak.
Alan izan dedilla.

(Ibaizabal, 1903]

IGARKIZUNA

Beln baten egozan emakume bi errekan lixiba joten, eta euren urretlk igaro zirean gizon bi, eta esan eutsan batak besteari:
—Ara or nun doiazan gure aitak.

Eta besteak erantzun eutsan:

—Baita gure amen gizonak, eta gure umeen aitak, eta gure umeen aitaitak, eta gure gizonak bere.

Zelan izan leiteke au ziertu?

Erantzuna: Gizon alargundu bi zirean eta biak euken alaba bana, ta gero bata bestearen alabakaz ezkondu zirean; bitzuek izan eben famelia; eta ara or nun direan andra orren aitak euren semeen aitak eta aitaitak, euren gizonak eta euren amaen gl-zonak.

IZKIRIMIRIAK

Ondiño ezta denpora asko aurkitu zirean bidean neba-arreba bi; bata bidean goitik berantza ta bestea gorantza; eta onetara itandu eutsan arrebeak nebeari:

—Ze barrl da or bealdetik?

—Ba, gure lengusiñak argitaratu dabela frutu barria gaur goizean.

—Ola!... ta bera, zelakoa da, mutilla ala semea?

—Ez bata ez bestea.

—Ai!... ori eztot nik esan gura izan, alabea ala neskatoa dan baiño.

—Ba... biak, alabea ta neskea.

Urrien lenengo domekan ebizan lau mutill bola-lekuan bolaka, ta begira egozan gizon da mutid da mutill koskor ta naste, asko; bolaka ebizanok bota ebeezan bakotxak bola bana, ta suertau jaken bakotxak seiña tantu baiño ez egitea; danak kale edo txirlo artetik joan zirean, eta ba-diño, albotik, ixillik egon ezin zan mutill koskor batek:

—Mutillek!... aandie pasa dok... Iru seiko amabl.

Eta erantzun eutsan beste batek albotik:

—Eztok ba, mutill, amazortziko dozenea orren andi-andle be.

(Ibaizabal, 1903}

MUXIKA'N GERTATUA

Etxe baten egozan lau aita-seme bertsolariak, beste otseiñ edo serbitzari bat eukeela eurakaz.

Gau baten joan zan otseiña korta edo okollura eznea batzeko ustean, balfña alperrik, bei zarrak ostikoagaz jo ta pitxarra ausi eutsalako. Orduan dana asarreturik joan zan eskaratzera, eta esaten dautse:

—Gure beiagaz eztago gauza onik, katillu bete ezin eratzi leio iñok; ostikoagaz jo ta pitxarra apurtu deust, eta geiago enoia aregana.

Orduan erantzuten deutso albotik Manuel'ek:

—Mutill, noz egin az olako abiila? Goiazan pitxerra ta kati-
llua artuta eznean billa.

Joaten dira bata pitxerragaz ta katiliuagaz, eta bestea argia-
gaz. Asi zan eznea batzen Manuel, baiña alperrik; bei zarrak jo
eban ostikoagaz beiaun-buruan, eta albora bota eban.

Orduan, guztiz asarre, joan zan barrura, ekarri eban akullua,
eta asi zan bei zarra jotzen gogotik; eta Pedro'k kantetan deutso
albotik onela:

Pedro'k: Komedi-tokia da gure okoillua,
Beiak adarra dantzan ta ik akullua;
Gaur, bigarren aldian, mutill kankallua,
Eznez bete eziñik eure katillua.

Manuel'ek: Ni baiño geiago dok bei zar au indarrez,
Ostikoka egiten iok, gaiñera adarrez,
Eznerik ezin kendu ta i ortik barrez,
Pazientzai artzen eztok errez-errez.

Pedro'k: Eznea zelan kendu dauden guztientzat
Eskatzian euki dok pala bestientzat,
Orain eure ustean falta dot euretzat,
Ori dok itxuria mutill gaztientzat!

Manuel'ek: Musalen baiño be zarrago dan beia,
Trabes ipinten yeustak gaur neuri begia:
Askan eukiagaitik naiko janaria
Atzeko ostikoa dauko dantzaria.

Pedro'k: Txit dotore asi az eznea kentzien,
Baiña katillu ori dok erdi ulzien;
I baiño abillaurik ezpadok eltzien,
Dantzan eingo yok orrek okoillu ertzien.

Manuel'ek: Argi-mutill on barik postien onduan
Ator ikusitera zer moduz nagan;
Urreratu ezpanintz askoz obe nuan,
Ostikuaz io naiok belauten buruan.

Orain urreratzeko euk eztok ballo.

Manuel'ek: Eznerikan oneri ezin kendu leio;
la beizarrak asko ezteusku balio,
Daukon jenio txarrak negar eraiñ ieio,
Amaikatxu entzun dot au dala merio.

Pedro'k: Ezne kentzen asi az arro eta maiñes,
Iñori burietako uste ta alegiñez;
I az mutill abilla bakarrik mingaiñez,
Beizarren ostikuak eraiteko ires.

Manuel'ek: Segurutik eiten dok berbia naikua,
Aprobatu nai badok emen yaok lekua;
Eroan ezketiño errora eskua,
Adarrak dantzan dabiz, zoli ostikua,

Pedfo'k: Mutlllen fiñezia guztitz andla dok,
Eznez mantentzia nai etxeko guztiz;
la gaineztu dozak dlrean ontziok,
Lar kendu barik, mutill, puska bat itxlok.

Manuel'ek: Seguruan [arrita gaur edozer diñok,
Neuk eratziko deusat alan bere eztiñok,
Mantxatu ez daiazan eure esku fiñok:
Emen *len* egiterik etxoii gura iñok.

Pedro'k: Neure anaie malte, Manuel Enbeita,
Gaur danak eraztea derrigorra ezta;
Beiñepein lanerako i az mutili presta,
Bakik nola daukean pitxarra beteta?

Manuel'ek: Gazteak ezin leike ezer zarrarekifi,
Ernegau erain deustak gaur eure koplakiñ;
Ba-naloak katillu ta pitxarrarekiñ,
Ixiltzera naioak, euk nai badok eklñ.

(Ibaizabal, 1903)

Bertso polit batzuek nai neukez atera,
Baiña duintasunik ez askoren antzera;
Mesede billa nua Zeruko atera,
Kristau guztien Ama Mariaz batera.

Sortu glñian bizkor ezer-ezetatik,
Baiña gelxotu giñan utz-egin batetlk:
Sugeari jaramon Eba'k egiñaitik,
Gu aldendu genduzan Zeruko bidetik.

Sugeak eukan guzur edo erejlya,
Galdu nairik Eba ta bere jatorrlya,
Balta bere urrengo jarraipen guztlya;
Au da liburuetan daukagun eglya.

Jaunak zirautsan suge inpernutarrarl:
«Zer ein deitsazu Eba lenengo Amari?
Guzurraz erain arren pekatu oneri,
Beste batek burua ausikotzu zeuri».

Jaunak beste Ama bat eln eban argitu,
Zeiñen bitartez giñan guztiok garbitu:
Eba'k galdu genduzan, Mariya'k aurkitu,
Sugeari egiñaz burua zatitu.

Milla urte ta geiau Igaroak dira,
Maria agertu zala Bizkaiko errira,
Begoña'ko Artagan edo artedira,
Iñok egundo alntzat ez eukan tokira.

Jaunak bialdu eban bere graziyakin,
Begofia'ko errlra maitetasunakin,
Bizkaia'n izateko gozotasunakin,
Asuntziyeko izar eta Jantziyakln.

Nundik eta ez zelan inok etzekiyan,
Zeruko Ama an zelan aurkitu zeikiyan;
Baiña gogoratu zan guztien artian,
Etorriko zala gu galdu ezkeitian.

Mariya'k egin ditu ainbeste mirari
Biotzetikan Bera maite dabenari;
Itxasoetan larri ibil direnari,
Orlako mesediak ein deutsez ugari.

Ez dau rnirari gitxi ein itxasoetan
Ama Begoña'koak ontzi galduetan:
Berai deitu deutsanik estutasunetan
Ez dau bakarrik itxi azken orduetan.

Untzitikan jausita bein Andres Maidana,
Ordu biyan uraren barruan on zana,
Untziya amar leguan aurrera juana,
Zan Mariya'n bitartez alkantzau ebana.

Gregorio Zoparta, barriz, bost orduan
Sarturik pelota artzen karobi beruan,
Gizoneri zirautsen bida asitorduan:
•Kontuz ibilli, zerren bizirik nagan».

Naiz dala itxasoz ta nalz dala leorrez,
Izaten gara beti amaren biarrez:
Gu ikusi ezkerro berari didarrez,
Guri laguntzen dator zeruko indarrer,

Ama Begoña'koak dau ainbat meritu:
Zenbat mirari berak egin ete ditu!
Mutuai itz eragin, itsuak argitu...
Zenbatu ezin beste Berak egin ditut

Adoredun ipiñi adore baguak;
Zenbateri zuzendu berna okertuak!
Eta zenbat osatu geixo txarrekuak!
Peste edo kolera eta orlakuak.

Uraz iya itoan ta suaz erretzen,
Ziranak zenbat Amak zituan libratzen
Bein bere ez dau Mariya'k lñor ttxi galtzen,
Biotz onagaz ba'da Berangana eltzen.

Zenbat esker, mesede maitasunagaz
Ein ete dauz, gomutau gaitian Beragazl
Zordun aurkitzen ginan Ama ain onagaz,
Ipinteko Begoña'n koroi ederragaz.

Eun da amazpi txingar brillantedunetan,
Eta ogela zortzi txingar artañetan,
Ta larogeta amasei txikizkotietan,
Ta zenbat nai txikigaz adornaturikan,

Mariya'ri ipiñi eutsen burestuna,
Zidarrezkua bera, gañe oriduna,
Beraren izeneko Agirre'k ernona.
Ai, ze ospetsua zan orduko eguna!

Larogeta amazortzi milla laurleko
Eta bosteun ganera baliyoa dauko:
Agirre'k emon eban, jakiñik norako,
Bizkaitarren Zaindari danen bururako.

Eleizea bete zan, baita inguruak;
Dana estaltzen eben kristiñau buruak,
Auzpezturik Amari eiten erreguak,
Beragan ipiñita uste seguruak.

Aberats ta ezeuki, andi ta txikiak,
Ugazaba ta otsein, zar eta gaztiak,
Eleiz-buru nausi ta erromes maitiak,
Beren aurrian ziran auzpeztu guztiak.

Aita Santu zan Leon Amairugarrena,
Onetako baimena bialdu ebana:
Koroi az ipinteko Begoña'ko Ama,
Berak zajndu egian Euzkal-erri dana.

Begoña'n sarri izan dira erromesak,
Betetan Mariya'ri eindako promesak...
Amurraturik ona, ikusj nai-ezak,
Suge deungak bialdu dituz Satanasak.

Igezko urriyaren amaikagarrena,
Bilbo'ra suge deungak agertu zirana,
Zapaltzeko ustian Begoña'ko Ama,
Oker jazo ez ba'lite euren uste dana.

Alperrik egin eben eurak alegiña,
Erromesari kentzen Jesus'en dotriña;
Mariya nai ikusi, bai eta Begoña:
Dana jadetsi eben, kosta yaken baña.

Jesus'ek autu eban Mariya Amatzat,
Baita dau eskiñirik nnunduko danentzat;
Guztien goitik, barriz, gaur bizkaitarrentzat,
Ipiñi dabelako euren Zaindaritzat.

Biotzian sartu yat poztasun andiya,
Bizkaia'n ipintiaz Zaindari barriya,
Doiak eta birtute danen jatorriya,
Zein dan Jesus'en Ama, Birjina Mariya.

Guazen Begoña'ra euzkaldun antzian,
Bizkalko Patronaren sariak artzian;
Bere maitetasunaz ba'gara eltzian,
Gure Amak ezkaitu itxiko utsian.

Bizi bedi Mariya, baita euzkeldunak!
Bizi bedi Bizkaia ta beren lagunak!
Onez igarorikan munduko egunak,
Danok izan gaitian zeruan zorunak.

(1906, **Gernika'n, Egurrola'ren irarkolan**)

BIZKAITARREN ISPILLUA - BALENTIN BERRIO-OTXOA

Zer da Jesus'ek autu ebana,
Edo bere naiz egiña?
Elorrio'ko errl maitean
Bizkaitarren atsegiña,
Bertan egoan onoidadezko
Baratza edo jardiña,
Argitu zana usaln gozozko
Zeruko lorean miña,

Gozozkoaren egarri,
Emon dagion onoidadezko
Indar sendo bat berari,
Zerren mngotzak gozotzen naiban
Izan ludian gudari.

Juan Isidro Berriotxo ta
Monika Arizti'n baratzan
Lora au sorturik argituiea
Jaunak gurata alan zan,
Maite ebena beren zaintzallak
Asiefan ta gorantzán,
Bardin urrian zein urriñeko
Aldakuntz edo mudantzán.

Milla zortzireun oeita zazpian
Zezeillan amalaukua,
Egun bera zan Elorrio'ko
Errian Jaunak autua,
Onezko lora bat ipinteko
Bertan argitaratua,
Izango zana beti-betiko
Zeruan aukeratua.

Goizalderako Izarrak legez
Oiban berak argl egin;
Pozik zeruko gozotasun au
Ludian zabaldu dedin,
Aingeru baten antzera baita
Jesus maitatzen alegin.
Aingeru lora au, zein zan ezpada
Berriotxo'tar Balendln?

Blzkala'n Jaio, Logroño'n apaiz,
Gero Okaña'n aldatu,
Done-Domingo'n Anaitegiko
Jantziaz einda guratu.
Berba muetak ikasi zitun,
Jakindurian goratu.
Etzan Jesus'en naian zliñopa
Ein arteraiño geratu.

Okaña'n onda, Kadiz'tik jiran,
Manila'ra zan eldua,
Ango nausien baimenez gero
Tonkin'era bialdua.
An ibilli zan artzain bat legez
Maitez biotz-zabaldua,
Jesus'egana biortu nairik
Ango siñismen galdua.

Basamortuan zelan oi diran
Ibilden artzain zintzoak,
Batzuk zaindu ta bestetzuk batzen
Jan ez daiozan otsoak.
Alan eukazan Tonkin'tarrakaz
Balendin Berrlotxoak,
Txarrak ondu ta onak zaintzeko
Gurari biotzekoak.

Zabal oi diran iorarlk lora
Erliak oiñez ta aldian
Ibilden dira, batzen dabenaz
Ezti eiteko abian:
Alan ibil zan Tonkin'tar galzto
Odol-zalien artian,
Zabal ebizan arimak batzen
Jaunaz gozatu daitian.

Ze putz gozoa eglñ ol daben
Udako ipar aiziak!
Baiña ez dabe ontzat artzlen
Gozotasun au guztiak.
Illun-zaliak argien kaltez
Oi dabez indar luziak,
Bada Tonkin'en igaro zltun
Onen irudi biziak.

Luditarrakaz len izan arren
Esetsiz inguratua,
Gaur bakez dago beti-betiko
Zeruan aukeratua,
Atsedenan Jaunak emonda
Urrezko jarri-lekua,
Euskal-zaindari ziñopa dontsu
Done zorionekua.

Eta esetsi zorrotzak.
Baiña gaur zer dau poz betikoa
Ezpada zure biotzak,
Zaukezanlan goi-beietako
Deunak zorionekotzat?

Garagarrillan amalaurako
Zeru guztia dau barrez;
Aingeru danak zeuri begira
«Bizkai'ko done»! didarrez.
Mai donetuan zu ikusteko
Danok pozaren indarrez
Aurkitzen gara, gagozalako
Bizkaia'n zure biarrez.

O bizkaitarren zaindar! zaran
Done atsegiñezkua!
Zure mendian gaozan danoi
Emon eiguzu eskua,
Daukagulako arerioen
Esetsiz bizi estua,
Galdurik ia bizkaitarrentzat
Jaunak autuko lekua.

Agur gozo bat egiten dautzut,
Maitez, danen izenian.
Aintzat artuizu nire eskintza au
Zuganako naizenian.
Nai dogu bizi Jesus ta Amaren
Eta zure esanian,
Zeure antzera or sartu gaizan
Luditik goazenian.

(1906)

Goi ta be eta danian,
Gauza danak egin zitun
Asi zan unian:
Aingeruak goietan
Donoki donian,
Bera nnaitatuteko
Betiko iraunian.

Luziper ipiñiban
Aingeruen nausi;
Baña arrotzen zalako
Andi-ustez asi,
Jaungoikoen aginduz
Zerutik igesi
Beraz millak aingeru
Ziran beera jausi.

Aingeruen nagusi
Izango zan goian,
Utsik egin ezpaleu
Emon eutsan doian.
Bardin Adan ongo zan
Pozezko lurrian,
Jarraitu ba'leu Jaunen
Aginduen beian.

Atsegiñezko ortuan
Adan'en aukera
Aldatua zan une
Batetik bestera.
Eguna biurtu zan
Gaua izatera;
Illundu zan bidia
Zeruko atera.

Jaunaren agindua
Ausiaz batera
Jausiz an gizatasun
Dana illunpera:
Imaigabe au eldu zan
Millakaz urtera,
Jesus etorri arte
Gu gaizkatutera.

Gaizkatu gaitezan -
Jesus'ek gurari ain
Andiak eukazan; ..
Beragaz gure zorrak
Ludiko bizitzan
Artzeko, Miren'egan
Aragiz jantzi zan.

Miren'en sabelian
Jaunaren Semia,
Aragiaz jantzirik
Jaungoiko Umia
Belen'en jaioteko
Eldu zan unia:
Illuna argitu eban
Eguzki donia.

Izanik donoki ta
Lurreko Bakaldun,
Aska baten billoxik
Grra nun daukagun;
Astoa ta idia
Daukoz beren lagun:
Jcsus'en maitasuna
Gogoratu daigun.

Goiezan kistar onak,
Goazen Belen'era,
Billoxik aurkitzen dan
Jesus'en aurrera.
Belaun-bikotu gaiten
Elduaz batera,
Etorri yakulako
Gu gaizkatutera.

Zetan etorri zara
Zu, Jesus maitia?
—Jaingua ta gizonak
Egiten bakia!
—Zer gura dozu, bada,
Oin guk egitia?
—Zeuen biotz osoaz
Neu maitatutial

Beste danen goitik.
Gertu gauz egiteko
Al douna Zugaitik,
Agur einda juteko
Ludi onetatik.

Jainkoen legia.
Olan eiteztanentzat
Dot erabagia:
Eztau beti ikusiko
Nire arpegia!»

Poztu gaitualako
Jesus'en Jaiotzak,
Eskintzen dautzuguz gaur
Guztion biotzak:
Gu erriarentzako
Ta erria Zeuretzat
Izan dein gura dogu
Maitaliok beintzat.

(A., 1908)

EZKONTZA BAT URKIOLA'N

(Jose Fuldain ta Miren Zabala ezkondu ziran)

I

Artu dozu, Joseba,
Miren zeure emazte,
polit bikain zolia,
neskatilta gazte,
zeiñek izango zaitun
beti maite-maite.
Jaunak zagizala, ba,
zorionez bete:
gaur nik zer opautzudan
gogoratu zaite.

II

Miren, gaur artu dozu
zeure senar lagun
osalari Joseba,
gizon biotz bigun,
zoli ta jakitun,
ganera euskeidun,
zeiñek maite zaitun
beti, gau ta egun.
Jaunak zaizela biok
egin zoriondun.

(La Gaceta del Norte, 1908)

(Manu Enbeita Ameriketara doia Baiña euskaldun gazte lez, agur dagitse biotzetik bere guraso, etxeko ta lurtar maite guztieri).

Manu'k: Agur, aberri maite maitia.
agur zelai ta tontorrak:
agur itxaso bare baria,
agur olatu montorrak.

Agur asaba zarren lekua,
agur euskaldun ilkorrak,
agur guraso eta anaiak,
agur andi ta koskorrak.

Amerikara ni juan arren,
ongo dira euskotarrak,
ama Euskeraj askatuteko
bere lokarri gogorrak;
nire ordezeko geratzen dira
gazte indartsu bizkorrak.

Pedro'k: Agur, Manu, ikusi arte;
osasunagaz ibilli zaite.

Neure buruko adiña daukat
biotzagaz Indarrian,
aberiaren zaletasunaz
maitalzeko su ta garrian.
Gaur nago, Manu, agur gozo bat
zeuri egin biarrian
esanaz Jaunak lagun daizula
itxasoz eta lurrian!
Baiña bizi ta il zaitiala
asaben lagi zarrian.

La Gaceta del Norte, 1908)

ARTZAIN BARRIA

Negu ankerrak oi dauzan legez
Lora guztiak igartu,
Mendiak gorri, zugatzak billoiz,
Txoriak mutu bigurtu;
Ta Udabarriak lorak berbjztu,
Txori ta danak alaitu;
Geu be olantxe atsekabian
Ondoren pozak jo galtu.

Europa'tiko negargarritzko
Gudako izparrai begira,
Tamalez sarri nire begiak
iturri bigurtzen dira;
Baiña gaur pozik begiratzan dot
Gutarren izparringira,
Naigabe danak aitzuta nire
biotza pozez jarri da.

Dakust antzezki ain gurgarrla,
Baita be izparrik onena:
Aita barri bat. Artzain barria,
Ludiko kistar danena,
Goteunak deitu daula emonik
Doipurutzako baimena,
Amaboskarren Bedita beren
Izentzat artu dabena.

Au izpar eder!, au nire poza!
Au bai nire atsegiña,
Dakustanian amargarren Pi
Doatsuaren ordaiña!
Ume-zurtz giñan, ta bai genduan
Aita on baten premiña.
Zoriontsua izan daila, ba,
Kistar ororen Artzaiña!

Izpar alaiak irakurrita
Eskuan daukat gure orri,
Doipuruaren antzezkiari
Begiratzen adi-adi.
Laztan emonik bular ganian
Daukan gurutza deunari,
Opaldu dautsot euzko-abenda
Doibatza'n alde z gudari.

Artzain deunaren irudiaren
Aurrian otoika nago,
Opautsedaia txiro ez-jakin
Onen biotz eta gogo,
Ardi galduta gagozan legez
Gaur iñoz baiño geiago,
Txabolaratu gaizan otsuak
Ondatu baiño lenago.

(E., 1913)

KARMEL-EGUNEZ LARRA'KO LEKARETXIAN

Seme on batek amaren jaia
ospatzen dabon orduan
alaitasunik andienagaz
bere amaren onduan,
atsegin danak oi dauzan legez
biotzan barru-barruan,
Karmelez Larra'n iñiren Amagaz
neu be olantxo nenguan.

ederrez mguratuta:
aurre-aldian, egal, goi ta be,
lorategi biurtuta.
Guzti oneikin goraltzen eben
gotzonak Miren neskutza.

Jaupaldi eder asi zanian,
Donoki neban ikusten;
beste aldetik gotzon-eresi
ta abes gozuak entzuten.
Iturri oneik neure biotza
ur gozoz asetu eusten:
orra betiko zorionduta,
geiau ezpa-yat legortzen.

Txonitz-aldia eglten bere
Aba Apolinar asl zan;
ain ederto ze, ba-zirudian
Deun Simon bera ete zan.
Neure gogoko almen guztiak
beran jarrita neukazan...
Onoidade ain goralgarriak,
ai, zeïñek euki leikezan!

Euskera garbiz egiten eban
Karmel'go Ama goratu,
esanik bere Kutuna barik
ez deilla iñor geratu;
berak daukezan onoidadiak
euskuzan argitaratu.
Ai, baiña zelan! Guztiz ederto.
Goralben danak blaltu.

Goizian legeztaraldian be
txadona bete-beterlk,
toki aretan etzan ikusten
edertasuna besterik.
Aba Polentzi'k itz egin euskun
euzkeraz maite-maiterik.
Ezaun da onelk eztabela nal
ele kutun au galtzerlk.

beste urtetako gisan;
baita Doipuru-onespenagaz
onetsi orok eleizan,
euzkeldun zintzo kistar otzanak
aurrerantza be izan gaizan.

Agur, karmeldar, Miren'en seme
on jakitun otzaneri,
lekaretxeko Aba nagusi
ta bere menpekoeri!
Aba Apalinar eta Polentzl,
txonizlari ain gurgarri,
obendi onek opa dautzuez
Jaunan zorunak ugari.

(E., 1915)

ERANTZUNA

(<fErrenderi'ko xoxua»-ri)

Doiñua: Nagusi Jauna,
auxen da lana.

Nere adiskide ta lagun maite,
lar estutu gabe lasaitu zaite;
nere baimena zurekin dezu,
baifian sasitik urten biezu
zelai garbira,
uxo politen jolastokira,
bestela oneik igazikoir.

Errenderi'ko ene zozua,
nigana otoika zatoz gaxua
estu ta larri esaten neri
ez bidaltzeko uxok iñori;
baifian zuk beti
lgesten bezu uxotegiti,
nok arraio oneik bakar eduki?

gogor samartxo esaten zuan;
bestela asarre
ez izateko, uxorik gabe,
bestek ostuta, geltzen ba'zare.

Ene motellak! auxen bai lana
nerekin oraintxen artu detana!
Urretxiñolak bidaldutzeko,
eta xoxuak bertan izteko...
Uxoak, berriz,
au Jakitzean, urdurl dabilz...
Agur xoxua, belu ba'zabilz!

Nere naia da uxo ta xoxo,
alkarturik ein kabitxo goxo,
eusko zugaztl eta zelalæk
bete daiezan beren umiak,
orok batera
goraldutzeko ama Euzkera,
igesl gabe urez bestera.

(E., 1915)

KUKUARENAK

Kuku entzun nebala
gaur ogei egun;
baso-baratzak legez
arrapau nindun,
txlro ta illun,
orrlrik ez lorarik
etzala iñun.

Aurten etorri **yaku**
lñoizko goizen,
eztarri ederrauaz,
asko nl baizen
alal ta gizen,
baiña eztakit lanok
zelan dabizen.

Kukua izan arren
txori ain zurra,
udabarria zaintzen
guztiz zugurra,
aurten guzurra
dala esan legike
beren agurra.

Nl baiño askoz zarrau
bal-da kukua,
nire ailtla baiño
lenagokua,
ez ain kokua;
aurten egin dau baiña
egitekua.

oin dau igarri!
Oin dago larri
loren orde ztxingorra
daukala ugari.

bardin dauzela;
bailia bai zera!
Aldatu dira beste
gauzen antzera.

Uda-Jantzi txairuaz
eldu yakuan,
usterik eguraldi
txar danak juan
ziralakuan;
orain estalgi billa
dabil auzuan.

Len marti-Andra Mariz
eltzen zaneke
zugatzak orriz janzten
ziran ederto;
oin Jorraitileko
azken-aldian baiio
askoz obeto.

Kukua, zetan eztok
abia egiten,
lotsaz or egon barik
egun argiten,
txingor-euriten?
Ortako obe dok juan
udabarriten.

Gau ta eguna dagoz
lenauko antzez,
euren gora-beratan
orain be artez,
besterik bapez;
enparaukuak goibe
andiak daukez.

(E., 1915)

ENE ANAI URRETXINOLA

(Muxika'tik Amerika'ra juanari)

Aspalditxuan, neure barruan,
Neukan tamalagaz, estu nenguan
imanol anai urretxiñola
Bizi ete zan!
Arduraz nintzan, ai bailia zelan!
Ta bere izparra, ona nun dodan!

Igarri ete yautsat, ba, oni?

Ni nok txori bat etxe-inguruan
Nabillena udan eta neguan,
Abi ondotik urriñerako
Nai eztodala egorik jaso.

Naiz-ta ziñopa!...
Emen ilgo nok txio-txioka,
Arrotzen batek arriaz jota.

Ni enok zozo, ez birrigarro,
Eztakit, ba, abesten oik baizen arro.
Eztirudit, ba, kuku ez miku,
Txindor bat baiño anka ta piku.

I az, ba, txori,
Urretxiñol ain ospetsu ori!
Eta ni, barriz, nok txantxangorri.

Oi, ni ba'nintzok ire antzeko,
An abestuko neukela bai laster
Itxartu daizan erri ta bazter;

Baiña nik zelan
orri abestu bear dan eran
Oztan ba'dakit ondiño egan?

Nik biar yuat laguntasuna,
Ene anai maite zintzo kutuna.
Ia, ba, laster etorten alzen,
Aberatsago Rotxil bat baizen!

Orduan anai
Bik abestuko genduke alai:
Urretxiñoiaz Txindorrak be bal.

(E., 1915)

gaztia,
eder loraz betia,
igali ain gurgarri
emoten eban ori
etzan ain
gazterik
galduko zan usterik.

Baratza
batlan,
toki ain egokian
aurkltuten zanian,
sasolrik onenian,
etzan aln
gazterik
galduko zan usterik.

Pozezko
loriaz
ta urrezko igaliaz
betarlk zan zugatza,
Indartsu, aberatsa,
etzan ain
gazterik
galduko zan usterlk.

Bat-baten
dau bota,
arrak sustarran Jota,
usteltzen da (orea;
balña bein ez urrea:
berauxe
ziñan ba
zu, Eltzo'tar Joseba.

ez-jakin
askok oi dautso ekin.
Baiña banakatxuak
oi dira jakintsuak:
berauxe
ziñan ba
zu, Eltzo'tar Joseba.

itz utsak
alperrik...
iiten dira bakarrik.
Egipen onak, barrlz,
iñoz il barik dabiz:
berauxe
ziñan ba
zu, Eltzo'tar Joseba.

Ainbeste
olerki
eder, sakon, egoki
zltuan iturria,
gure ltxopen andia:
berauxe
ziñan ba
zu, Eltzo'tar Joseba.

Joseba
Il dala!
Al, au gure tamala!
Ezkutatu da luditik,
Jaunak daki zegaitik,
Or goian
Zuk, Josu,
zoruna emoiozu.

Euzkotar
guztlak,
zarrak eta gaztiak,
biotzez ta kemenaz
otoi bana esanaz:
«Or goian
Zuk, Josu,
Zeuretzako gordeizu».

(E., 1916)

Dei eglten dausku Mariak,
«Egizko biotz-lora txortakin
Erdue, pekataria». Guazen, bada, Ama onari
Betetara gurariak,
Gero zeruan izan daiguzan
Amai bageko sariak.

Ama benetan onena,
Garbitasunan ispillua ta
Onoidadetan gorena;
Jakitura daukozu, barriz,
Azken bageko almena,
Zeu zara gure bitartekua,
Zu gure itxaropena.

(1916)

ZORUN-AGURRA

(Arrospide'tar Jon'i)

Arrospide ta Basabe'tar Jon,
Aizkide zintzo ta zurra,
Eure guraso ain onak baizen
Euzko-eredu zigurra...
Gaur damostakan poz-atsegiña
Eztok izango laburra.
Artu egik, ba, biotzez eiten
Deuatan zorun-agurra.

Ikastietan nausi urten dok
Ikaste-sari ta guzti;
Eugaz yabiltzak Jaungo-eskarra,
Gotzon, izar ta eguzki;
Goitik datorren iturri deunak
I au zori onez busti:
Orl dala-ta ikasten dozak
Ain ondo ainbat idazti.

Guraso argl zintzoen seme,
Aitaite onan lobia,
Ikastun andi, euzkeldun bikain
Ona baiño be obia;
Euzko-baratza gurgarri baten
Agertu intzan loria,
Izango al az zori oneko
Usain guztien jaubia.

(E., 1916)

GARILLA

Gengozan noz etorko eta zan Garilla,
aspaldi beral deika etorri dedilla..
Eldu da guztiz eder. Ai, au dok mutilla!
Jo, garbitu, eio ta egifik opilla,
poztuteko tamalez dagan urdaila.

Jaungoikuak gura-ta, au eguraldia!
Ipar-aizetxuagaz eguzki argia.
Autsak galdu eztaiskun geuri eztarria,
napar ardautxu ona ekarri, Maria;
eta, ez bildur izan, jokogu garia!

Ettxerik geienetan gogoz ekin dautse,
Ai, emengo aupadak!... Eta emengo autse,
Izardiz uioldurik goi ta be gorputze:
galtsuari garia kendu biar butse,
baserritarrek artu daroe neke utse.

La vida mas tranquilla baserritarrena;
para ser uno fuerte biarra onena.
Au da uritar askok esan oi dabena.
Baiña, orraitik, eurak etxatozak ona,
jakin arren biarra dala osasuna.

Ogi, ardau, igali eta ortuari,
okela ta enparau jan eta edari,
luginok damotseguz uritar danari;
gomutauko ba'lebe zer dan biar ori,
obeto begituko leuskigue guri.

(E., 1916)

LUGINAK POZIK

Aurten bauku gariten!... Ederra ta ugarl,
gitxienez izan da bateko amabi.
Begiratu ezkerro, barriz, artotzari
Itxasoa iez urdln baltzezka orlegi.
Lugñiak pozan **pozaz** dantzan egin legi.

Botaten dogun arren izerdia ugari
soloetan artzeko arto eta garl,
lur-sagar, indaba ta enparau janari...
Aurten bauku, mutillak!, eskarrak Jaunari,
zegaz poz emon geure mutikotxuari.

Galonduak lantzeko ain egon da giro...
Autsetan jarri doguz astiro-astiro,
mutiltxuak itaurren doguzala txairo,
«Goratuago, **Txuri...! Apala**, berago...!
Oin be emen lengo sena galdu barik dago.

Burdi-irrintxia babil emen inguruan,
zeiñek zimaure geiago solora eruan...
Arbi-buru ederrak artzeko soluan,
beiak alikaturik oneikaz neguan,
esne ederra (jateko) nai dogun orduan;
txin-truke saltzeko be, nai daunari eruan.
Eztarabilgu beste gauzarik goguan.

(E, 1916)

EMEN DOK GURE BIRIGARRO AU!

(Bere anai Jagoba'ren olerki bat zala-ta)

Ortze illuna, zugatzak billois,
Baratzan lorarik ezta...
Udia jun zan, udazkena be
Or dua iñes-iñeska...
Edur mendiak dagozanian
Eta ibaiak ganezka,
Emen dok gure birigarro au
Negu-sarreran abeska.

Ego-aldeko errietatik
Bigurtu intzan etxera,
Euzkera barik, arako txori
Mutilduaren antzera.
Illa bi emen einda, Bilbo'ra
Ogia irabaztera...
Gaur eure «Negu-abesti» onaz
Ikaratu nok osterera.

Bizi dozak ondo arro;
Eta ni txindor gaxo au, barriz,
Betí lez makal ta txiro,
Negu bildurrez basetxetxuan
Lumok astindurik nago.

Buenos Aires'ko Hale'n bizí dan
Urretxiñolai esaiok
Egin daíala egazkada bat
Onantz, iñundik al baiok.
Al, nire poza! Gabon Zarretan
Gurera joko balaiok.
Poz-abestiak abestuteko
Alkarraz iru anaiok.
Gomuta onek, bakar-bakarrik,
Pozez zoratuten naiok.

(E., 1916)

NIKASI TA MIREN

(Senar-emaztiak)

Nikasi'k: —Iztera nua, Miren,
danai bertan-bera,
eta txin-billa nua
Kalifornia'ra.

Miren'ek: —Zer diñozu, Nikasi?
zoratu al zara?
Ez olakorik! Berton
atonduko gara.
Lur-sagar ta babaurren,
arto eta gari
soloetan ereingo
ditugu ugari;
eurotan artukogu
naikua janari,
ta agur egin betiko
Kalifornia'ri.

burua lar bero.
Ta oin olan ba'gabiltz,
zelan bizi gero,
Kalifornia'ra barik
geratu ezkeru?

Miren'ek: —Osasuna baukogu
lan eiteko drai-drai,
gosia kenduteko
arto pizkat be bai;
eta zuk igestiaz
andra ta umiai
negar eragiterik
Jaunak eztailla gai.

kasi'k: —Josu, Miren, Joseba!
Josu anei bidar!
Etzendun, emaztia,
ori esan biar.
Eztira, ba, juaten
ainbat gizon eder
emaztia ta umiak
nik lez euki arren?

ren'ek: —Juango dira, bajña...
nik nai ez ikusi
bizi-alargun neure
bururik itxusi:
Jaun-aldez umetxuok
dagiguzan azi.
Geure errin zeugaz bizi
gura dot, Nikasi.
Amari baiño aitar!
umiak lotsie
askoz obetuago
artuten dautsie.
Ta zeure erruz Jaun-bide,
sendi ta etxie,
tamalgarri litzake
alperrik galtzie.

(E. D., 1916)

Biztoki biko baserri-etxe teillatu zabaldun baten
Jazo da baiña jazotekua erle ta astuagaz aurten.
Jazokun asko entzuten dira, baiña ez olako asko;
Olerkitxu bat egin nai dautsot, egi-egia dalako.

Baserrietan ol diran lez, ba,
Egaztl baita aberiak;
Ganera, barriz, zetan esan bez,
I Maite bakotxak beriak.
Alantxe eukezan batak astua
Eta bestiak erliak,
Bitzuok ondo artzebezala
Arduraz euren jaubiak.

Erlauntz-onduan astua lotu
Eban iokarri senduaz;
Au, barriz, bizkor agin-otsian
Eukan jateko goguaz.
Olako baten joten dau gogor
Erlauntza beren buruaz...
Tupuz-eperdi etxe ta guzti
Erle guztiak or duaz.

Bilin-bolaka jausi zanian
Lurrera erle-marrua,
Biztanle barik laster **lotu zan**
Etxetxu onen barrua.
Uste bakotan egin beban be
Astuana ?an errua,
Baiña gaxuai berari bere
Konpondu eutsen narrua.

Aurre ta atzetik, gane ta azpitik
Erliak eldu eutsian...
Amaika ezten zorrotz sartu zan
Gaxo aren gorputzian!
Ai, ango purrust, ango arrantzak
Negargarrikkuak ziranl
Il artegiño putzitu eben
Zaragi baten antzian.

Il zan gaxua; baiña zapaldu
Ebazan erliak be bai.

Asto-jaubiak eskatzen eutson
Erledunari astua;
Erle-jaubiak barriz erliak,
Orra zelako autua!
Asl zirian auzian gogor,
Baiña ein be bai naikua.
Dantzaldi ori kostau ei yake
Bakotxai **amaseikua**.

MATXALENKARDU

Matxalen-Kardu'k asto ganian
Bjlbo'ra bosteun arrautze
Daruazala. Erletxe'tako
Mutil koskorak dirautse:

—Matxalen-Kardu, Matxalen-Kardu,
Zer daruazu astuan?
—Zera yaruat... asto-korotzak
Zuek joteko lepuan.

«Añaniñoen atso zorgiña»
Esanda, danak arrika,
Artzen dautsoe asto zar **ori**
Aurretik arin-arinka.

Alako baten zapalduten dau
Kurebioen etxie;
Oneik asarrez lau aldetatik
Astuai eltzen dautsie.

la arrautzak Bilbo n saltzie!

CE D., 1916}

MENDIKO ALAITASUNA

Mendi ganetik ikusten dira
Zugazti, landa, zelaia,
Basetxe zuri, baratza eder,
Errekak eta ibaiak.
Mendian dagoz eguzki argi
Ta etxe osasungarriak,
Biriak garbi erabilteko
Iñun baiño be obiak.

Txoriak euren abes ederrez
Baso ta mendi, goi ta be,
Zekor, bei ta txal, bior ta moxal,
Ardi ta bildots baita be,
Euren arran ta txilin-soiñuan
Orrua, irrintz, bee ta bee...
Ludian danik eresi-soiñu
Ederrena sortzen dabe.

Iñora baiño len agertzen da
Eguzkia be mendira;
Txori-abesti eztitsuenak
Mendian entzuten dira.
Euzkera zarra mendian dago,
Jaungoikuari begira;
Mendian dagon alaitasunaz,
Mendi-mutillak, nun dira?

(E. D., 1916)

ZER NAI DOK GEIAGO?

Ene txori polit ori,
Zeri adi ago
Ez abesteko kaiolan
Alai ta geiago?
Zer gura ta axe duala
Beti baldin ba'ago,
Zentzun bako mizke orrek,
Zer nai dok geiago...?

Beste txoriok basuan
Pozez zoratuta
Yabiltzak txiro-liroka,
Ezin aspertuta.
—«Ai, neu be, orreik lez, azke
Baldin ba'nenguke...
Gutziz alai ta pozik
Abestuko neuke!»

fE. D., 1916)

BAKOTXAK BERIA MAITE

Euzkereari egin daiogun
biar dan lako arrera,
dalako geure zorun guztien
etorkizuna berbera,
geure gogua, geure arnasa,
goi-erdi eta susterra;
ganera Jaunak egiña da-ta,
maite biogu euzkera.

Zer dira gure iturrituak,
ibai, erreka ta itxaso,
baserri-etxe zuri baketsu,
ibar zelai nnendi baso?
Eztira beste gauzaik ezpada
Uzkurtz jagolak..., arako
gure asaba onak euskeraz
ugutzau ebezalako.

Uzkurtz-aldezko gualburua
Euzkera izan da beti,
arrotz-obenik igaro ez dein
euzko-mendien ganeti.
Areio deungak ezetsi arren
sarritan lau aldetati,
ondiñokarren bizirik dago...
Jainkuak daki zegaiti.

Gualburua galdu ezkeru,
gudaroztiak zer egin?
Arerioak laster oi dautse
guda-lerrua ebagi.
Augaitik eutsin biar dautsogu
gogotik Euzkereari,
jakiñik nortzuk direan gure
umien irakasleri.

(E., 1916)

JANTZI DAIGUN EUZKERA

Odeiak illun itzalak dagoz,
Ekatxa dator errira.
Ama zar batek tamalez diño,
Jarririk oni begira;
«Ene galdua, semiok nigaz
Gomutetan ezpa-diral»
Oññazez beren begi apalak
Iturri bigurtzen dira.

Lo txarra kendu eta itxarturik
Ikusi daigun bakotxak:
Ortzea baltzik, mendiak zuri,
Lurra gogortuta izotzak,
Euzkera zarra erdi-billoxik
Dardagan darabil otzak.
Au ikusirik, ez laguntzeko
Nun dira euzko-biotzak?

Zer balio dau zuri, baltz, gorri
Edo nabar izatiak,
Baldin ezpa-dau zer ikusirik
Orraz Euzkera maitiak?
Alde batera itxirik, bada,
Politika ta nastiak,
Euzkoreari danok zabaldu
Biar dautsoguz atiak.

Erdi-billoxik ba'dago bere
Jantzi biogu Euzkera,
Erabilteko eder ta txukun
Alde batetik bestera.
Jaunak geuretzat emon euskun-ta,
Euskaldun onak ba'gara,
Guazen jantzi ta indartuteko
Biar daunaz laguntzera.

(E., 1917)

Lurrak eban iruntsi;
Oin Garbitoki-sutan
Irikiten naz bizi,
Sutzar au nok amatau
Eztodalako euki.

iñor-iñor bez gortu;
Gaur orren aldia da,
Biar zeuria dozu.
Zeuk dabilzun neurriak
Zeu be neurtuko zaitu».

«Noz arte, baina, emen?.,
Jaunak bakarrik daki.
Ene senidiok, ba,
Erruki zaiz; erruki,
Ene adizkidiok;
Otoi egin nigaiti,
Oben-zor au Jainkuak
Dagidantzat azketsi».

Zetako Jaio giñan
Kiskaltzen gau ta egun
Dagozan gokaxuai
Ez egiteko lagun?..
Guraso, senidiak,
Aizkide ta ezagun,
Il diranen gogaldez
Orok otoi ein daigun.

CE., 1917)

PRAISKU TA TXINDORRA

Praisku'k: —«Txindorra, esan zadak ik
«Tene» zein dan bai al dakik?

Txindorra'k: —Bai, ba-zekiat ondotxo ere;
Gezurak balio eztik
Uraxen bai uxotxo polita,
Iñun ba-zeok pollitik!

Doñua: Txoritxo batek lenguan
Uso polita, Nere gelako leiuan
errazu, nurat Idazkitxo bat utzi zidan-ta,
juaten zira zu. Bertan irakurri nuan
Uxo polit ori bizi dala
D...B...A... ibai onduan.

An dago iViren Garbia.
«Tene»-k oni otoitz eiten dio:
«Gaizkatu Euzkelerria».

Margoz dek txuri-gorria.
Apal, on, pare gabia;
Gogo ta biotz Jaunzale utsa,
Euzkeldun olerkaria.
Kaiola gertu duanarentzat
Uraxen bai dek txoria!

(E, 1917]

PERU TA MIREN SUTONDUAN

Miren'ek: —Ene Peru maitia,
Au dala bal lorra!
Edurra ta txingorra...
Au negu gogorra!
Odeiak baltzak...dagoz;
Ostotsak be orra,
Beren astrapalakaz
Dantzan dabil lurra.

Peru'k: —Etzaitez ikeratu,
Ene emazte Miren;
Bakigu orrek zelan
Izaten oi diren:
Sasoian sasoikua
Beti da onduen,
Udan beruak eta
Edurrak neguan.

Miren'ek: —Ikusten dan guztia
Lau ikaratan dau,
Ta etzara bildurtzen
Ori baiño geiau?
Eten bako ekiña
Dago egun ta gau:
Galduak gara olan
Jarraituten ba'dau.

Emen daukagulako
Epel ta eskutu.
Ortzea argituko dau,
Eduroko be urtu;
Bitartian ein daigun
Jaungoikua gurtu.

ren'ek: —Naiz-ta, ekin gaitegun
Eduro egiten,
Zuri eztautzu eze
Zirkun eraiten.
Eztaik olakua
Zelan izan leiten;
Zure kaxaza orrek
Nauko irikiten.

Peru'k: —Otza kentzeko bauku
Mukurra naikua;
Aberientzat, barriz,
Bedar igertua;
Zezin, urdai, lukainka,
Kaxan labartua...
Zeren bildur zara, ba,
Ene andratxua?

(E., 1917)

AZKOITI'KO «ADARKA»-RI

»Piñu-tzar» jauskerako poz dardakadiak
gexotuta kaban... sei egun aundiak.
Orrillaren batian mankau anka biak.
Gurendako bi egun gomutagarriak
bai-dauzka Muxika'ko Txindor elbarriak.

Gurenda ospatzeko txirrist egin naian
gogorik alaienaz zeguan garaian,
ezbiar gaitzak artu zuala mendian.
Baiña, uste baiño len, ala biarrian,
makulu biak utzi zitun baztarrian.

len makulu birekin nekez zebillena
ia sendaturikan dagolako dana:
emendikan sortzen zait nere ziñesmena.

Tamal artu zenduan, aizkide «Adarka»,
Muxika'ko Txindorra zauritu zala-ta;
maitasun origaitik eskarrak anelka,
ta iasai bizi..., laister buru, ego, anka
sendaturik, abesten alai jungo da-ta.

(E., 1917)

GURE TXOMIN

Aspaldiko gure Txomin
etorri dok etxera
guraso ta nebarrebak
Gabonez ikertzera.
Bixigu bi ta lebatza
gabon-mutil antzera,
ijuika ta ikotika
sartu dok eskatzera.

Eztok baiña gure Txomin
eskutsian etorri;
aitarentzat ekarri dauz
lau libra tabakorri,
amarentzat gozo-opillak,
jantzi politak guri.
Aupa, gora gure Txomin!
Aupa, ori dok **oril**

Apaldu ta gero egin
doguz egitekuak:
aita ta ama dantzan **dira**,
baita enparaukuak.
Ai, an ziran soñu abes
eta billintxikuak!
Zoraturik daukoz **gure**
Txomin aspaldikuak!

(E. D., 1917)

Onen txiki ta enaz geiago,
Ez. eskolara bigurtuko.
Ai, au tamala!, ezin bigurtu,
Ene amatxu il dalako.
Onen txatxar ta geratzen naz ez
Arako ta ez onako.
Ez eskolarik, ez amarik be,
Bietatik umezurtz nago.

Manu txikiren suteira jun naz
Ikasteko errementari,
Auspui erain, mailluaz tik-tak,
Emen nabil estu ta larri.
Letra bat eztot ezagututen,
Nago bazterren lotsagarri.
Urdailla, barriz, kurrun ta korron.
Ta soñeko loa ugari.

Zorioneko semiak dira
Ama onaz blzi diranak;
Ai, baiña niri betiko agur
Egin eustan ama laztanak!
Ain maite neban ikastolea
Ikaspide ta lagun onak,
Ene amatxu galdutiagaz
Batera galdu dodaz danak.

(E.D., 1917)

SASI-ESKOLA

Amak; —Ene seme gaiztotxuak,
aita yagok ona,
zein biar egin dozuen
jakin daunik ona!
Baztarren lotsagarriok,
or basorik baso,
sasi-eskola eginda
Ibil zare atzo,

atarako dauskun!

Pakun'ek: —Txibitotsa diñok, Peru?
Ez bakarrik ori.
Atabal- tanboliñak be...
joko dauskuz guri.

Peru'k eta

Pakun'ek: —Gaurko jaia ospatzeko
gure aita Praisku'k
Txakarro'ren zortzikoa
eragingo yauskuk.
Txilibitu-soiñuetan
arturik zartle,
a izango dok nagi barik...
dantzan eraitiel

Jaunarren, ez egin bein be
sasi-eskolarik,
bizi etzaitezen gero
tamalez beterrik.
Eskolara zoli-zoll
juan egunero,
euzkotar on jakintsuak
lzateko gero.

(E.D., 1917)

BETI EZTI GOZOTAN

«Belu-mendu»-k esanda jakin yuak lendi
Gaur bikoiztuko dala gure «Andutz-mendi».

Oilasko dotoriaz oillanda polita...
Zein bikoitz beglkoa alkarraz jarrita!

Miketu baiño lenau, ori bai-nekian,
«Andutz» sartuko zana gure kopradian.

Ondo etorri bada, neure lagun zarra;
Guztientzat etxagok emen leku txarra.

Iri nai dauat, barriz, tokirik onena,
Beti ezti gozotan eukiko auen.

Eure kutuntxu orraz nai beste urtlan,
Zoruntsu biziteko geure erri maitian.

(E., 1918)

AGUR, MIREN GARBIA, JABOIZU EUZKELERRIAI

Ortzean eztago Izarrik,
Ez baiatzean lorarik,
Iñiren, Zu baizen ederrik.
Sortu ta jaio, bizi eta il
Ziñean orban bagarik,
Jainkoak alan gurarik:
Ezin leiteke amarik
Izan Zu baiño obarik.

Buruan izarrak amabl
Ta oñazpian illargl
Jarten dautsoez Miren'i.
Edertasunen edertasuna,
Zorun guztien Iturri
Zarian Ama on orrl,
Geuk be loriak ugarl
Gura dautzuguz ekarrl.

Arg! guztlen argia,
Lore guztien loria,
Usaintsu bardin bagia,
Jakiturlen oxin sakona,
Ona baiño be obia,
Eskar guztien jabia
Zarian Miren garbia,
Jaboizu Euzkelerria!

(E.D.. 1918)

Orruaren durundia:
Esan legike amurruz jagi
Dala geiztoki guztia.

Al, ene ai!, Belgika, Belgika!
Otsuak dautzu aginka;
Zeure-zeuria zan artaldeko
Ardi ederrak aneika
Ondatu dautzuz, txabola aurreko
Esi guztiak ausita.

Zertako dira egiuniak
Ta gizon-itx on argiak,
Nausiak noz-nai apurtzekotan
Txikien eskubidiak?
Olan izanik, alperrik dagoz
Gizon arteko legiak.

Lieje ta Loubaine erre dabez,
Ontadu barriz Amberes;
Ama otzana zapaldu dabe,
Sendi gaxua negarrez...
Au ontzat daben uzkurtzaliak
Egiz deitu ete leikez?

Nor da, ba, Judas'en aizkidia?
Ukatzen dauna berbia.
Ezta orrentzat bide okerrik,
Indarra beren legia:
Diñodan onen ziñaldaria
Beljika errubagia.

«Ai, neure Ama brotzekua,
Atsekabez samindua!
Ez bildur izan. Orain arteko
Lanok ezpaira naikua
Zeu azkatzeko, ilgo da **Alberto**,
Au ba'da biarrekua.

«Jungo naiz zeure alde z aurrenen
Eta beste oro ondoren.
Gurago dogu ziñopak lez il
Zatiturik an-or-emen,
Plztitzar ori geure Amatzat
Artuko dogun baiño len».

Baneukaz milloi bat egazkarl
Eta sei milloi gudari,
Gaur bidalduko neuskioz pozik
Alberta bakaldunar!,
Etsaiak jaurti ta beren Ama
Azke dagiantzat jarri.

Beljika Jaunak eztau aitzuko,
Bere aizkide dalako;
Eskier nago jarriko daula
Azke len baizen ederto;
Euzkeldunok au ospatukogu.
Gora bakaldun Alberto!

(E., 1918)

AINZA BELJIKA GURGARRIARI, GORA ALBERTA BAKALDUNA

Udabarriak birrinduko dau
Negu ankerran ekatxa,
Ta azkatasundun bere eguzkiaz
Berbiztu zorun-baratza.

Orduan, goian, agertuko da
Uso txuri bat, abeska:
«Aintza Beljika erri gurenai,
Abertzale onoi aintza,
Etsai deungia jaurti ta lortu
Dozuelako garartza:
Oraintxe dator bake-pizkunde
Ta gorrotoen eiotza».

Abesti onek pozaren pozez
Ipiñlko nau didarka:
«Aintza Beljika gurgarriari!
Gora bakaldun AlbertaU

(E.,1918)

Doñua: Uso txuria, errazu...

Txiro ta itzalik giñian
argirik ez geunkanian;
argi guztien argia bera
gaur dago, baiña, gurian...
Gurtu daiguntzat, auzpaztu gaizan, ba,
Argi Deunaren aurrian,
Argi Deunaren aurrian.

Josu, aztuizu "Golgota»,
oben-garbaiaz nago-ta.
Ene guraso, emazte, sendi,
arima eta biotza
gaur dopaltzudaz Zeuretzat betiko,
zeure-zeuriak dira-ta,
zeure-zeuriak dira-ta.

Zu gure Aitia,
zorun-eskarrez betia...
Gauza guztien gain gurtzeko Zeu
ta gure erri maitia,
etxe txiro au egiz izan deilla
«Nazaret»-eko etxia,
«Nazaret»-eko etxia.

(E., 1921)

GORA EUZKERAI

Goiz eder alai dokuskunian
Eguzkiagaz ozkarbi,
Izaten dira bizirik diran
Geienentzako pozkarri;
Baina ondoren aze deungiak
Ekatxa ba'dai ekarri,
Len alai-alai ziran biotzak
Tamalez oi dira jarri.
Auxe berberau jazotzen yako
Euzkera maitaiariari.

Euzkerea da euzkeldunentzat
Ozkarbiko eguzkia,
Geure gogua, geure biotza,
Poz eta atsegin guztia;
Ekaitz deungla, gure artera
Sartu dan erdalkeria.
Jaso daigun, ba, ekaitz onen gain
Euzkera maitagarria.
Bestela, zelan esango dogu
Au dala Euzkelerria?

(E., 1921)

EGIZKO BIOTZ-LOREAK

**(Deba'ko «Tene»-ri, idazki ta olerkizko liburu bat argitara emon
ebala-ta)**

Udabarriak dagerskunian
Beren aurpegi alai argia,
Negu-lapurrak billoistu dauzan
Baso-baratzak poztuten dira.

Oneik dirautse: «Zuk orrillean
Emon zeuskuzan janzki ederrak,
Lotazillean kendu euskuzan
Zure areio negu ankerrak,

Udabarria, zu zaran ona,
Besteik ez lako aberats ori:
Soiñeko barri apaiñen orrek,
Barriro bere, jantzi danori!»

Biotz andidun Udabarriak
Janzteituz danok apain-apaiñik,
Guztiok alai jarten dirala
Pozez artiak artu eziñik.

Txoriak bere poztuten dira
Edertasun au berrikustian,
Poz au agertzen asten dirala
Txiroi-roka orri artian.

Edertasuna baiño besterik.

Udabarria ezkutatzen da...
Eta or dator Udeazkena,
Arpei baltzian dagerskularik
Beren barruko biotz zekena.

Nagusitara lagun arturik
Beragaz dakar ego-aizia,
Apur-apurka bellegitzeko
Zuri orlegi dagon guztia.

Azeri onek beren barrutik
Bidaltzen daben aize beroaz
Orri ta lorak zimeldu daustaz:
Bultza-bultzaka ortik daroaz.

Zabaidu dira baztar orotan,
Ezkutau dira betiko danak;
Orain «zazkarri» bakarrik dira
Len edertasun utsak ziranak.

Egizko biotz-loreak, baiña,
Margo bardiñaz uda ta negu,
Beti mardulik agertzen dira,
Lora-mueta danen eredu.

Maitasunezko putzak bultz einda,
Naiñun zabaltzen direalarik,
Biotz zindoak jarri oi dabez
Beti eurakin bizi gurarik.

Olako loraz ornidutako
Landaratxo bat baukogu Deba'n;
Goiko eskarraz jantzia zala
Antxiñatxutik ezautu geban.

Zein dan landara Goi-eskardunoi?
Zeintzuk zimeltzen eztiran lorak?
Landa ori da gure «Tene»,
Euzkel biotzdun emakume bat.

Erdi-erditik urten direnak.

«Tene» zindua Jaun-maitasunak
Olerkigiñan Ipini eban;
Idatzi ta zabaltzen be bai,
Nok ete daki zanbat direan?

Irakurleok bakigu, baiña,
Egizko biotz-lorak dirala;
Augaitik danak batu bioguz
Eta Txorta» bat ein beriala.

«Txorta» bikalñik bikaiñena ta
Eder gozua euzkeldunentzat,
Nagikeriaz aizkide diran
Giza-emien ikasbidetzat.

Au egiteko laguntasuna
Askok agindu ta emon dabe;
Baiña euzkeldun mordo galanta
Ezer ein barik dau ondiño be.

Ta nik dirautset olako gauzak,
Gero egiteko itxi bagarik,
Oraintxe bertan eitia baifio
Eztaguala gauza obarik.

Euzkel-endea bizirik dala
Naiñoz ta naiñun agertu dediñ,
Aupa, mutillak!, danok batera,
«rirra» gauzia esan ta egiñ.

(E., 1921)

URRETXINOLA BEREN EMAZTIAZ
(Imanol bere anaiaren ezkontzan)

Ozkarbi dago, aize biguna,
Poz<arrizkoa da gaurko eguna.
Biazteri'tik Urkiola'ko
Torrera egaz ein dot bejngoko.
Emen alairik
Nago begiok urten biarrik,
Gauza guztiak ikusi nairik.

Euzkelerriko mendi ta zelai,
Uri ta basetxe zuriak be bai,
Gutziz ederto agiri dira.
Pozez nagola eurei begira,
Oraintxe bertan
Ikusiten dot beko launetan
Burd bat berez ariñeketan.

Bide guztian arin ta errez
Beriala dator, txoria legezt...
Aldatz guztiak igaro ditu,
Ta burdi ori geratzen yaku,
Eta beinguan
Txori-aldriak eres-soiñuan
Afaes dagie bere inguruan:

«Goietan aintza ta beian gentza»
Ixilduge txori danak dabilta:
«Gorald du daigun Urkiola'ra
Gaur datorkigun urretxindorra,
Biotz guztiaz,
Datorrelako beren maitiaz
Bikoiztuteko uste betiaz».

Berebilletik urtetan dira
Txadon inguruko zelai andira;
Emen luzaro egon bagarik,
Txadonarantza datozalarik
Begira nago,
Ta dazaudaz bi jantzirik arro,
«Urretxiñola» ta «Biregarro».

Onein erdian uso polit bi
Dakustaz garbiro, apain egoki.
Gotzon antzeko jaupari gazte
Gurgarri bat an aurkezten yake;
Ta danak beraz
Deun Andoni'ren aurrera duaz,
Au gurtutzeko asmo senduaz.

Gotzon-aldreaz datorreiarik,
Imanol'eri ta Balendin'eri
Andoni Deunak esaten dautse:
«Neuk onetsiko zaituet ointxe,
Biotz oneko
Maite biokin bat egiteko
Oraintxe bertan, bein ta betiko.

«Onek senarra, zuk emaztia,
Maiteko dozue batak-bestia.
Maitekozue zeuen Jainkoa,
Maitekozue lagun urkoa,
Kistar antzian,
Beti euzkera garbi utsian
Bizkaia zeuen erri maitian».

Ezkon-buztarri astuna da-ta,
Askorentzat oi da eruan-gatxa;
Baiña batzuntzat ariña oi da,
Eta zuentzat arin ori da,
Zorun-baratzan
Beti alairik bizi zaiteezan
Udabarriko txorien gixan.

Urtzi'k jantziko dau baratz orl
Aingeru lorakaz zeuen pozkarri;
Zuek arduraz zainduta gero,
Jaun-usain gozoz euzkel lur oro,
Dagon kiratsa
Jaurtirik urrin, Ebroz arantza,
Izan daizuen zorian utsa».

Auxe bai dala egun alaia!
 Zorioneko da gure anaia,
 Balentintxu lagun dabela!
 Beti zoruatsu biziko dala
 Deuna'ren itzak
 Egiz opaltzen dodaz zeuentzat,
 Neure maitasun ezaugarritzat.

(E., 1921)

ZORIONAK

Urrutizkiñik bereziena,
 Daukot Jaun batek emona,
 Ludiko alde guztietara
 Errez itz-ein daikedana,
 Euzkel anaiel zorun opazko
 Agurrik maitekorrena
 Gabon jaietan bialduteko
 Tramankulurik onena.

Onen Jaube da Jaube bakarra,
 Jaube Gurgarri on utsa,
 Belen Urian abere askan
 Daguan Ume billosa,
 Guztia Aldaben gure Gaizkille
 Josu Jaun Goiko Bildotsa.
 —Eta urrutizkin berezi ori?
 —Josu'k emoustan biotza.

Biotz onexek oraintxe bertan
 Itz eingo dau ta zain egon;
 Ez dodalako euzkel anaiel
 Gauza oberik zer emon:
 Maite-maiteak zaituet eta
 Josu'ri eskatu neutson
 Beti Jaun-aidez... bemoizuela
 Osasun eta zorion.

[E., 1922]

**Irugarren txorta
(1923-1932)**

AI, ZE EDERRA!

(1924'garreanean Gure Herria'k egiñiko olerki-batz
txukunez sariztua).

Zein ederra dan bere aldian
Itxaso zabal bardinbagia
Beren sendiaz jolasten alai
Dabillanian uren amla,
Janzki urdifez apain jantzlrak
Dagualarik ortze argia,
Aintzaz ta gentzaz direanian
Poz-atsegiñez goia ta bela.

Egurastoki zabal aretan
Laterri oron ordezkarak
Zantzoka dabil eresotsian,
Kedats-opaltzen lurrin ontziak,
Txalupatxuak arturik baita
Bular zabaldun arrantzaliak
Gelduta danok jarten gauzala
Bere edertasun bardin-bagiak,

Ortze ta Itxaso blarte beste
Sendi zital bat bizl da, baifia,
Iñoren gentza nundik galduko
Beste zereiñik eztabillena;
Asmetan dau, ba, jai biurril **bat**
Berialaxe galduko dauna
Ludi guztia gelduten daben
Itxasuaren edertasuna.

Udeiak dantzan gaudi guztian;
Itxas-umiak ikusi naiaz,
Ortzadar zear une batian
Igon nai dabe an ibilteko
Biurriakin goiko nastian.

Amak ezetz ta umiak baietz,
Asarraturik ezta-baidian,
Arroputz eiñik, orrua baten,
Bata-bestia jan biarrian,
Baztar guztiak ausi nairik lez,
Batzuk igonlk ortzadarrian,
Ekatxagaz bat eginda dabiz
Jira-biraka goi zabalian.

Ekaitz malmutzak erabillirik
Tximista lez atzera-aurrera,
Zorabiauta jarri ondoren
Botaten ditu goitik lurrera,
Galdu-gordian biiin-bolaka
Baso ta mendi-arruak bera:
Ibaietatik barriro duaz
Basaz beterik itxas-ertzera.

Euren amagaz bat ein nai dabe;
Ameak, baiña, esaten dautse:
«Etzaituet nai ekaitz usaindun
Janzki zikiñok garbitu arte;
Garbia nintzan, garbirik nago,
Beti garbirik iraun nai neuke,
Eta nigaz bat ein nal dabenak
Betoiz soiñeko loiak kenduta».

Amaren itzok ontzat arturik,
Garbitzen asten dira beinguan...
Apur-apurka garbitu dira,
Eta garbitu diran orduan
Amak barriro artuten ditu
Maite-maiterik altzo barruan,
Beren egizko edertasunaz
Geratzen dala lengo moduan,

Oi, zein ederra dan itxasua,
Zein ederra dan... bare aldian!
Zein ederra zan Euskalerria
Bere buruen jaube zanian!
Erri maite au, Erri gaxo au!!
Noz jarriko da lengo senian?
—Jainko-lagia zuzen gorderik
Euskeldunduten garianian.

(1924)

«GURE HERRIA»-RI AGUR!

Gazteak beti dabilta lerdan,
Baiña zaarrak ez, ordia...
Ni ere orain nakuselarik
Zaarren bidean jarria,
Bialdu dauste bide laguntzat
Makilla txukun berria.
Gamutaki au pozez artzen dot...
Ivilesker, «Gure Herria»!

(1924-X-1)

EUZKERA MAR TAGARRIA

Geure asaba zarren odola
Daukagun arte zanetan,
Agertu daigun euzkeldun antza
Geure arazo danetan;
Euzkera zarra egarriz ito
Ez dein legorte onetan,
Egarri ori ase daigun
Maite ba'dogu benetan.

Itzak bakarrik indarge dira
Egipenak ziñaldar!,
Nor zelako dan bere egipenak
Erakusten dabe argi.
Euzkeldun- batek Euzkelerrlan
Bere erderaz ba'dabil,
Alperrik esan «soy vascongado»
Erdeldun utsa da Qñ.

Baiña ienengo geuria.
Izkuntza danak gurgarri dira,
Autortu nai dot egia;
Geuretzat, baiña, gurgarriena
Euzkera maitagarria.

(E., 1926)

ESKERRIK ASKO

Neure ama on maite zanaren
Eriotzia dala-ta,
Niganatu da tamal-agurdun
idazki pillo galanta.
Guztiei banan erantzuteko
Asko-askoak dira-ta,
Izneurtu bidez darantzutzueta:
«Danoi eskerrak aneika».

Nik uste neban beste iñok baiño
Maitiago nebala ama...
Baino beste bat agertu yako
Askoz maitiau ebana.
Bere-berea eban, ta Berak
Eruan daust Beragana!
Egin bedi. ba, orain ta beti,
Urtzi Deunak nal dauana.

(E., 1926)

LUDI ZOROA

Ludiak arin ibilli nal dau
Arrapalada utsian,
Egaizkiñez ta beibillez ta abar,
Alde guztiak betian,
Jainko-bidetik oiñez duana
Utzirlik zorl latzian.
Al, baiña danak ikusten dira
Geldirotzen aldatzian!

Eragozpenen azpian,
Ta alperrik dala guk Jarraitzla
Atsegin utsen atzian;
Zorun osorik ez dagolako
Donokiratu artlan.

(E, 1926)

«ZIDORRA»-RI

Arl batetik dIngilizka **dan**
Ludiko gure bizitza,
Eriotziak Goi-baimenen zain
Gertu korañe zorrotza;
Jaunak «txist» eiten dautson **unlan**
«Txirrist»... ebagiten dautsa.
Zeln zori ona une aretan
Garbi daukanak biotza!

Donoki goira dagon **bldia**
Estu-estu da oso,
Aldapatsua eta, ganera,
Bertan eragozpen asko.
Baiña bideoi elbururairño
Jarraitzen dabenentzako
Zorun utsezko «Txalai» guren **bat**
Jaunak Izentaurik dauko.

Nire amaxuk, Jaun-maltasunez,
Bideoi aldapa-gora
Uste dot zuzen jarraitu **daula**
Arturik neke gogorra.
Urtzi'k beria eban ta **Berak**
Deitu dau bere ondora.
Egin bedl, ba, Jaunaren **naia**.
Eskerrik asko, «Zidorra».

(E., 1926)

BELÉN URIAN

Belen urian agertu yaku
Josu Jaungoiko-Umia,
Irudiz txiro, baiña izatez
Aberats amai bagia,
Bakaldun guren Alguztiduna
Zeru ta lurren Jaubia.
Berau gurtu ta otoi eiteko
Eldu naz Belen urira:
Gosez diranak asetuteko
Berau da Gotzon-Ogia,
Egarriz diran guztientzako
Berau Zorun-Iturria.

Gexo ta txiro diranentzako
Osasuna ta Urria,
Biotz garbidun ongillentzako
Sari gurenen Saria...
Josu on orrek entzun arren, ba,
Dagitzudan eskaria!
Biotz garbidun ongillak asko
Euzko-abendan bai-dira.
Sariztu eurak eta eurokin
Zorundu Euzkelerria,
Egunen baten izan dedintzat
Osuan Zeure-Zeuria!!

(E., 1928)

GOIKO BIDETIK

(Landajuela Pillipa txau neskindariari)

Bizi iaguntzat gazte polit bat,
Maiteko zaitun maitena,
Nun aurkituko ete zeukian
Darabilzu oldozmena;
Bakez ta pozez bizitzekotan,
Au ei da zeure naimena...
Berau lortzeko jakin nal zeunke
Zein baldintza dan onena.

Berakin izan zeinke bizitza
Bakez ta pozez betia.

(E., 1928)

ZORION-OPEA

(Bere seme Balendin'i, onek 21 urte egitean)

Negu ondoren udea dabil,
Gauaren jarrai eguna...
Orrillan egun-senti ederra
Berez da gozo biguna,
Maitasunezko biotz garbiak
Pozez betetan dituna.
Argi gurena goietan dago,
Be ontan barriz illuna.
Illunak dakar ituna...
Beko gauzai lar begiratziaz
Galdu eztaigun zentzuna,
Begiak goruntz jaso daiguzan,
Goian daulako Zoruna.

(E., 1927)

AGUR, SABIN!

(Bere semea)

Dei egin dautzue-ta,
Gaur zoaz gudari,
Itxasoz ibilteko,
Seme maite ori!

Etxeko geure poza
Zeu ziñian, baiña,
Zeugaz daruaskuzu
Gure atsegiña.

Gauzak datozan eran
Artu biar dira...
Zoziaz, ta bizl betl
Urtzi'ren begira.

Alguztidunak beren
Lagi-jagolari
Aldioro damotsez
Eskarrak ugari.

Euzkeldun zarala
Ez iñoz be aztu;
Zuzen jokatu eta
Txarrakin ez nastu.

Izan nai ba'dozu, ba,
Zorionekua,
Zintzo jarraitu beti,
Ene semetxua!

Oitura on garbiak
Itzez ta egitez,
Goikoak nal dauzala
Gogoratu zaitez.

Osasunez jua ta
Zorunez etorri...
Olantxe dopaltzugu,
Sablñ maite orri.

(E., 1928)

LENENGO JAUNARTZE-EGUNIAN

(Neure loba Enbeita'tar Joseba Imanoltxu'ri)

Poz-atsegiñez dagoz zeruak,
Pozarren lior, itxaso...
Alaitasunez beterik dagoz
Senidek eta guraso;
Gotzonak, barriz, gura zaituez
Donokiragiño jaso:
Goi-beietako Jaunai ostatu
Gaur emon dautsozulako.

Josu-Biotzak umiak nai dauz,
Josu'k maite dauz umiak.
"Betoz umiak Nigana» diño
Geure Jaun eta Jaubiak;
Gura dauz biotz samur eztitu
Garraztasunik bagiak.
Zoakioz, ba, galdu etzaizan
Txerren, Ludi ta Aragiak.

Ta beste gauza guztiak.
Guzti oneikin jabetukoira
Kistar on, biotz garbiak.
Eskatu Neuri zer gurozuen,
Unnetxu maitagarriak.

«Gose ba'zara, eskatu Neuri;
Neu naz, ba, Gotzon-Ogia.
Egarri dana betor Neugana,
Neu naz ur gozo, garbia.
Gexo ba'zagoz, ez bildur izan,
Nerau naz osagarria.
Eskatu ta emongotzuet
Biar dozuen guztia».

* *

—Agur, Josu-Gorputza,
Gotzon-Ogi Deuna,
Zeure Biotz Donian
Maite be maite nozuna.

* *

Orain, gero eta beti,
Zorun ugariak
Opa dautzuz biotzez
Zure osabiak.

(E., 1928)

KARMEN'GO AMARI

(Goizero egiten eban otoia)

Karmen'go Ama Maria,
Amatxo maitagarria,
Egizu, arren, izan nadilla
Ni zeure-zeuria,
Geruago ta obia,
Gorderik Jainko-legla,
Elbururaino jarraitu daidan
Zeruko bidia.

Zaindu nagizu ludian
Izango nazan aldian,
Gero be zeukin bizi nadintzat
Zoruntsu or goian;
Urtzi'k onetsi nagian
Zorun guztien erdlan,
Gero be zeukin azken zoruntsu
Pozkidaz or goian.

(1928)

JESUS'EN BIOTZARI

Jesus laztan gozo,
maitale nagusi,
Zeukin gaurtik aurrera
Gura dot bizi.
Zeu zara bai neure
pozezko bizitza,
Zeuri damotzut, ba,
neure biotza,
Zeuri, ene Jesus,
neure biotza!

(1928)

GOROZIKA'KO ANDRA MARIA'RI

Agur, Andra Maria,
Ama guztiz garbia;
ospatu nai dogu
zure jaiotz eguna,
Ama guztiz biguna.

pozarren gagoz,
Zeuri agur
egip naian.
Gorozika'ko
txadonian
Zeure jaiotz
egunian.

(1928)

EGIATAR PANTZESKA

(«Patxiko», G. B.)

Ezerezetik asiera ta
ezerezian amaia.
Igerri barik, beinguan dua
ludiko gure aldia.
Aldi laburra, baiña, benetan
aldi onuragarria...
Zuzen jarraitzen dabenentzako
zeruko bultzi-bidia.

Ni oien gaxo nengularik,
Usansolo'tik «Patxiko»,
ludi zoroai agur egiñik,
ezkutau ziñan betiko.
Maitati utsa ziñan gizona,
euzkeldun biotz andiko.
Ene osaba biotzekuoi,
etzaitut aitzuta itxiko.

Zeure aldian ein zendun ainbat
errukizko egikera:
txiro-gaxorik agertzen ba'zan
eskian zuen etxera,
zeuretzat zeunkan bazkaritik be,
otoi egiñaz batera,
sarri bialdu izango zeuntsen
alabatxuaz atera.

Eguneroko neure otoiak
egiten ditudanian,
alztu bagarik beti eukiko
zaitudaz gogamenian.
Geidearentzat ain errukorra
ziñean ori ludian,
Jaunak errukiz bere semetzat
artu zagizan an Goian.
Olantxe!

(E., 1927)

AGUR, GARMENDIA!

Sara'n bizi ziñean
euskeldun garbia,
jatorriz napar zintzo,
zaldun gurgarria.
Euskera ta Uzkurtza
zan zure legia,
maite zendualarik egiz aberria.

Jarraitzen zendulako
donoki-bidia,
Jaunak gorde zaizala,
ene aizkidia.
Zeugaz daruastazu
biotzik erdia.
Agur, ba; «gero arte»
Agur, Garmendia!

(E., 1928)

«KIRIKIÑO»-RI

(Zartzaroan Mañari'ratu zalako)

Malte be maite zaitudan ori...
Gazte nintzandik asita,
Nlre biotza zureaz dago
Maitasun-ariz josita.
Igandean zuk bialdu zeuskun
Agur samurra ikusita,
Mañari'raiño jarraitu dautzut,
Zeu bariK ezin bizita:
Gaurtik bat einda jarri biarko
Mañari eta Muxika.

Euzkeldunakin erderaz eiten
i-tzaitut iñoz ikusi;
Arazuetan bardin euzkeraz
Naiz itz egin naiz idatzi;
Euzkera ta zu, ama-semiok,
Alkarrekin beti-beti...
Euzkeldun andi-naiko ugarik
Bauko zугan zer ikasi.

Orrenbeste lan egin ondoren
Biar zendun atsedena;
Orretarako zeuk autu dozun
Mañari dozu onena.
Zeuri dopaltzut aldi luzeko
Zorun-bizitzaik maiteena;
Ordezkoari, Goi-maitasunez,
Lan egitekc kemena;
Saritzat, barriz, betiko aintza.
Auxe da nire naimena.

(E., 1928)

BATASUNA

Egizko maitasunak
sortzen dau batasuna,
batahunak indarra,
indarrak osasuna.

Osasun indartsuak
beragaz dau kemena,
arerio malmutza
menpetu al dabena.

Ona gu euzkeldunok
batzeko zegaitia,
zorundu nai ba'dogu
Euzkelerrl maitia.

Jaunari otoi egin
anaieri besarka...
berezkerizko kezakak
bertan-bera laga-ta.

Amaren biotzeko
semiok alkarrekin
laztandurik, lanari
biar dautsogu ekin.

Egizko bide auxe
jarraitu biar dogu,
danontzat zoriona
gura ba'dogu lortu.

(E., 1928)

LORTU EIGUZU

Argia noz juango
Zain dago illuna;
Gau baltzaren ondoren
Yatorku eguna.
Oi, zenbat maitatzen dan
Maite dan Kutuna!
Osuan indartsua da
Blotz-maitasuna.

Naiz izan oñestuak,
Naiz izan ostotsak,
Naiz euri, txingor, edur,
Negutar ekatxak,
Jaun-maitasun zintzua
Ba'dauko biotzak,
Biotz au artu geinke...
Euzko-eredutzat.

Uste dogun lez Goian ba'zagoz,
Arana-Sabin aundia,
Lortu eiguzu Jaungua'gandik
Adimeneko argia,
Ezagutzeko, ezpai bagerik,
Zein dan bidezko egia,
Egizko bide zuzenez maite
Daiguntzat Euzkel-erria.

(Euzkerea, 1929)

EUSKAL EGUNA

Sorkaldeko euzkiak jaurtirik illuna,
Arpei alaiaz dator gaur Euskal-Eguna;
Zumarraga'ra juan, anai euzkelduna,
Besarkatu ama zar Euzkera kutuna
Eta zintzoro bete zeure bearkuna.

Ezagun dira egiz maite direanak,
Batera dabiltz euren itzak eta lanak;
Seme biotzekoak maite dituz amak,
Baiña semiak ama... ete dabe danak?
Ziñaldari onenak dira egipenak.

Ama euzkerearen seme «nagusiak»..
Egizko euzkeltzale nañiun ikustiak
Nagusiei jarrai-guraz anaia «txikiak»...
Bata-bestien leian zar eta gaztiak,
Euzkeldun litzatekez orduan guztiak.

Goguan fzan beti Urtzi'ren legia,
Iñoren gauzak utzi..., zaindu norperia;
Maite biotz-biotzez izan Euzkeria,
Emonik egipenez osasun bidia.
Au egin ezik, beste gauzak alper dia

(E., 1929)

ETA JAUNGUAREN BESUETAN IL ZAN

Biotz andiko gudaiburua,
Zintzo be zintzo lanian,
Alde danetan beti kementsu
Jarraitu ondorenia,
Gaztelu sendoz inguraturik
Daguan erdi-unian
Alguztidunak besarkaturik
Jarri dau atsedenia.
Or dau ainbeste maite genduan
«Kirikiño»-ren gorpua,
Aitaren seme zintzorik ba'zan
Zintzoenatarikua,
Euzkerea eta Uskurtz-aldezko
Langille nagi-bakua,
Pantzeskatarren jantzi latzagaz
Deun baten irudikua.
Il zarala-ta zotinka dagoz
Zure aizkide guztiak.
Il zariala...? Lo zagoz, ba, ta!
Lo dagoz zure begiak!

Ilda gero be bizi-antzian
Zaukoz Jaun-Goiko aundiak,
Zintzua izaten ikasi daian
Zeugandik Euzkel-erriak.
Deunen bizitza ein zendun-eta
Eriotza be deunena;
Zeure bakezko lo gozua da
Ezaugarrik onena.
Aita-Goikuak neke-saritzat
Bemotzu sari gurena.
Zeure gomuta beti izan da
Geugaz Iraungo dabena,

Batuko garan ustiak.
Artian zintzo bete daiguzan
Geure biarkun guztiak,
Egunen baten argi-ein daiskun
Betiko zorun-euzkiak.

(Euzkerea, 1929)

ZIDAR-EZTEGU-EGUNIAN

(Barrena, Polikarpa, ene adizkide on maitla

Eunkida-lauren gazte azkerik;
buztarriz beste ainbeste:
maitia, zure jaube nintzala
gaur ogei eta bost urte.

Aldi luze au labur eretxiz
igazi yaku gaur arte,
Jaunai eskarrak beti euzkeldun
egizko senar-emazte,
sendi ederren aita eta ama
biotzez gordin zar-gazte.

Ordu onian artu genduan
guk biok ezkon-buztarria,
maite-maiterik eruateko
lagun egiñik alkarri.

Bideko sasi-arantza miñak
gozatuteko pozkarri,
aingeru-lora polit-ederrak
Goitik... deuskuez ekarri:
zorioneko gara gu biok,
eskarrak Goiko Jaunari.

(Euzkerea, 1929)

Beti geure onduan dabiltz izate bl,
Oik dira zintzotasun eta nagikeri;
Batzuk jarraitzekoitse lenbizikuari,
Bestetzuk bigarrenai euren ondagarri.

Zintzuak jarraitzen dau maiteki lanian
Nekiak eskiñirik Jaunaren izenian,
Nagia zurrutera dua geienian,
Artarako txanponik aurkitzen daunian.

Zintzua ez dau lanak bein bere aspertzen,
Beti dabil maiteki etxia txukuntzen;
Nagla gauz oiekin ezta oroitutzen,
Bere nagikeriak daulako nazkatzen.

Zintzuak lan eiten dau ta egin-erazi,
Oraingo ta geroko... lanez irabazl.
Etxian danak maite diralarik bizl;
Nagiak, baiña, lanik ezin dau ikusi.

Zintzua ez dau lanak bien bere aspertzen,
Uri ta baserri, aran, mendi, baso,
Betl bide zuzenez lana etxerako
Egiñaz bizi dlra zorlontsu oso.

Euzkel-erri laztana, euzkoen etxia!
Etxe-zale zintzua... Jaunaren maitia,
Berton izan daiguntzat poza ta bakia
Ama Euzkereari... zabaldu atia.

(Euzkerea, 1929)

ONGILLEI ESKARRA

(Gexoaldian lagundu eutsoelako)

Maltasunezko itz bereziak
Txindor gaxuak nai ditu.
Ongillei neurritz eskartuteko:
Ezin dauz. baiña, aurkitu.

Billa ta billa Dabillalarik,
Entzun dau Goiko abotsa:
«ltz berezirik eztozu biar,
Onena dozu biotza».

«Zeure biotzoi betor goirantza
Egazkadatxu batian,
Urtzi'k eskarrez jantzi daiantzat
Josu'ren Biotz maitian.

«Alguztidunai dopaltsozula
Biotz orixe osuan,
Ordez ongillak jarri daizuzan
Zorun-bizitza gozuan».

Or yuatzu, ba, zeuria da-ta,
Or nire biotz osua,
Ene ongillak izan daientzat
Zorion oso gozua.

(Euzkerea, 1929)

BIKOITZ BEGKOA

**(Arrospide'tar Jon Mari ta Ugalde'tar Miren'i, euren
ezkontz-egunean)**

Jon'ek: —Sortaldetik datorren
Eguzki argiak,
Pozez zabaltzen dituz
Udako loriak.
Nere biotz au maite
Baten aurpegiak,
Biotzakin gogua
Eta begi biak,
Osuan daramazkit...
Mirentxu neriak.

Beti nere maiteaz...
Nor dan maite ori?
Jon Mari begikua...
Bere maitea ni!

Oleskariak: —Lore polit ederrak
Diran baratzen,
Atsegin izaten da
Bertara eltzian.
Euzko-baratza bitan
—Egimen utsian—
Sortutako bi lora,
Lorontzi batian
Jartiaz, asmatzen det
Poza biotzian.
Baiñan zireanakin
Fgiñik bikoitza,
Sorturik loretegi
Maitagarri utsa,
Ugaritzen bai dala
Euzkeldun baratza!
Onen usain gozuak
Ipiñiko dautsa
Ama Euzkereari
Poz-pozez biotza.

Bikoitz bikain begiko,
Urtzi maitalari,
Goitar iruntz gozotan
Azitakuari,
Gotzonak etorririk
Jaunaren geznari,
Damotsez goi-eskardun
Bezuzak ugari:
Zoruntsu izateko
Miren ta Jon Mari.
Nik, egiz, dopaltzuet
Orixo berori.

(E., 1929]

(«Inekua» **zintzuari**)

«Negu gorrian billoxik dagon
Zugatzak nai dau orrilla;
Maitale batek bere maitia
Nai dau lagun ta ongilla.
Nire maitia Euzkerea da,
Beti nabi! bere billa:
Nai dodalarlk aldi orotan
Neurekin izan dedilla.

«Neure maitia nundikua dan,
Noz ta nogandik sortua,
Jakín-nai onek damost aspaldi
Buru-austerik naikua.
Bakarrik dakit dala antxinako
Garbienetarikua,
Euzkel-erria baita beretzat
Jaunak emutsan lekua.

«Anboto'k bere oiñetan daukoz
Abadiño ta Mañarl;
Onek altzuan pozez daukozan
Urian Jalo nintzan ni.
Url euzkeldun alal begiko
Garbi jaungoikoti oni
Neure biotza opaldu neutsan
Txiki-txikia nintzandi.

«Uri kutunoi, arpeiz-arpegi
Begitzen neutzun lenago;
Baiña sartu zan erdalkeria
Geruago ta geiago.
Onek tamalez eraso eustan:
Au ezta lengo Durango!!
Eta ordutik, bira emonik,
Mendira beglra nago.

«Mendi-gañetik ikusten **dira**
Zugazti, landa, zelaiak,
Basetxe zuri, baratza eder,
Errekak eta ibaiak;
Mendian dagoz eguzki argi
Ta aize osasungarriak,
Euzko-biotzak atsegintzeko
Iñun baiño be obiak.

«Txoriak euren abes **ederrez**
Baso ta mendi goi ta be.
Zekor, bei ta txal, bior ta **moxal**,
Ardi ta bildots baita be,
Euren arran ta txilin-soiñuan
Orrua, irrintzi, be ta be,
Ludian danik eresi-soiñu
Ederrena sortzen dabe.

«Iñora baiño len agertzen da
Eguzkia be mendira;
Txori-abesti eztitsuenak
Mendian entzuten dira:
Euzkera zarra mendian dago
Jaungoikuari begira,
Bere erruki zain noz biurtuko
Barriro bere tokira.

«Udabarriak bialtzen daun **lez**
Bultz-eglfñik negu baltza,
Zugatz billoxak orriz jantzi ta
Loraz apaindu baratza,
Erdelkeriak zikindu daben
Aberriaren biotza
Garbitu eta loraz janzteko
Noz elduko da laguntza?...
Berialaxe usteltzen dan **lez**
Arima bako gorputza,
Euzkel-erria be ilqo lltzake
Euzkerea ilgo ba'litza».
—Astarloa, ez bildurrik izan,
Etsaiak alper dabilta...
Euzkeltzaliok garbltukogu
Zuk dirauskuzun biotza.

Gaurtik, jezarrita naiz etzunda,
Lo egin zeinke... guraiña.

CEuzkerea, 1929]

GABON!

Urtiak daun egunik ospetsuena,
Euzkel-errian beintzat, Gabon eguna!
Oldozmenez beterik jarten gaituna,
Zorioneko Gabon, Gabon kutuna!!

Mangutsik, dinbi-danba, aizkorotsian,
Mukur txikitzen gogor dabiz, ertzian.
Montorrak eiten dabez eskaratzian,
Afari-gertetako gaur arratsian.

Šukaldiak berorik goruntza keia,
Tellatutik ortzirantz pozkiro doia,
Goitarrai esan nairik: «Gabon alaia
Ospatzeko bai-dabil etxekandria».

Seme-alabak batoz jaiotetxera...
Gurasoak urtetan dautse atera,
Besarkatzen dirala kistar antzera,
Gabon ospatuteko danak batera.

Aspaldi kanpotik zan senar maitia
Noz elduko zain dago bere emaztia.
Eldu da, ta kaxk, kaxk, kaxk jo dau atia,
Ospatuteko Gabon pozez betia.

Entzuten dira soiñu pozkarizkuak,
Dunbadak, oiu, zantzu eta txistuak...
Maian jaki, edaki guztitaikuak,
Gabon ospatuteko gertaurikuak.

Biztoki biko etxe zabal batian
Sendi bi bizi dira bake-bakian:
Alde baten aberats bat, ta bestian
Umedun alarguna ezerezian.

Umetxuak amari esaten dautse:
"Etxe onian bauke nai zenbat gauze;
Diñue: **Gabon bonbon, ase ta bete.**
Arelk dana ganezka... Gu, barriz, gose».

—«Ene kutuntxuok, gaur ez ein negarrik...
Etzarie lotuko ezer bagarik.
Ez dauku bixijurik, ez oriorik;
Baiña taluak janguz bero-berorik.

«Lenengo, baiña, goruntz jaso biotzak,
Zeruratu daitezan gure otoitzak:
Belen'erantz begira otoi bakoltzak,
Onetsi gaizan andik Josu on utsak».

Belen-aurrian... gogoz, ama ta ume,
Belaunbiko, Agurtza otoizten dabe,
Sendi Deunaren aintzaz, gokaxo alde,
Kistar zintzoen eraz nagirik bage.

Otoi beruak egin ondorenian,
Zutundu eta bira ein dabenian,
Mutiko bat dakuse aldamenian...
ta otzara betia naian ganian.

Mutikuak dirautso alargunari:
«Josu'ren izenian Amatzok neri
Emon daust bezuzadun otzara ori,
Danok egin daizuen Gabon-afari».

Mutikuai dirautso, samur, maitetsu;
«Amatzori millesker... esan eiozu».
Ta beren seme-zurtzei egiñik mosu,
Dino: «Errukitu da gurekin Josu!
Poztu, ba, enetxuok, poztu bai poztu!»

Urtiak daun egunik ospetsuena,
Euzkel-errian beintzat, Gafaon eguna,
Oldozmenez beterik jarten gaituna...
Zorioneko gabon, Gabon kutuna!

(E., 1930)

«Or konpon zeuek, guk ez du ba nai,
Geuria bakarrik baiño;
Zuek zeuenaz, ta gu geuriaz».
Edestiak alan diño.

«Jakin egizu nogaz zabiltzan,
Jakin egizu, arrotza,
Biguna eta gogorra dala
Euzkotarraren biotza.
Gurenda-ikutzat ipinten dogu
Gaur Deun Ander'en Kurutza.
Au zapaldu nai daben edonok
Artuko dau eriotza».

Arek ziran, bai- erri-zaliak!
Arexek, bai, kistar onak!
Gurendearen ikurtzat muga
Kurutza jarri ebenak!
Onegaz beti betu ebezan
Areiorik gogorrenak:
Ikasbidia bai-dauko ennen
Ikasi gura dabenak.

Aupa, mutillak! Itxartu, jagi!
Guazen danok gudara!!
Lenauko gure asabak legez
Benetakuak ba'gara,
Suizkilluakaz alkar ilteko?
Ez, olakorik, ez!... Ara:
Gure izkilluak izango dira
Kurutzia ta Euzkera.

Kurutziagaz birrindukoguz
Diabruaren sariak,
Euzkeriagaz gure artian
Dabiltzan eldalkeriak.
Jaun-bidez zuzen jarraitu ba'dai
Gaztedi maitagarriak,
Egizko buru-jaubetasuna
Laster dau Euzkel-erriak.

Aratu egal guztiak,
Garbituteko bcin ta betiko
tuzkel-erriko nastiak.
Garaille urten daigun, beturik
Etsaien gudaroztiak.

(E., 1930)

«EUSKALTZALEAK» ETA EMAKUMEA

Jainkuak nai dau
itz egin daigula
guzti-guztiok
bakotxak beren izkeraz;
Doitxe'n doitzera
egiten dabe
len eta orain,
baita Pantze'n be pantzeraz;
Gaztela'n, barriz,
erderaz beti,
beti erderaz...
Guk zegaitik ez euzkeraz,
bardin bagako
gure ele garbi
onek ezpadau
zer ikusirik bestegaz?

Euzkotar onok
biotz-biotzez
euzkera maite
daigula Jaunak gura dau,
goi-maitasunez
berau indartzen
alegindurik
uda, negu, egun ta gau.
«Euskaltzaleak»
bazkun zintzoak
au lortuteko
asmo eder bat artu dau
berau aurrera
eruateko,
baiña, guztion
laguntasuna biar dau.

Euzkel-errian
bai-doguz ba gaur
biotz oneko
ainbat euzkotar jaupari,
Gora euzkera!
didar egiten
alaitasunez
ibiltan diranak sarri.
Onek guztiok
Urtzi'ren bidez
etorkoira-ta
eurok bestiak ekarriko dabez
Euzkel-errian
euzkera eta
Uzkurtza'n alde
iagunduteko alkarri.

Arlmatxua
galdu ezkeru,
eztau balio
ezertxu bere gorputzak.
Euzkera garbi
geuria barik
Euskal-errian
zer egin daike Uzkurtzak?
Oidozmen onen
gogapenagaz
iaupari jaunoi
zer dirautzue biotzak?
Alguztidunak
gura dabena
ez dau egingo
zuetariko bakoitzak?

Ez dago emen
andi-txikirik,
zuri ez baltzik,
ez dago «politikarik»;
biotz oneko
euzkotar orok
euzkeran alde
egitia da bakarrik.
Ez daigun iñok
ostikopetu,
ezegaitik be,
Jaun-Goikoaren gurarik!
Euzkeltzaletu
gaitezen, bada,
guzti-guztiok
iñor be geratu barik.

Emakumiak
zori txarrian
oben baltzagaz
illundu eban ludia.
Emakumiak
zorioneko
Garbitasunaz
biurtu eutsan Argia.
Emakumiak
arrokerizko
erdalkeriaz
ioitu daun Euzkel-erria
Euzkereagaz
garbitu eta
zoriontzeko
biar da emakumia!...

(E., 1930)

IZARO

Izaro ugartea,
Izaro, Izaro!
Laida'tik ur-urrian,
luzaro, luzaro,
itxasoen altzuan
azke ta gozaro,
iñoiz gogaitu barik
beti antxe dago.

Urtiak igaro ta
urtiak igaro,
ez zaartu, ez gaztetu,
sen batian dago,
zirkiñik egin barik...
arau ez onago.
Gaurko gizonok baiño
zerbait sendago!

Goian zerua eta
beian itxasoa,
onek damotsolarik
besarka gozoa;
bera da ugazaba,
bera gurasoa,
beti azke bizi dan
zorionekoa.

An dago gau ta egun
begira Laida'ri,
baita udan Laida'ra
duazan danari:
bera da jagolia,
bera ziñaldari.
Nor zelan ibiltan dan
itandu berari.

(E., 1930)

(Arrese-Beitia'ri)

Biotz aundidun olerkaria,
maitasun loraz bete-betia,
Otxandio'ko seme gurena,
Arrese geure maite-maitia.

Euzko-aiziak gure erri oro
zure loriak zabaldu dauskuz;
zimeldu barik, beti nnardulik,
dagozalako atsegin yakuz.

Askok be askok goraldu dabez
zure almena, zure zentzuna;
nok, baiña, ondo neurtu ete dau
zure biotzan aunditasuna!

Euzkeldun zan zure jaiotza,
zure bizitza, zure eriotza;
euzko-eredu, aundi gurena,
omengarrizko zure biotza.

Biotz orixe gogo garblaz
otoika bego Donoki Goian.
Euzkera lore jaungoikozkuak
Bizkaia geure baratz erdian
zimeldu barik, ludia ludi,
beti mardulik, iraun dagian.

(E., 1930)

GERNIKA

Erri ospetsu polit ederrak
Ludian izan arren aneika,
Guztietatik begikoena
Niretzako zeu zara, Gernika.

Erri polita, erri garbia,
Erri alaia, erri txukuna,
Lau aldetatik begiratuta
Zeru txiki bat dirudizuna.

Zeu zara egiz antxiñatetik
 Zuzentza-zelai jatorrizkua,
 Gure asaben Batzar-tokia,
 Lagi zuzenen gorde-lekua.

Euzkoen txadon kutuna zara;
 Zure ganga ta ortze urdiña,
 Eguzki eta izar ederrez
 Guztiz apainki Urtzi'k egiña.

Zeure ormeak mendiak dira,
 Zure arpillak dira zugatzak;
 Zure ondia zelai orlegi,
 Argia lora zuri-gorritzak.

Zure jaupari euzko-sendia,
 Zure idaztia lagi zuzena;
 Izki danetan irakurten da:
 «Beti ta beti zuzentasuna»

Zure txauneskin bardin bagiak
 Dira egizko euzko-txoriak;
 Eta ez askok uste daben lez.,
 Mozolo besten lumaz jantziak.

(Euzkerea, 1930)

UDAZKENA TA BASERRITARRAK

Uda ederra, uda pozkorra,
 Indargetuaz bai-dua,
 Au zapaldurik onen lekuan
 Jarteko pozik negua.
 Gomuta onek tamaldu oi dau
 Baserritarren gogua;
 Baiña orraitik, gertau bagarik,
 Nekez arrapau darua.

Sendi osuak alkarren ieian
Zeifiek ira geiau ebai,
Eguna baiño len junda dabiltz
Ijuika, pozkiro, alai.
Bete nai dabez sabai ta **korta**,
Zelaian metak ein be bai,
Gaztelu onek eutsi dagion
Etorriko dan neguai.

Andra ta gizon, neska ta mutil,
Idi, bei ta burdiak,
Or dabiz danak kurtzietara
Ekarten azpigarriak.
Etxe onduan egin dituez
Meta ikaragarriak,
Itxumustuan artu ez daizan
Aurtengo negu gorriak.

Girgil, arran ta txilin-otsian,
Egal guztiai begira:
«Aurrera, **Txuril**», «Aida, **Txordua!**»,
Elitzen da Praisku mendira.
Burkadiagaz Maipa ta biak
Pozkiro biurtzen dira.
Ai. onelako euzko-eredu
Beste guztiak ba'lira!

Ettxera sartzen direaneko
Kortan bei ta txal orruaz;
Ixilduteko janariakaz
Maipa ta Praisku an **duaz**.
Praisku'k esnia batzen **daun arte**
Ontzi garbire arduraz,
Maipa'k talopil bero ederrak
Afaltzeko ein daruaz.

Seme-alaba kutuntxuekin
Maiteki kontu-kontari,
Danak batera «bake **santuan**»
Egiten dabe afari.
Afal ondoan, beti gauero,
Agurtza Miren Deunari.
Gero lotara, biyamonan be
Gogoz eltzeko lanari.

Guk egin biar doguna?
Danok bat-egin, gogoak biztu,
Zabaltu argitasuna,
Ikusi daian ludi guztiak
Jaunak gutzat emouskuna.

(E., 1930)

LUPETZARTIAN EZ SARTU EGO

Udabarriko
euri ederren ondorenian,
eguzki dizdizariak
zoragarritzko
janzki ederrez aberasturik
jarten dauz baso, zelaiak.

Euzki argiak
ortzi garbitik osasunezko
aize bigunaz nastian
baltzen dauskun
lartan gozuaz iminten gaitu
poz-atsegin erdian.

Baso, zelaiak,
baratza ta abar aurkitzen diraz
aberasturik ganezka;
txoriak, barriz.
pozaren pozez zugaztietan
zoraturik lez abeska.

Euri gozoen
ezkotasunak, agur agiñik,
igazl dautso lurrari;
euzkiak, baiña,
gogaitu barik ekin ta ekin
darraitso beren lanari.

Eguzkiaren
 beroen beroz kiskaldurik, or
 baztarrak ondatu dira;
 i! ziran lengo
 poz-atsegiñak; orain bakarrik
 negarra dator begira.

Erri guztia
 kiskaltzen dago, ito biarrik;
 au zoritxarren gogorra!
 Zegaitik, baiña?...
 Urtzi obenak asarratu dau...
 Au obenaren zigorra.

Erri onentzat
 azaro eske otoika dago
 aingerutxu bat mendian,
 egarriz ito
 baiño lenago ase dedintzat
 ura bialdu dagian

Alguztidunak
 aintzat arturik mendi ganeko
 Gotzon maitien otoia,
 laiño zuri bat
 sortu dau eta erri gaxoan
 gañian zabaltzen doia.

Beingo batian
 estaltzen dautso eguzkiari
 beren aurpegi suzkoa;
 eta jausten da,
 egarri oro asetuteko,
 azaro egiazkoa.

Miragarritzko
 laiño zurian danen gelgarri
 egaz ibil dan usoak...
 erri gaxo oni
 lortu nai dautso nekaldiaren
 ondoren zorun oso bat,

Zerutar uso
zoragarriak ikertu ditu
emengo uso taldiak,
baita esan be:
Jarraitu neuri, goirantz jasorik
ego, biotz ta begiak».

Zori onaren
zale dira-ta, poz-pezik duaz
Goitarren jarrai bekuak.
Askotxu, baiña...
zoritxarreko lupetzartian
dagozalako loituak,
Goitarren jarrai
bestiak legez egaz eiteko
eztabez gauza eguak,

Ortzitik berantz
zatozanean, Aita Goikoan
usotegiko usoa,
abiatxutik
eruateko bein ta betiko
Zeurekin txindor gaxua,
otoi dagitzut
ekardaizula zeure pikuan
Zerutar ezti gozoa,
euzko abenda
zar, maite onek izan daiantzat
egizko zorun osoa.

(E., 1930)

OBEN-GARBAIAZ

Osalarien biarra ei dau osatu nai daun gexuak,
Ogasundunen laguntza baita ezer eztaukan txiruak.

Estuntzaz daunak azkatzaillia biar dau beren onduan;
Aukera onek nok daukaz, baiña, biar dituan orduan?

Kistar maiteol, ez bildur izan, biztu egizko ziñesmen,
Ta poztu zaitez: Aloroduna jaio yaku bart Belen'en.

Gexo ba'zagoz, orra or Josu, illak berbizten dauzana;
Txiro ba'zagoz, orra or Josu, ogasun oro daukana.

Espian ba'zauz, orra or Josu, azkatasuna berbera:
Ziñesmen zindoz ta itxopen sendoz zuaz, ba, beren aurrera.

Gexo ta txiro espian dago gure asaben lur ezti:
Euzkeldun orok otoï daiogun jaio dan Josu Deunari.

Osasunaz ta ogasunakaz jarri daiala azkerik,
Ama ta seme bizi gaitean zorun-eskarrez beterik.

Otoiak, baiña, Alorodunak ontzat artuko ba'ditu,
Geure biotzak aurrez bioguz Iturri Deunan garbitu.

Gauza guztien Jaun ta Jabia billoiz ixillik Belen'en,
Ta, txiro utsak, janzki apaiñez... arro-putz einda gu emen?

Jakituria Bera dan Josu Belen'en dago apalik!
Ta gu, deus-ezak... arro-putz einda danen gain jarri gurarik?

Arrokeria!... Luzbel-kumia, oben guztien sustarra,
Bota daigun, ba, bein da betiko, oraintxe bertan sutara.
Oben-garbaiaz anai-besarka emon daiogun alkarri,
Gure otoiak entzunik Josu'k zorundu daian gure erri.

(E., 1930)

GURUTZ-BIDIA

CJosu'ren Neke-unla)

LENENGO NEKE-UNIA

Josu Pllatus'ek epaitu ebanekua

Josu laztana oratu dabe,
Arritu zaitez, kistarra!
Arbillan lotu, zuzitu dautse
Zigorkadakaz bizkarra.

Arantz-ustaia buruan daula
Jaungoiko-Seme bakarra
Pillatu zori gaiztoko arek
Emon dau eriotzara.

Jarririk dago
Pillatu arro deungia,
Eta gaizkille
Aundi bat legez
Bere aurrian
Josu Jaungoiko-Semia.
Iguingarrizko
Obendi anker
Azpi-suge bat
Bakaulkian arroturik,

Aren aurrian
Apal-apalki makurrik.
Ludi guztiai
On-egin baiño
Beste gauzarik
Iñoz egin eztabena,
Epaitu dabe
Kurutze baten
Untzez josteko.
Begira zer dan obena!

**Geure Aita Goikua, Agur Miren eta Aintza
Ene Josu maitia,
Oben egin dot eta nitzaz errukia**

BIGARREN NEKE-UNIA

Josu'ri Kurutzia sorbaldaratu eutsoenekua

Ludian diran oben orokaz
Jantzirik dagon Kurutza,
Bere sorbaldan arrerazorik,
Darue Josu on utza.
Jopu gaiztuak gorroto biziz
Makil-urtika, jo, bultza...
Au ikusirik nori etxako
Garbaiz ausiko biotza?

GOGARTIA

Ludian diran
Oben guztiak
Kurtze orretan
Batuta dagozan arren,
Gu erosi ta
Gaizkatziatik
Beren gañian
Josu'k artzen dauz pozarren.
Eta guk zerbait
Ez ete dogu
Geure Gaizkalle
Maitiagaitik egingo?

Ez ete gara,
Geure bizitza
Deungia itxita,
Bera laguntzen juango?
Jaungoiko-Bildots
Erru-bagia
Kurtzepian ta
Gu obendiok azkerik.
Au lotsaria!...
Biurtu gaizan
Zuzen-bidera
Obenen damuz beterik.

mUGARREN NEKE-UNIA

Josu lenengoz jausi zanekea

Oiñen ganian egon ezinda
Josu jausten da lurrera;
Errukarrizko zauri barriak
Ein yakoz lenaz gaiñera.
Odol-izerdiz ta autsez loitzen
Bere aurpegi ederra,
Zigortzaliak iuaz dirautse:
«Jagi, ta zoiaz aurrera».

GOGARTIA

Areioen poz,	Lagun egiñik
Barre ta ixekak	Obendiakin
Aundiak dira,	Itzez, egitez,
Josu jausita ikustian.	Goraltzen ludi deungia?
Errukiz lagun	Indartu gaizuz
Ein biarrian	Arren, ba, Josu,
Joka, bultzaka,	Jarraitu daigun
Darue bide guztian.	Zintzoro zeure bidian,
Eta guk zenbat	Txerrena, ludi
Bidar eztogu	Ta aragiari
Emon lotsage	Itxi ta Zeugaz
Orretarako bidia,	Donokiratu gaitian.

LAUGARREN NEKE-UNIA

Josu'k bere Ama aurkitu ebanekua

Kurtze aztuna lepuan daula
Lapur gaizkille bat legez,
Erailtzalliak darue Josu
Joka, bultzaka, didarrez.
Golgota'rako bidian Ama
Urtetan yako negarrez,
Baiña Semiaz itzik ezin dau
Naibagiaren indarrez!

GOGARTIA

Minberaturik	Ta guk eztoguz
Dagoz oinazez	Maiteko beti
Larri ta estu	Josu ta Iliren
Ama-Semien biotzak;	Deun-deunen Biotz gozuak?
Baiña geugaitik	Eurok maitatzen
Opaltzen dira	Jarraitu biar
Igaroteko	Ez ete doguz
Ain neke-aldl garratzak.	Gau eta egun osuak?

BOSKARREN NEKE-UNIA

Josu'ri Simon Zirene'tarra laguntzat emon eutsoenekua

Josu eraso dabe bultzaka,
Il-zorian Josu Deuna;
Simon Zirene'tarra damotse
Golgota'rako laguna.
Eruazoten dautsola onek
Josu'ri kurutz aztuna.
«A Simon, Simon! —dirautso Josu'k—,
Nok ieukian zure eguna!»

GOGARTIA

Pozez giñakez	Naibageren bat
Gu, Erroma'ko	Dogunian, ba,
Doipuru Deunak	Josu on utzak
Egizko kurutz doatsu	Kurtze orixe damosku.
Ber-beran zati	Eztogu berau
Txiki bat baiño	Pozik artuko
izan ezta be	Geure zoruntzat
Guri emongo ba'leusku.	Berak emoten ba'dausku?

SEIGARREN NEKE-UNIA

Beronike emakumiak Josu'ri arpegia garbitu eutsanekua

Begira emen Beronike'ren
Slñismen egiazkua.
Begira ondo Josu Kisto'ri
Dautson maitasun sutsua:
Zapi zuriaz garbitzen datso
Aurpegi Jaungoikozkua,
Txistuz, autsez ta odol-izerdiz
Judar gaiztuak loitua.

Au bai egizko
Siñismena ta
Maitetasuna
Jainko-Semia'ganako!
Txistuz, autsez ta
Odol-izerdiz
Zikinduriko
Arpeia garbitzen dautso;
Garbitu dautson
Zapi zurian
Geratuten da
Josu aurpegi irudia,

Olan ordaintzen
Dautsola onek
Aren siñismen
Egizkuaren saria.
Ikusi daigun
Eztaula ezek
Siñesmen deunai
Geiau eiteko indarrrik,
Ta Beronike'n
Antzera geuk be
Autortu daigun
Lotsa ez bildur bagarik.

ZAZPIGARREN NEKE-UNIA

Josu bigarrenez jausi zanequia

Jainko-Semia Kurtze aztunak
Bota dau bigarren aldiz...
Jagi gura ta ezin jagi da,
Dana da geure erru andiz!
Josu oiñazen erdian eta
Gu atsegiñetan gabiz;
Gaiztakeririk naikua da-ta,
Damutu galtezan eglz.

GOGARTIA

Emen barriro
Ikubilkadak,
Emen ixekak...
Josu maiteoi zakustaz
Orren neketsu
Naibageturik
Kurutzepian...
Ori guztioi geure erruz!

Eta ikuslrik
Daruazuzan
Negargarritzko
Nekaldi samin garratzak,
Obenen damuz
Zeuri laguntzen
Ez juateko
Zertako doguz biotzak?

Itz samurrakaz dirautse Josu'k
Jerosolin'go alabai:
«Nigaitik ez eñ negarrik, baiña
Zeuen buruak gajtk bai.

Obena gaitik negar eizue,
Azketsi lagun urkoai:
Jaunak saria emongo dautse
Olan egiten dabenai».

GOGARTIA

Obenak gaitik	Josu on orrek
Negar daigula	Bigundu eta
Gura dau Josu'k,	Samurtu eizuz
Ta gu beti obenian,	Arrizko gure biotzak,
Autormen otzak...	Egizko damuz
Asmo epelak...	Obena itxita
Barriro errez	Gaurtik betiko
Jausten garaia lenian.	Izan gaitezan zeuretzat.

BEDERATZIGARREN NEKE-UNIA

Josu irugarrenez jausi zanequa

Zaurien zauriz indargeturik
Irutan kurutz-azpira
Jausten da Josu Jainko-Semia.
Gaxua ezin jagi da!

Tatarrez artu dabe jopuak,
Judarrak pozik begira...
Arnas-estuka illagiñian
Eltzen da Koskotegira.

GOGARTIA

Izanik Josu	Iru alditan
Jainko indartsua,	Ni jausi ba'naz,
Ainbeste bidar	Izan da zeuri
Zelan baiña jausi zara?	Zelan jagi irakasteko.
—Ene semia,	Egizko damuz,
Ez al zara zeu	Autormen zindoz
Irutan baiño	Oben azpitik
Jausi izan oben-lezara?	Urten dagizun betiko.

AMARGARREN NEKE-UNIA

Josu'ri soiñekuak azkenengoz kendu eutsoezenekua

Danen aurrian erazten dautse
Jantzia jopu zikiñak,
Soiñel<uagaz batera baita
Bizkar-azal ta mamiñak!
Botaten dabe kurtze ganera,
Untzez josi, esku, oiñak;
Txitik eifi barik igaroten dauz
Bere oiñaze samiñak.

GOGARTIA

Ontasun utza	Neure Aitari.
Zarean gure	Zuk ni olan ikusita,
Josu maitia,	Oben-bidetik
Zer oldoztuten zenduan	Alde egin daizun
Ain negargarri?	Bein ta betiko
Zaurituriko	Ekandu txarrak utzita.
Zeure soiñari	Jainko-Semia
Gogor inkaurik eguan	Billoiztu dabe
Soiñeko deuna	—Au lotsaria!—
Aragi-zatiz	Eta guztiau geure erruz.
Batera kentzen	Azketsi, Jauna,
Asi yatzuzan orduan?	Zatitu bediz
—Guzti-guztia	Gure biotzak,
Opaltzen neutsan	Negar daigun oben-damuz.

AMAIKAGARREN NEKE-UNIA

Josu kurutzian untzez josi ebenekua

—Ze pizti dira Jainko-Semia
Orrelan josten dabenak?
—Ai, orrek dira geuk Bere kaltez
Egin doguzan obenak.
Zek dauko Josu orren ixilik?
—Geuganako maitasunak:
Beren burua zelan gaizkatu
Ikasi daian gizonak!

GOGARTIA

Untze zorrotzez
Zulotu dautsez
Goiko Jaunaren
Semiari, esku-oiñak;
Eta jakiñik
Geure obenak
Dirala Josu
Olan imiñi dabenak.

Zelan eztogu
Negar egingo
Eta betiko
Itxi oben egitia,
Oraintxe bertan
Erabagirik
Jainkoa iraindu
Baiño lenago iltia?

AMABIGARREN NEKE-UNIA

Josu, Kurutzian il zanehua

Ezker-eskuma lapur bi dagoz,
Erdian Jainko-Bildotsa!
Gaudia bete dau kurutz batek...
Ziñopa Batek kurutza.

Aitak itxi dau Seme Bakarra!
Amak ezer ezin dautsa!...
Zazpi ezpatak zulatzen dabe
Miren Deunaren biotza!

GOGARTIA

Orra or Josu,
Gure oiñ deungak
Ez igesteko
Bere Oiñ Deunak josirik.
Or or Josu
Gu maitasunez
Besarkatzeko
Bere Besoak zabalik,
Bular-zauria
Edeirik dauka
Gu maitatzeko
Antxe barruan sarturik,

Bere burua
Beratzen daula
Guri bakezko
Mosua emon gurarik!
Oi, ene Josu,
Biotzeko oril
Noz maite izango
Zaitut Zeuk maite nozun
Egizu beti
Bizi nadilla
Oben-garbaiaz
Zeu ganako maitasunez.

AMAIRUGARREN NEKE-UNIA

Josu'ren gorputz illotza bere Amari altzuan jarri eutsoenekua

Nikodemus'ek eratsiten dau
Kurtzetik Josu illotza,
Ta bere Ama larrituari
Altzuan ipinten dautsa.
Buru gañetik oiazpirañ
Zati osorik eztauka:
Damuz biotzak ausi daiguzan,
Geuk olan jarri dogu-ta!

GOGARTIA

Ene Ama on	Gorputz guztian
Tamaldu orrek	Zati osorik
Laketu dazu	Ez daun Ziñopa
Zeure Semien aurrian	Jaungoiko-Seme Bakarra.
Auzpeztu nadin	Orra or nire
Parkeskatzeko	Oben larrien
Eta biotzez	Aunditasuna!
Apalki gurtu dagidan.	Orra Jaunaren zuzentza!
Arpeia zurbil,	Gaurtik aurrera
Begiak lauso	Obenik egin
Ta zuloturik	Baiño lenago
Eskuak... Oñak... Bularra...	Apurtu bekit biotza.

AMALAUGARREN NEKE-UNIA

Josu'ren gorputz illotza obian sartu ebenekua

Zeru ta lurren Jaun ta Jaubia
Sartu dabe illobian,
Ama bakarrik geratzen dala
Zoritxar itzalenian.
Arren, ba, oni lagun daiogun
Goiko Jaunan izenian,
Dima ona lez aurkitu gaizan
Emendik guazenenian.

Euzkera txukun gozua,
Aldi orotan kistar eredu,
Euzkeldun egiazkua,
Iraun daizula gura-gura dot,
Edurne biotzekua,
Urtzi'k saritzat emon daizuntzat
Betiko zorun osua.

(1931]

TXERREN-OTSEIÑAK

Txerren-otseñak aspaldi dabiltz ekaitz baltza dariola,
Uri-baserri zabaltzen euren eden utsezko ujola,
Urtzigetasun eta gorrotoz izurrirazten odola;
Esan legike gaiztokia be ganez egiñik dagola.

Ujol atsitu ortan nai dabe ondatu Kistar-Uzkurtza;
Uzkurtzaiak garianok be, or garabillez jo, bultza...
Azkatasunen izenez egin lapurreta naiz erailtza;
Eurentzat azkatasun osua...; guretzat, barriz, estuntza.

Gaizkin ankerrai azketsl eta zigortu erru bagiak,
Txerren-otseñak ontzat daukiez aulako erabagiak.
Mikel Deun orri, otoi dagitzu gure lur errukarriak:
Arren, aldeztu daiozuzala egizko eskubidiakl

Elexak eta Lekaretxiak euki nai doguz zutunlk;
Euretan iñor ez deilia bizi kistar zintzua ez danik;
Irakastetxe nausi ta txiki biar diran lez egiñik,
Geuk nai dogun lez irakasteko, geu nausi garialarik.

Biozdun euzko zintzo guztiok lagun egiñik alkarri,
Egiz nai dogu Euzkera jaso ta azkatasuna ekarri;
Aspaldi gure artian diran jolas, birau, ordikeri
Zikiñok kendu, dirialako gizadiaren galgarri...
Euren lekuan aulki bat emon euzkel oitura onarl,
Euzkeldun eraz jolastuteko alaiki, azke ta garbi.

Lantegi oia, lugintza ta abar, goirengo maillean jarri,
Euzko-langillak izan daiezan irabaztlak ugari;
Gauza danakaz orniduriko jantzi bat egin Amari,
Ezeren zorrik ez dautson eran Gaztelari, ez iñorl.

Geure Zaindari zaran ezkerro, Mikel goitar Gongotzena,
Aralar goian irain-sugiai burua ebai zeuntsana;
Todosi Goñi estuntzetatik azkerik jarri zenduna,
Gure lurrai be lortu yozu, ba, egizko jabetasuna!

(E.. 1932)

MIREN DEUNA

(Entzun zeure Jaiotz-egunan dopaltzudan otoia)

Ane ta Jokin senar-emazte
Guraso deunen umia,
Gaurko egunez ludiratua
Ziñean, Miren Donia;
Zorun guztien iturburua
Zu jaio ziñan unia.
Au dala-ta, gaur, Zeru goietan
Eztegu andiak dira.
Arren, ba, ortik abegi on bat
Bialdu Euzkal-Errira.

Argi guztien argia eta
Lora guztien loria,
Urtzi Deunaren baratza guren
Usaintsu bardin bagia,
Jakindiaren itxaso sakon,
onez ona baiño obia,
Eskar guztiak zeugaz dozuzan
Miren Sorkundez garbia,
Gure abenda sendotu eta
Jaboizu Euzkel erria.

Ortze goietan izarrik ezta,
Ez baratzetan lorarik,
Miren Jaione, Zeruko Ama,
Zu zaran baizen ederrik.
Sortu ta jaio, bizi eta il
Ziñean orban bagarik.
Alguztidunak Bere amatzak
Egiña zarialarik,
Ezin leiteke beste bat izan
Ederrago ez obarik.

Agur, Josu'ren ta gure Ama
Eta Zaindari bakarra!
Agur, Zeruko eguzki eder,
Agur goizeko izarra!
Goi-beletako Erregiña ta
Gure Jagola zeu zara;
Biurtu gaizuz euzkeldun orok
Zentzundunak izatera,
Jainkoarentzat izan gaitezan
Euzkel erriaz batera.

Aiten alaba, Semien ama,
Goteun-emazte doatsu,
Irukoitz Deunak eskar bereziz
Egiñikua zara zu;
Izar-burestun, euzki-soiñekoz
Illargien gain dizditsu,
Neskutz orbange zarialarik
Zeure Semia da Josu.
Orixegandik guk biar dogun
Guztia iortu eiguzu.

(E., 1932)

ZERUKO AITARI

(Gexo aldian)

Zeruko Aita on utza,
Zeuretzat nire biotza,
Euzko Aberri maite au be bai, Zeuk egiña da-ta.

Aidu da nire gorputza,
Goguak nai dau goirantza;
Zeukin zoruntsu or izateko eidazu laguntza

Zerorrek egin ninduzun
Emonaz ainbat ondasun:
Gorputz batian arima, biotz, argia, osasun.

Gero be zenbat maitasun
Agertu izan deustazun...
Ez dakit orain guztiau zelan ordaindu naikezun.

Goizale nazan aldetik
Biotzez maite zaut beti;
Miren Deuna'gaz... opa natxatzu osuan apalkl.

Zeuk nai lez guda dot bixi,
Zeuk nai lez bizitz au itxi,
Zeuk gura dozun Donoki-mailla... dagigun jaritxl.

(Karmen'go Argla, 1932)

GARBINETXU'REN ZINTZOTASUNA

(Neskato baten otoia)

Ene gotzon jagola
maite kutuna,
Jaunak nire zaindari
egin zaituna.

Goizetik gaberaíño,
gau eta egun,
izan zakidaz beti
zu neure lagun.

Arriskuetañ jagon,
ene gotzona,
izan nadin euzkeldun
kistar on-ona.

Ikastaldian eta
olgaidietan,
jakín nai dot ikasten
eta olgetan.

Ikasle-lagun eta
jolas-lagunak,
gura dodaz euzkeldun
biotz ondunak.

Urtzi maite dogula
biotz-biotzez,
jolastu gadizantzatzat
bakez ta pozez,

Itzez eta egitez
noz-nai edonun,
beti kistar zintzuak,
beti euzkeldun!

Kurtziak kendu dabez
ikastolatik,
guri Jaun-maitasuna
kentzia gaitik.

Guk, baiña, maite-maite
dogu Kurutza,
berau dalako geure
maitasun utza.

Lora guztien Lora
Miren neskutzak,
lora deun biturtu beiz
gure biotzak.

Sendi Deunaz aizkide
izan ezkeru,
ezkara besteen bildur
orain ez gero.

Arriskuetañ jagon,
ene gotzona,
izan nadin euzkeidun
kistar on-ona

(E., 1932)

BAKOTXAK BERIA

Goiko areztira
juan zan aurtemin,
abiatik txorikumak
artzen gure Txomin.

—«Txio, txio txio!
—txori amak negar—
neuk pozik alikaturlk
oneik ainbat bidar!
Txio, txio, txio!
ene zori txarra!
Neure kumatxu maiteok
ik ostu biarra!»

—«Ixi, txori-ama,
ez egln negarrik:
euk baiño obeto kumeok
eukc yuadaz nik.
Kaiolatxu baten
jan ta edanian,
abestu dagien alal
gura dabenian».

—«Ene zori txarra!
Nok alai abestu
kaiol-barruan beti
baldin ba'dau estu?»

«Kaiolan ez dago
janik ez edanik
azke bizitia baiño
maiteago danik»

Arraiñak uretan,
txoriak mendian...
Gu, barriz, ondoen
geure lurraldian!

[E., 1932)

Laugarren txorta
(1933 -1942)

Nora zuaz, Agirre Joseba Mirena,
«Lizardi» olerkari, erkide gurena?
Utzirik zeure sendi maiterik maitena,
Aberria ta lagun... bertan-bera dana?

Negar dagi tannalez zure alargunak,
Berakin baita zeuen gotzontxu kutunak.
Negar erriak eta erkide-lagunak,
Igesi dauskulako «Lizardi» ain onak!

**«Uda berri, uste ezik,
arki det basoan:
neskatxa da, ta urdiñez
jantzita ziyoan».**

Irudimen ednrrez beterik eguan
Olerkari bikaiña... il yaku beinguan!

Olerkari ziñan, bai, egiz olerkari!
Olerkari kistarra, euzkeldun gurgarri.
Beti ziñan gauza-aundi, ederren egarri,
Guztiak opaltzeko Jaun-maitez Amari.

Zure biotza baratza bat zan,
Maitasun-loraz egiña;
Zure gogua onoimenezko
Izardun ortze urdiña;
Jaun-argiz argi egiten zeuskun
Euzko-eredu bikaiña.
Urtzi'k deituta egaiz jun zara
Zorun-Egilliagana.

Lurrean bai-zan, geuk uste beintzat,
«Lizardi», zure biarra,
Euzkerak eta oitura onak
Artu dagien indarra;
Goikua'k, baiña, gauza guztiak
Dakus biar dan erara;
Eta gu Berak egiten daunaz
Gogaidetu blar gara.

Zure lorratzai jarraitu naiak
Jarri nai gorantz begira;
Zuk jarri dozun Jaun-bide zlar
Argiak dagi ditzira.
Agur, Lizardi!»! Laister nalz eldu
Zu jua zeran Errira.
Maite geranok... Urtzi-besotan
Or laztanduko al gara.

(E., 1933)

ALATZ-EGODUN

Gol-beietako Bakaldun guren
Alguztidun aberatsa,
Alatz-egodun Bera Berenez
Gurendaz dua goirantza,
Beko gudaldi arrigarrian
Irabazirik garaltza,
Beren gudar! guren danentzat
Zabaltzen Zorun-Baratza.

Agur, ba, Josu! Zeure maltale
Blzi nai dogu ludlan,
Zeure ondoren jarraitu nairik
Zeuk gura dozun neurrian,
Alatz-egodun ezkarianok
Zeuk deritxozun aldian...
Eruan gaizuz, Zeukln zoruntsu
Izan gadintzat or goian.

(E., 1933)

URKIOLA'N

Aize gozo usaiña
Urkiola'n dago,
Osatuten dauzana
Gorputz eta gogo.

Nor da usain gozo au
Zabaltzen dauena?...
Urtzi'ren bakanari
Andoni ain deuna.

Goi-aize zabaltzaille
Ain maite dabenak,
Emen gozartzen dabez
Aizerik onenak...

(E.. 1933)

GARAILLE

Ipar-aizlak ego-alderantz
Baztertu dituz odei lodiak;
Mendi ertzetik urrezko brintzak
Agertzen deuskuz euzki-arglak.
Zoragarriro, apain jantzirik
Ibar-zelaiak, baso-mendiak,
Izadiaren edertasunaz
Geldurik dodaz biotz-begiak.

Basetxetxuak edur irudiz,
Teillatuetan uso zuriak,
Ardi ta bildots eta abar iarran...
Abiagiñen bizkor txoriak.
Goi-beietako eresl gozoz
Alaiki zar ta gazte guriak,
Bakotxa beren lanetan, zIntzo,
Zorun-itxaroz, dabiltz guztiak.

Itxaso zabal, zelai oztiñan
Itxas-txoriak dabiltz lgesi,
Ara-onaka, noizpeinka egaiz.
Lan eta jolas... pozaz dirudl.
Eurak daide, ondo jakin be,
Nundik nora ta zelan ibilli.
Onein zorunak bekaitz zitala
Sortuten dautse... Itxas-uñarl.

Iñoren onik ikus-eziñak
Senetik urten eragin dautse,
Zelaiak montor biurtzeraiño,
Danak baturik naste-borraste.
Aurrian artzen daben guztia
Jo ta lertuko dabela uste...
Arropuzturik ibilli arren,
Nok lortu, baiña, uste daben beste?

Ezker-eskuma, txori zintzoen
Ganera dator gorroto-bitsa;
Txoriak, baiña, eguak dabez:
Uñai uts emon, egaiz gorantza.
Uñak amorru-abiadiatz
Jo dabenian aurreko aitza,
Lertu dira-ta..., txoriak, barriz,
Garaille dabiltz igeri, dantza.

(1933)

EUSKAL EMAKUMIA

Ortzia garden dala,
Eguzkia diz-diz,
Begi zoli, bizkorrez,
Egunaren argiz;
Udan... izadinren
Edertasun andiz,
Pozez zoratzen alai
Txorituak dabiz...

Uda-landara oro
Jagi dira gora,
Poza dariuela
Orri eta lora.
Euskal emakumia
Baratzera dua,
Lore garbiz apaintzen
Biotz ta gogua.

Txori-enda guztiak
Euren ameak lez,
Abesti bereziak
Abestuten dabez.
Bakotxak beren eraz,
Zoragarri, errez.
Txorlak dagiena
Guk zer dala-ta ez?.

Lorarik onenakaz
Jantzi dan unian
Usotxua egan lez
Aize zabalian,
Bizkor baizen zintzoro
Darraike lanian,
Jaun-usaiña zabaltzen
Zokondo danian.

Igalia nora?..
—Gosez errukarri dan
Geidien agora,
Alikatu daizantzat
Soiña ta gogua.

Baserri ta uri;
Zar, gazte ta gaztetxu
Dabiltzaz urduri,
Zoruna lortu nairik
Ama gaxuari,

Ortzia garden dala,
Eguzkia diz-diz,
Euskal emakumiak
Loraketan dabiz.

(1934]

BIZKARGI!

(Muxika'ko gazte mendi-zaleai)

Bizkargi, oiñak eta besuak,
Dira geure baratz, geure basuak.
Zure biotza ta zure buru...
Ziñesmen eta gentzan eredu,
Jaunak autua,
Gurutz deunaren gorde-lekua,
Osasun toki zoriontsua.

Uri, baserri, etxetxu zuri,
Lugintza aberatsak eder ugari,
Margo bikaiñez goi ta be oso,
Txoriak nun-nai abesten gozo,
Bizkargi mendi!..
Zure inguruak ain zoragarri
Gotzon-tokia daia dirudi!

Egun ospetsu gurgarriena
Mendizaliok autu dabena,
Euskal gaztiok bein ta betiko
Jaunagan alkar besarkatzeko
Maitasunian:
Bizkargi geure mendi ganian
Izan bedi, ba, ordu onian.

Zinesmen, geritza eta osasun,
Aurkitzen dira:
Gure gaztiak, gora begira,
Auxe dala-ta duaz mendira.

Mendiko aize bigun garbiak
Indartuko dauz zuen birlak;
Jaun-maitasunak, ziñesmen, gentzak
Pozez zabaldu zeuen biotzak.
Ta anai arteko
Maitasunian jarri betiko,
Euskeldun zintzo beti izateko.

Ene begiko gazte maitiak,
Zuzen eizuez gauza guztiak;
Alaiak izan, itzez garbiak,
Egitez kistar agurgarriak.
Eusko-eredu...
Beti euskeldun, biotz ta buru,
Jauna izanik zeuren elburu.

(1934)

BAKERAKO LEGIA

Bakoitzari beria,
Jainkoen Legia.
Jainkua maite daunak
Maite dau geidia.
Maitasuna bakezko
Zorion-bidia.
Maltasun bako itzak
Guzur utsak dia.

CE.. 1935)

Jolastu, ba, gazteok,
jolastu garbirik,
or... txerren-barkilleru..
biurtu bagarik.

(E., 1935)

ARIATZA'KO IKASTOLA BARRIA

(Erriak egiña; **1935-IX-17**)

Gurasuak eln leiken
Lanik ederrena,
Umiari argitzia
Kistar adimena.

Zintzuak diranlan
Biotzaren ianaka,
Zorun-bidetik duaz
Zuzen-zuzen danaka.

Adimena ba'dago
Bizturik Goi-argiz,
Biotzak beren lanak
Zintzo-zintzo dagiz.

Goi-zoruna dan lez, ba,
Egizko Elburu,
Bera lortu ezkerok,
Dana lortu dogu.

(E., 1935)

MIKEL DEUNARI OTOIA

Mikel Gongotzon, euzko-zaindaria,
Zeru-almenez betia,
Goitar ezpataz ebaia zenduna
Luzbel'en gudaroztia:
Aralar-gaizdik ikusi ondo
Nun-naia sortu dan nastia...
Ondamendiko txerren-saretik
Azkatu ludi guztia;
Batez be, baiña, Zeure zainpeko
Gure iurralde maitia!

(E., 1935)

MAITASUN-ITURRI**(Barrena'tar Polikarpa ta Azkue'tar Dunixi'ri)**

Naiz bide leun naiz aldatz,
 goiz naiz arratsian...
 zuen burpillak beti
 euzko ardatzian.
 Eta besarkatzian
 ain lagun maite bi,
 biotza biurtzen da
 maitasun-iturri.

(E., 1935)

URTEBARRIZ

Ederto asi dogu
 aurtan Urtebarri,
 biotzak opaldurik
 Alguztidunari.

Maitaliak maitia
 egiz maite ba'dai,
 berakin bizi nai dau
 astegun eta jai.
 Maitalerik Gurena
 zaran Kisto Josu,
 Zeu maite-nai orixe
 sortu egiguzu,
 Zeukin bizi gadintzat
 beti zoriontsu.

(E., 1936)

ORRA OR JOSU

Orra or Josu,
 Gure oiñ deungak
 Ez egisteko
 Bere oiñ Deunak josirik.

Orra or Josu,
 Gu maitasunez
 Besarkatzeko
 Beren Besoak zabalik.

Antxe barruan sarturik.

Zaitut Zeuk maite nozun lez?

Bere burua
Beeratzen daula
Guri bakezko
Mosua emon garurik!

Egizu beti
Bizi nadilla
Oben-garbaiaz
Zeu'ganako maitasunez

(E., 1936)

«AGAREL» (G. B.)

(Abadiño'ko euskal Idazle jatorra)

On-ona ziñan, apal-apala,
Argi, langille zintzua,
Zure inguruan zabaltzen zala
Beti Jaun-usain gozua.
Gure lur amak eban unian
Zeugan itxopen osua,
Aita Goikuak bialdu dautzu
Eske zerutar usua...

Ludi au txatxar ziztriña dozu,
Txatxar ta eskar bagia:
Zeuk maite zendun Alguztidunak
Emon nai eutzun obia,
Zorun osodun bakalderri bat
Autetsientzat gordia.
Atsedon zaiz, ba, ortxe betiko,
«Agarel»geure maitia!...

(E., 1935)

NESKATILLA BATEN OBIRALTZIAN**(Artetxe'tar Miren: 15 egunekua)**

Mirentxu'k agurtu dauz
 Ludi-gurasoak
 Mirentxu artu dabe
 Donoki-Usoak...
 Donokian ospatu
 Eztegu osoak...
 Alatzak egunero
 Dagiz Jaungoikoak.
 Jaun-maitale diranak
 Zorionekoak!

(E., 1936)

BURUA BETI BURU

Buruaren esana
 biotzak ba'dagi
 indarra ezta izaten
 iñoiz be galgarri.

Biotza jagi ba'dai,
 baiña, buru aurka...
 amak seme doillorra
 ordutixik dauka.

(E., 1835)

KUKUA AGERTU DA

Epaillak ogetasei...
 Kukuak ku-ku...
 Zugaztian goizetik
 Abestu dausku.

Zozo-birigarruak
 Txiruliruli...
 Udabarria dala
 Gaur esan legi.

(E., 1936)

UDABARRIA

Zugatzak jantzi dabe
Soiñeko barria...
Txori alaiak autu
Nun egin abia...
Lore bikain politez
Apaindu zelaia...
Zelaira loren billa
Dua gaztedia.
Gazte maite Jaun-lore!.
Ezarri begia!...

(E., 1936)

ENE JAIOTETXE MAITEA!..

(Gudaldian, Araba'n aurkitzen zala)

Maite zaitudan jaiotetxeoi,
Zugandik urbil bizi naz!
Ni besarkatu ez nedin, baiña
Or neure sendi laztanaz,
Ate zabal bat bitarte jarri
Dauste margorik baltzenaz...
Ezin ikusi, ezin laztandu!
Tamalez ilgo ete naz?

Zure inguruak argitzen dizdiz
Urtzi'ren zorun-eguzki,
Barru ta kanpo, lan eta jolas,
Bakia zala nagusi.
Goi-maitasunez, sendi-maitale,
Zoruntsu nintzan or bizi;
Ate baltz ori dala-ta, baiña,
Ezin zaut orain ikusi!...

Zure barririk ez dakart iñok,
Zeugana ezin neu juan!
Ene begiak negar-iturri,
Au gogoratu orduan!
Gure izparrak tinkorik daukez,
Ez ekarri, ez eruan...
Itsu eta gor ba'nengoke lez,
Emen bizi naz «linbuan»...!

KULISKA SORTA

Itxaropen bat bai-daukat, baiña,
Siñismenagaz josita,
Gurekin iñoiz ezta la aitzuko
Urtzi, gure Jainko Aita;
Eta aidi luzez edo laburrez,

Ze neurriz Berak daki-ta,
Ondiñokarren —goi maitez— zeukin
Laztanduko dala Kepa.

Ariatza'ko jualetxuen
Durundi alai zolia,
Noiz izango dot jaiotetxetik
Zu entzuteko zoria?
Zeuk itxartuta, sendi osuaz,
Txadontxu maitagarria
Ikertu eta gogo garbiz or
Jateko Gotzon-Ogia?
Orduantxe bai egiz niretzat
Zorionaren aundia!

(1936, VII)

PELOTA LAKORIK. .! (Excelsior'en araudian)

Buru, anka ta beso,
Bular eta begi,
Osoan indartzeko
Mutil gaztiari,
Pelota lakorik
Ezin topau legi.
«Besagain» ta «Bolera»
Ezker ta eskubi,
Atzean naiz aurrean,
An jausi, or jagi...
Pelotariak oso
Bizkor egin dagi.
Kirol-zale zarian
Mutil azkar ori,
Beste danak utzirik
Izan PELOTARI!

Izan dozak aurtan.
Erritarrak garaille
Dabelako urten,
Gora gure mutillak!
Dabe abestuten.

Baita gurendearen
Poz ori dala-ta,
Gora!, gora Kepa Deuna!
Dabiltzaz didarka.
Itxasuak bere poza
Nozbait emon dau-ta,
Egin kutxaren ganeko
Gure «kaxarranka».

Lau morrosko ederrak
Euren sorbaldakin,
Aidian dabile kutxa
Zirkin eta zaurkin.
Kutxaren ganean dantzan
Ekin eta ekin,
Dantzaririk bikaiñena
Gure «Kuskurrupin».

ZORRONTZA'KO PRANTSESARI

Aizak, nere adizkide, Prantses ospetsua,
Txarriak urten dauku txito koipetsua.
Zorionian beraz eñ gendun tratua,
Dalako txarri oso enda onekua,
Bizkar zorroztua,
Gaizki kapatua,
Musturrez txatua,
—Au bai neskatua!—
Lapikua ontzeko sekulakua,
Prantses ospetsuari artutakua.

Txarri abillagorik ezin lei billatu,
 Gitxi jan ta bear asko egiten dausku.
 Askan eukiagaitik arto-baba-zuku,
 Onek danak utzirik, lanerako gertu:
 Azpie atxurtu,
 Ormia puskatu,
 Atie apurtu,
 Au lepuan artu
 Ta tximista berak eruten dausku.
 Txarri ona nai daunak Prantsesai artu.

GURE BARATZA

Gure baratza, eder alaia,
 beti oi zan loraz jantzi,
 euzki ederra ortzetik zabal
 egiten zanian jatsi.
 Ai, baiña, onek, euzko-semiok,
 ameagandik igesi,
 euzkera itxita erderaz eiten
 zituzanian ikusi,
 lotsaren lotsaz egon ezinda
 itxasperaiño zan jausi!
 Ordutik dira gure baratzan
 sortu bedar txar ta sasi,
 ta danen arte, betiko il daiten,
 nai dabe arantzaz josi.
 Alperrik, baiña... Ez bildur izan:
 laster da ori berbizi.

Txakurtxu bana emon ezkeru,
 astero, euzko bakotxak,
 «Euzkel-Laguntza»-k erosikoituz
 korañe zorrotz-zorrotzak
 ebagiteko bein da betiko
 bedar txar, sasi, arantzak,
 eragozpenik euki ez daian
 geiago gure baratzak.

guretzat beintzat ludiko beste
orok baiño be obia.
Jaunak emoskun, geutzat, esanik:
«Zaindu bakotxak beria».
Erdeitzaliak, kontuz, ez aitzu
Jaungoikuaren Legia.

USPARITXA-JAUREGI'TIK TXAUNBURUETXERA
(Ene biotzeko Txaunburu on maite orri, agur)

Gaur, Poz-emoilliaren Etorkunde-eguna
Muxika'n bereziki ospatzen doguna.
Au dala-ta, Bingen jaun Txadon-gurasoa,
Biotzez opa dautsat zorion osoa.
Gaiñera, bide faatez esan biar dautsat
Barri pozkarrizkuak dirala guretzat.
Siñismen, itxaropen eta maitasuna...
Iru onomen oneik geukin doguzala,
Agertu yakula, mirari antzian,
Zorun-euzkia dizdiz... Muxika ortzian!...

Jaiak ondo igaro, Muxika eta Maiz.
Gogoz or... baiña soifiez emen geratzen naiz.

(Biaizteri'n, 1940)

ZORUN-OPAZKO GOMUTAKIA
(Arrizabalaga Endika'ri, bere jaiotz-urteurrenlan)

Mutikotxu polit bat Gotzonak ekarri,
Maite baratza-lore guraso pozkarri.

Izango zara gero... Txadon-Aingerua,
Garbituko ebana gogo lorrindua.

Aldi luzetxua bai, ordutik gaurrera...
Urteok igarrige yuakuz aurrera.

Buaz, ba, ordu onez... Urtzi-lagi bidez,
Eta gu aren jarrai... zoritxarren iges.

Jainko ta gei-maitez zutik galararik,
Beti zorun-itxaroz biotz-kezka barik.

Orain, gero ta beti, zorun amaigiak
Biotzez dopaltuz, ba, zeure maitaliak.

(1941)

TXOMIN ETA GARBIÑE ERRIKO JAIETAN

Txomin'ek: —Egizko neure bizi-lagun bat
aukeratu nairik nago;
neure maiterik begikoena
emendik urrin eztago,
Biotz-biotzez maite dodana
geruago ta geiago,
dantzara ointxe deituko neuke
gerturik baldin ba'lego.

Garbiñe'k: —Dantza bi dabiltz zelai onetan,
garbia eta nastua;
garbi ori da euskaldun zarren
kistar-jolas egizkua,
besteoi, barriz, or erbestetik
lapurra legez sartua.
Txerrenen jolas zikin ortara
Garbiñe beintzat eztua.

Txomin'ek —Dantza zar ori gitxik nai dabe,
geienak barriz bestia;
modea da gaur zerbait diranak
baltzeoz jolastutia;
ta zeu izanik neskatillarik
bikaiñena ta gaztia,
tamalgarririk andiena yat
zuk ni ukatzen astia.

Garbiñe'k: —Modea da bai, zoritxarrez be,
loikeriz jolastutia;
oraindi, baiña, moda zarrago
gaiztokira juatia.
Bide bi dagoz, txarra ta ona.
Zein nai zenduke artzia?
Loitik duana ezingo da izan
egizko neure maitia.

Txomin aizkide, auzokide oi,
aditu zaizu, aditu,
euzkeldun onak iru baldintza
onexek bearrak ditu:
Jainkua gurtu ta euskaldunaz
euzkera gozoz mintzatu;
Itzez, egitez, lan eta jolas,
beti garbirik agertu.

Txomin'ek: —Ederrak dira, oso ederrak,
Garbiñe, zure baldintzak;
orixe bera darakuskue
Jaunaren amar agintzak.
Zuk olantxe nai, ene Garbine,
zu maite nire biotzak;
zure nai ori beteko dot, ba,
zeu izateko neuretzat.

Garbiñe'k: —Biok euzkeldun siñismendunak
gerala ezin ukatu,
ta au alan dala, «baltzeo» zikin
ori guk nola dantzatu?
Ezergaitik bezl Eta zuk, Txomin,
itxoi betetzen ba'dozu,
egizko maite —Jaungoikozkuak—
izango gara ni ta zu.

TXOMIN ETA MATXALEN

Txomin'ek: —Neure aldian egiten yuat
ainbat abere jateko,
asti apur bat ez daukadala
apur baten be jarteko.
Beti onela ibilli barik
izango neuke obeto,
neure lanetan lagundu daustan
emazte on bat ba'neuko.

beti al dodan arinan.
Diñozun lez, ba, emazte billa
neugana eldu ba'ziñan,
bata bestiai lagunduteko
biok buztartuko glñan.

Txomin'ek: —Luza begira etzara egon,
neure lagun agintzeko;
baiña ez dakit indarrrik dozun
itz eder ori zaintzeko.
Aspalditxoan tentezka nabil
andra koskor bat artzeko;
baiña bildur naz lzan ez daidan
neure burua galtzeko.

Matxalen'ek: —Zer erantzun bere ez dakidala
ipinten nozu bildurrez.
Zeure burua daukazu aintzat,
eta besterik iñor bez.
Ezkonduteko bildurra dozu,
ta eiñ barik egon nai ez.
Baiña paltarik iñun bakorik
ez dozu topauko errez.

Praisku'k: —Bat baiño geiau ibiltzen dira
gure Txomin'en antzera,
aberats eder onaren billa
jo batera, jo bestera,
usterik ori errez lortuko
dabela; baiña bai zera!
Oiñetakoak urratu eta
buruko miñaz etxera.

ZAZPI ERRIOJANU

(Zazpi mats-mordo ziran)

Eibar'tik Muxika'ra lengo barikuan
zazpi erriojanu ekarri nituan.
Nere andreak auek Ikusitakuan,
grik-grak txiki eta iruntsi zituan.

Nere andre maitea ain ona izanik,
nork siñistu gauz ori egingo zuanik.
Etzion itzi azur, azal ez mamiñik:
aspaldi ezta jazo olako krimenik.

Guztiau eiñ ta ere, biaramonian,
ezeren kezka gabe patxara onian;
ez eguan ar asko bere gibelian.
Ai, zer kristauak diran Muxika aldian!

Guztiau eiñ ta ere kezkarik ez izan!
Eztakit gauzok nola izan litzakezan.
Betiko espetxera eraman ez dezan,
ene Bitor Arana, iñori ez esan!

ERETXI BI

Praisku'k: —Neskatxa gazte eta mizkea
eta milloi bi laurleko
beraz dituan neskatilla bat
nai neukek emaztetzako,
ezeren bere kezkarik barik
oparo bizi izateko.
Baldintza onek dituanagaz
nor, baiña, ni baiño obeto?
Beti aukeran, an-or naiz emen
nintzakek zorioneko.

Pello'k: —Neskatxa gazte bikain mizkea
eta gaiñera milloi bi!
Baldintza orrek izan oi dozak
askoren atsegingarri!
Milloi bidunak... banaka bat bar,
gazte mizkeak ugari...
Baiña egizko garbi ta onak
non-nai eztozak agiri;
oneitako bat irea baiño
atsegiñago yat niri.

lortu diruaz utsian.
Gure Jainkuak damoskunagaz
pozik ba'daukak biotza,
eu izango az orain ta gero
egiazko aberatsa.

ENBEITATAR BINGENE'RI

Gaurko egunez ludira ziñan,
Ene alaba kutuna!
Ordutik aldi luzetxua da
Ludion daruazuna.
Baukozu zeure senar maitiaz
Irukoitz-sendi laztana:
Guraso, aizta, nebak eta abar...
Guzti oneikin Goi-Jauna,
Izan bedi, ba, zorun-iturri
Orontzat gaurko eguna,
Gaurtik asita izan daiguntzat
Amai bageko zoruna.
Auxe da, ba, nik danon izenez,
Biotzez dopaltzudana.

(1938-IV-19)

ALTUBE'TAR SEBER'EK BERE MAITIARI

Baratza baten lora polit bat.
Ai, a zan ikusgarria!
Zuri-gorria, egimen utsa,
Usaintsu, bardin bagia!
Une aretan bai-dakit zein zan
Neure biotzen jaubia.
Ordutik ona maitatzen zaitut,
Ziñez dirautzut egia.
Uda ta negu bardin zakustaz,
Egizko neure loria!

Len bere maite, oin bere maite
Zaitut geiau eziñian.
Maitakor utsa zarian ori
Neuretzat jaio ziñian:
Neuk gura zaitut, zeuk gura nozu,
Zatoz ba ordu onian,
la jarri zaitez zeuria dozun
Neure biotzen erdian,
Biok alkarraz bizi gaitezan
Zoruntsu Euzkel-errian.

AGUR. URTEZARRA!

Agur, Urtezarra!
Zuaz lotara;
Sasoia da-ta, zuaz atsedendutera.

Zatoz, Urtebarri!
Ondo etorri,
Egizko zoriona guretzat ekarri.

Goietan aintza,
Bee ontan gentza...
Gora Euzkera eta Josu'ren Biotza!

ZORUN OSUA! ..

(Atxurra'tar Zoil jaupariari)

Ludi zoruan zoro egiñik
Ibilli dabil gizona,
Billa ta billa beti urduri...
Nun aurkituko zoruna.

Al-izatera elduko ba'litz
Gizon arroen almena,
Nun asetuko ete litzake
Bere naimenik gurena?

Ludi guztiko buruzagitza
Zoruntzat autu ba'legi...
Esan al ete legisku egiz:
«Zorun osodun gaur naz ni?»

Jaungoiko eta geide-maitale
Zarian biotz gozoa...
Zuretzako bai egizko poza!
Zuretzat zorua osoa!

(1940)

ZORUN-OPEA

(Imanol bere semearl, 27 urte egitean)

Teillatutik berako atsegiñak labur...
Tximistak baizen laster dagiskue agur.
Naiz izan gazte gordin, naiz izan zar naiz aur,
Pozez atzo ba'giñan... tamalez gara gaur.

Izarrez gaiñetiko atsegiñak, barriz,
Zorun-egaizkiñetan aldioro dabiz!

Egiz dopaltzugu, ba, seme maite orri,
Urtzi'k egin zaizala Goi-egaizkindari.

(1940)

URTEBARRI ON

(Muntxa'tar Blngen apalzarl)

Urtien Egillia jaio da Belen'en,
Urte-asiera gaur, urtebarri emen.

Alguztidun Umiak geuretzat damosku:
Esker-egiñaz geuk be gurtu daigun Josu.
Josu'renak garala biotzez benetan,
Berak lastanduko gauz aldi guztietan.

Gaur asten dan urte au, zoruntsu, zoruntsu,
Zure maitale onek biotzez dopaltzu.

Gorantzi-gorantziak Pilipa jaunari,
Zeugaz bera be maite dodan ezaugarri.

Ene txauburu eta txauburu-laguna,
Urtzi'k bedi zeuokin guztion zoruna.

Esanaz izpar onak dirala guretzat,
Esku-mun dagitzue zeuen lagun Kepa'k.

(1941)

ZORIONAK

**(Arrospide'tar Miren Kuruzne Arantzazu
bere jaiotz-urteurrenian)**

Euzko-baratzan sortu ta jaio
Zinan Aingeru-loria...
Beti mardulik, usain gozodun
Urtzi'k zaindu ta gordia.

Onoimenezko lore bikaiñoi,
Guraso deunen inguru...
Zorun osodun nai zaituguz, ba,
Ikusi beti Aingeru.

f1942)

